Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

# GORBEIALDEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO POLITIKEN EBALUAKETA ETA DIAGNOSTIKOA

Aramaio, Legutio, Zigoitia eta Zuia udalerrietako Berdintasun Planen Ebaluazioa eta Kuadrillako udalerri guztietako berdintasun politiken diagnostikoa Gorbeialdeko Lehenengo Berdintasun Plana egiteko. 2018.



Laguntzaileak:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EMAKUNDE

red kuorum

Laguntza teknikoa:
Helena Ortiz de Lejarazu
Estibaliz Etxebarria.
Red Kuorum S.L.

Bultzaketa eta zuzendaritza:
Araitz Palacios.
Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua.

Babeslea:
Arabako Foru Aldundia

Babeslea:
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

# AURKIBIDEA

AURKIBIDEA ........ 1

SARRERA ........ 2

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA ........ 5

2. JOERA DEMOGRAFIKOAK ........ 9

3. EBALUATUTAKO BERDINTASUN PLANEN EZAUGARRIAK ETA DISEINUAREN EBALUAKETA ........ 25

4. I. ARDATZA: GENERO *MAINSTREAMINGA* ETA GOBERNU ONA ........ 36

5. II. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ........ 64

6. III. ARDATZA: KONTZILIAZIOA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA ZAINKETAK ........ 110

7. IV. ARDATZA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA ........ 118

8. ONDORIOAK ........ 132

ERANSKINA: GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA ........ 147

# SARRERA

Gorbeialdeko Kuadrilla Arabako zazpi kuadrilletatik bostgarren jendetsuena da, 9.684 biztanlerekin 2017an. Gorbeialdean sei udalerri daude: Aramaio, 1.496 biztanle; Legutio, 1.800; Zigoitia 1.766; Zuia, 2.316 biztanle; Urkabustaiz, 1.330 eta Arratzua-Ubarrundia, 976 biztanle.

Gorbeialdean, aurretiko berdintasun ekintzak eratu baziren ere, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeari erantzuten zioten Berdintasun Plan formalak egiten 2015ean hasi zen, Aramaion, Zuian eta Zigoitian non Lehenengo Berdintasun Planak ezarri ziren, eta haien iraunaldia 2018ra arte izan da. Ondorengo urtean, Legution Lehenengo Berdintasun Planak eratu zen, 2019ra arte indarrean izango dena.

Berdintasunerako Politiken diseinatzea eta ezartzea udalerrikoak izan dira. Momento hartan, egoera hori koherentea zen kudeaketarako erantzukizunarekin, non teknikari soziokulturalak arduradunak ziren.

Hala ere, 2016an, Arabako Foru Aldundiak aurrekontu-sail bat esleitu zuen, FOFELen bidez, pertsonal arduradun zehatza kontratatzeko. Pertsonal honen ardurak, kuadrilla mailan berdintasunerako politiken diseinua, kudeaketa eta ezartzea ziren. Testuinguru honetan, Gorbeialdea ekimen honetan sartu zen eta 2016 amaieran lehenengo Berdintasun Teknikaria kontratatu zuen, zeina oraingo teknikariagatik ordezkatua izan zen 2017ko hasieran.

2017an eta 2018an zehar, kuadrillako Berdintasun Zerbitzu berriak ekimen garrantzitsuak garatu ditu, aurrerapen esanguratsuekin. Hauek dokumentuan zehar deskribatuko dira. Hala ere, oraingo Berdintasun Planen erabilgarritasuna oztopatzen duten bi faktore daude, gutxienez. Lehenengoa, lana planifikatzeko dokumentu ezberdin batzuk izatea da. Egoera hau ez da eraginkorra: biztanle-dentsitatea handirik ez baita eta udalerriak oso antzekoak baitira; honek iradokitzen du politika koordinatu bat garatzea egokiena izan litekeela. Horrela, baliabideak hobeto aprobetxatuko dira eta elkarlanean sinergiak eta interrelazioak sortaraziko dira kuadrilla mailan: bai maila teknikoan, bai emakumeen artean, bai eragile sozialen artean.

Bigarrena, 2015etik aurrera Arabako Foru Aldundiak sustatutako programen garapen esponentziala da: hurrengo urteetan zehar, sustapen honek Araban Berdintasuna bultzatzeko eskenatokia guztiz aldatu zuen. Izan ere, planak idazten ziren egoera eta programa berriak testuinguru ezberdinak dira, eta horren ondorioz, baldintza, egitura eta

baliabide berriak kontuan hartu dituen planifikaziorako dokumentu berri bat sortu behar da.
Bi faktoreak kontuan hartuta, kuadrillako udalerrietako alkateak 2017 amaieran bildu ziren eta Berdintasunerako politikak birplanteatzea erabaki zuten, aldaketak kontuan hartuz eta hurrengo urteetan Berdintasuna bultzatzekotan. Aldi berean, udalerri bakoitzak ibilitako bidea eta aurrekari ezberdinak kontuan hartuko dira, kuadrillako logika udalerri bakoitzaren ezaugarriei egokituz.

Erabaki estrategikoki operatibo honek dakartzan zailtasun teknikoak kontuan izan beharko dira txostena irakurtzean.

Lehenik eta behin, egitura ezberdinak dituzten planak aldi berean ebaluatzeak lehenengo barne erabaki bat hartu behar dela dakar: plan bakoitzaren ikuspen bat eskaintzea ala lortutakoaren zein gauzatu behar diren erronken ikuspen osoa eskaintzen saiatzea.

Horretarako, ebaluazio honen helburua "batutzailea" baino, formatiboa dela kontuan hartu dugu, hots, ez dago kontua ematerik, baizik eta lorpenen eta erronken eskenatokia ikustea nahi dugu, amankomunean dauden puntuak zein beharrak udalerri bakoitzaren Berdintasunerako egiturei eta baliabideei egokitzekotan.

Horregatik, plan guztien ekintzak jaso dira eta beren betetze-gradua aztertua da, baina, aldi berean, plan horien egiturak batu dira logika komun bati jarraituz, zeina dokumentu originalekin beti kointziditzen ez den. Hau dela eta, antzekoak ziren ekintza batzuk helburu edo ardatz estrategiko ezberdinetan zeuden.

Bigarren erabakia Berdintasun Planik ez zeukaten udalerriak barne hartzea izan da. Logikoki, ez da posible ez dauden planak ebaluatzea, baina, udalerri guztietako berdintasunerako neurri batzuk garatu dira; eta prozesu honen xedea kuadrilla osorako Berdintasunerako Politika diseinatzea errazten duen informazioa eskuratzea denez, planik gabeko udalerrien lorpenak eta erronkak aztertzea koherentea dela dirudi.

Hausnarketa prozesu honen ostean, ebaluazio hau sortu da, non Aramaioko (2015-2018), Legutioko (2016-2019), Zigoitiko (2015-2019) eta Zuiako (2016-2019) Emakumeen eta Gizonen Lehenengo Berdintasun Planak aztertu diren. Hemendik aurrera, lau plan horiei "lau Planak", "I. Berdintasun Plana" edo "I. plana" deritze. Horretaz gain, Gorbeialdeko Arratzua-Ubarrundia eta Urkabustaiz udalerrietan garatutako Berdintasunerako ekintzak kontuan hartuko dira.

Dokumentuan, prozesuan zehar jarraitutako helburuak zein metodologia jaso dira; ebaluatzen diren berdintasun planen egitura aztertu du, eta

planen diseinuari dagozkion pertsonal politikoaren zein teknikoaren eta herritarren balorazioak jaso ditu.

Ebaluazioa bera, jardun-arloetan garatu da, programatutako ekintzen betetzeari dagokion azterketa sakona egitekotan, hurrengo egiturari jarraituz:

- I. ARDATZA: MAINSTREAMINGA ETA GOBERNU ONA
- II. ARDATZA: AHALDUNTZEA
  - 5.1 Ahalduntze pertsonalari, autoestimuari eta sentsibilizazioari laguntzea.
  - 5.2 Ahalduntze kolektiboari eta politikoari laguntzea.
  - 5.3 Baliabideetara heltzea: enplegura, hezkuntzara, hirigintzara eta ingurumenera, kulturara, ohitura osasungarrietara eta kirolera, inklusio sozialera.
- III. ARDATZA: KONTZILIAZIOA ETA ERANTZUNKIDETASUNA
  - 6.1 Kontziliazioa
  - 6.2 Erantzunkidetasuna eta Zainketak
- IV. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
  - 7.1 Prebentzioa
  - 7.2 Arreta
  - 7.3 Koordinazioa

Atal bakoitzean, eskuratutako lorpenak eta erronkak definitu dira, zeintzuk bigarren mailako azterketaren eta herritarren, pertsonal politikoen zein teknikoen ekarpenetatik ondoriozta daitezkeen.

Amaitzeko, txostenean egindako azterketaren ondorio garrantzitsuenetariko batzuk jaso dira, baita Gorbeialdeko I. Berdintasun Plana idazteko gomendioak ere.

# 1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

## 1.1 HELBURUAK

### HELBURU OROKORRA

Ikerlan hau antolatzen duen helburu orokorra Aramaioko, Legutioko, Zigoitiko eta Zuiako Berdintasun Planak ezarri ondoren, ibilitako bidea eta ibiltzekoa ebaluatzea da. Horretarako, politikak ebaluatzeko hiru helburuak kontutan hartuko dira: diseinua, prozesua eta emaitzak, bai zuzenak (betetako ekintzak), bai zeharkakoak (berdintasunari dagokion egungo egoera). Horretaz gain, ebaluaketa honetan Urkabustaiz eta Arratzua-Ubarrundiako udalerriak kontuan hartuko dira, Gorbeialdeko Kuadrillaren ikuspen osoa izateko.

### HELBURU ZEHATZAK

Ebaluaketaren araberako helburu zehatzak honako hauek izan dira:

**A. DISEINUAREN EBALUAZIOA:**

**ZER EGIN NAHI GENUEN?**

Baloratzea:

• Berdintasun planak errealitatearen azterketa onean oinarrituta diren.

• Ekintzak ondo formulatuta, definituta, hierarkizatuta, eta zehaztuta zeuden.

• Behar diren baliabideen aurreikuspena, giza baliabideak eta beren antolaketa barne.

• Berdintasun Planen koherentzia, egitearen arduradunen filosofiarekin eta helburuekin.

**B. PROZESUAREN EBALUAZIOA:**

**ZER EGIN DUGU?**

Aztertzea:

• Aurreikusitako ekintzak bete diren eta desbideratze gradua.

• Plana gauzatzeko baliabide egokiak erabili diren, giza baliabideak barne.

• Aurreikusitako pertsona hartzaileen taldeari heltzen ari den.

• Proiektatutako egutegiaren betetze gradua

**C. EMAITZAREN EBALUAZIOA:**

**ZER LORTU DUGU?**

Atal honetan, ebaluazioa hurrengoa aztertzean datza:

• Politiken lorpenak: Berdintasunerako Politiken ezartzearen eratorritako produktu nagusiak, ikusitako eraginak, genero arrakalak eta foruetan parte hartu duten emakumeen hautematea berdintasunari dagozkion egoerari, beharrei eta erronkei buruz

## 1.2 METODOLOGIA

Prozesu honetarako erabilitako metodologia hurrengo eskeman azaltzen da:

### 1. LANEN PRESTAKETA ETA PROIEKTUA ABIAN JARTZEA

- 1.1 Abian jartzeko bilera.

### 2. LANDA-LANA

- 2.1 Berdintasun Zerbitzuarekin elkarrizketa: diseinuaren, prozesuaren eta emaitza zuzenen balorazioa.
- 2.2 Bigarren mailako azterketa: inpaktuaren eta egoeraren balorazioa
- 2.3 Pertsonal teknikoarekin elkarrizketak. 17 pertsona.
- 2.4 Lantaldea Teknikari soziokulturalekin.
- 2.5 Formakuntza-Akzio taldea pertsonal teknikoarekin.
- 2.6 Kuadrillako eta Gorbeialdeko sei udalerritako pertsonal politikoarekin elkarrizketa. 8 pertsona.

### 3. ELKARTE MUGIMENDUAREKIN ETA ONURADUNEKIN EBALUAZIOA

- 3.1 Onlineko galdetegia.

### EBALUAZIO-TXOSTENA EGITEA ETA I. PLANAREN JARDUN-PROPOSAMENAK

### I. BERDINTASUN PLANAREN NEURRIEN ETA HELBURUEN KONTRASTEA

- Taldea pertsonal teknikoarekin. 15 pertsona.
- Taldea pertsonal politikoarekin. 6 pertsona.
- Taldea elkarteen mugimenduarekin. 32 pertsona.

### 4. PLANA IDAZTEA

1° SEI HILEKOA:

Lanaren prozesua abian jarri zen, berdintasun zerbitzuarekin metodologia kontrastatu zen eta segimendurako materialak zein oinarrizko txostenak jaso ziren.

1° SEI HILEKOA:

Bigarren mailako iturrien azterketa egin zen: kuadrillako egungo egoeraren mapa bat egitekotan, alderdi soziodemografiko garrantzitsuen datu estatistikoak eta txosten kualitatiboak berrikusi dira berdintasuneko egoerarako, besteak beste:

1. EUSTAT – Estatistika Euskal Erakundearen datuak
2. Enplegu Euskal Zerbitzua - Lanbideren datuak
3. Hiri-behatokia - Garapenen datuak
4. Gizarte Ongizate Foru Erakundearen (GOFEren) datuak
5. Gorbeialdeko indarkeria matxistaren egoeraren Diagnostikoa.

Gainera, egungo Berdintasun teknikariarekin bi lan-saio egin ziren, bakoitza hiru ordukoa; eta lantalde bat teknikari soziokulturalekin, bi ordukoa, 2016ra arte Berdintasunaren inguruko kudeaketaren eta koordinazioaren arduradunak baitziren.

Horretaz gain, Kuadrillako zein Udalerrietako teknikariekin 17 elkarrizketa egin ziren, haien ezagutza eta balorazioak jasotzeko. Elkarrizketatu ziren profilak honako hauek ziren:

a. Euskara Teknikaria
b. Ingurumena Teknikaria
c. Gizarte Zerbitzuko langileak
d. Integrazio Soziala
e. Garapen Ekonomikoa Teknikaria
f. Turismo Teknikaria
g. Kuadrillako Administrazioa Pertsonala: idazkariak.
h. Hiru udalerritako Hirigintzarako politiken arduradunak

Gainera, elkarrizketaren bidez parte hartu ezin zirenei onlineko galdetegiak eman zaizkien.

2° SEI HILEKOA:

Prozesu honen ostean, pertsonal teknikoarekin formakuntza-ekintza talde bat egin zen: hiru ordukoa, non zortzi pertsonak parte hartu zuten; eta zortzi elkarrizketa, bakoitza ordu batekoa: Kuadrillako hiru Alkaterekin, lau Zinegotzirekin eta Kuadrillako Presidentearekin.

Gainera, Emakumeei zein elkarte mugimenduari zuzendutako galdetegi bat gehitu zen, non 31 pertsonak parte hartu zuten.

Informazio honekin guztiarekin, Gorbeialdeko Berdintasunerako Politiken Ebaluazio Txosten honen zirriborroa idatzi zen.

# 2. JOERA DEMOGRAFIKOAK

Aipatu dugun bezala, Aramaioko, Legutioko, Zigoitiko eta Zuiako planak aztertu badira ere, interesgarria da Urkabustaizen eta Arratzua-Ubarrundian ere biztanleriaren bilakaera miatzea, non Berdintasun eta indarkeria matxistaren aurkako jarduerak egin diren. Beraz, kuadrillako biztanleriaren bilakaera demografikoa jaso dugu.

## 2.1 BIZTANLERIAREN BANAKETA SEXUAREN ARABERA

Ikus daitekeen bezala, Gorbeialdean ia 10.000 pertsona dago. Horietatik, %47a emakumeak dira. Zuia udalerririk jendetsuena da, Legutio eta Aramaio aurretik.

| Udalerria | Biztanleria 2017an | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Aramaio | 1496 | 791 | 705 |
| Arratzua-Ubarrundia | 976 | 528 | 448 |
| Legutio | 1800 | 960 | 840 |
| Urkabustaiz | 1330 | 699 | 631 |
| Zigoitia | 1766 | 960 | 806 |
| Zuia | 2316 | 1191 | 1125 |
| | **9684** | **5129** | **4555** |

*Taula 1: Sexuaren arabera bereiztutako biztanleria: Aramaio, Legutio, Zigoitia, Zuia Arratzua-Ubarrundia eta Urkabustaiz. 2017an. Iturria: Garapen.*

Aztertutako udalerrien biztanleriak ez du aldaketa handirik izan, Legution eta Urkabustaizen hazkunde esanguratsuagoa ikus badaiteke ere. Aramaion eta Zigoitian biztanleen kopurua neurrizko igoera izan du; Arratzuan-Ubarrundian eta Zuian, berriz, behera joan da. Gainera, Gorbeialdeko biztanleen mugimendurik handiena Zuian eman da.



## 2.2 BIZTANLERIA UDALERRIAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Udalerri bakoitzean, bilakaera demografikoa sexuaren eta adinaren arabera, honako hau izan da:

### 1. ARAMAIO




*Grafikoa 1: Aramaioko biztanleria piramidea 2017an. Iturria: Garapen.*

Aramaioko biztanleen gehiena 40-60 urteko adinetan daude, emakumeak zein gizonak, eta 50-54 urteko taldeko kopurua altuena da. Talde honetan, emakumeek menpeko adingabeen zainketa eginkizunak murrizten hasi ahal dute, eta aldi berean, adinekoen (gurasoen) zainketa lanak betetzen hasi ahal dute. Nolanahi ere, udalerri honetan beharrezkoa da haurren zainketarako beharrak kontuan izan behar dira: orokorrean, eta zehatzean jarduerak antolatzeko orduan, adingabeen ehuneko esanguratsua baitago, bereziki 5 urtetik 15 urtera.

## 2. LEGUTIO




*Grafikoa 2: Legutioko biztanleria 2017an. Iturria: Garapen.*

Legutioko biztanleriaren piramideak 35-50 urteko taldeetan gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa dela erakusten du. Halaber, 15-25 urteko taldeetan biztanleen kopurua oso murriztuta dago: emakumeengan %1a eta %2a baino gutxiago gizonengan. Hala ere, adin horietatik behera, 5-9 urteko taldean haurren kopurua %3koa da. Haurren kopuruaren igoera hori, 35-49 urteko talde jendetsuenetako pertsonen seme-alabei dagokiela izan liteke. Beraz, argi dago udalerriko mendeko adingabeen zainketarako beharrak osaeraren eratorritakoak direla.

## 3. ZIGOITIA




*Grafikoa 3: Zigoitiko biztanleria piramidea 2017an. Iturria: Garapen.*

Zigoitiko biztanleria piramideak 55-64 urteko taldeen kopuruak handienak direla erakusten du; baina 40-49 urteko biztanleen kopurua era altua da. Beraz, mendeko adinekoen zein adingabeen zainketarako beharrak antzekoak izatea aurreikustekoa da.

## 4. ZUIA




*Grafikoa 4: Zuiako biztanleria piramidea 2017an. Iturria: Garapen.*

Zuiako biztanleria piramideak aldaketa nabarmenak erakusten ditu, nahiko simetriako bada ere, 84 urte baino gehiagoko taldean izan ezik. Biztanleen kopuru handien dauzkaten adin-taldeak 45etatik 59etara joaten direnak dira. Berriro ere, 10-19 urteko gazteen kopuruan hazkunde bat aurkitzen da, eta hauek helduen talde jendetsuenei dagozkie. Udalerri honetan emakumeen kopurua (1.125) eta gizonen kopurua (1.191) orekatuta daudela aurkitu dugu.

## 5. URKABUSTAIZ




*Grafikoa 5: Urkabustaizko biztanleria piramidea 2017an. Iturria: Garapen.*

Urkabustaizko udalerriari dagokio biztanleria piramideak profil asimetrikoa dauka, non biztanle gehien barne hartzen duten taldeak 35-59 urtekoak dira, gizonei dagokienez; eta 40-54 urtekoak, emakumeei dagokienez. Era berean, neskaren kopuruaren eta mutilenaren arten asimetria badago. Horrela, 5-9 urteko nesken kopurua ia %4ra arte heltzen da; aitzitik, mutilen kopurua %3a baino pixka bat altuagoa da. 0-4 urteko taldea ere jendetsuenetariko bat da, neskei zein mutilei dagokienez; nesken kopurua handiagoa delarik.

## 6. ARRATZUA-UBARRUNDIA




*Grafikoa 6: Arratzua-Ubarrundiako biztanleria piramidea 2017an. Iturria: Garapen.*

Arratzua-Ubarrundiako biztanleria piramidea ez da Kuadrillako besteak bezalakoa. Gizonen kopurua emakumeena %8 baino handiagoa da. Biztanleria gehiena 45 eta 69 urte bitarteko taldeetan dago. Hala ere, piramidearen haurren eta gazteen adin-tarteetan ez dago hazkunderik, 5-9 taldean zein 15-19 taldean izan ezik. Beraz, piramide honek biztanleria heldua-nagusia dela adierazten du. Arratzua-Ubarrundiako udalerri jendetsuena Durana da, Arabako hiriburutik oso gertu dagoena.

## 2.3 JOERA DEMOGRAFIKOAK

Miatutako udalerrien Berdintasun Politikei dagozkien balorazioaren eta diagnostikoaren azterketa garrantzitsua biztanleriaren joerak dira. Beraz, bere iraunaldian zehar izandako planaren bilakaera aztertuko dugu, hurrengo adierazleen bidez: zahartze, gainzahartze, haur, amatasun eta mendekotasun adierazleak.




*Grafikoa 7: Zahartze adierazlearen bilakaera (biz > 64 / biz guztia) x 100. 2009-2017. Iturria: Garapen.*

Kuadrillako zahartze adierazle guztiak Arabako batez bestekoa baino baxuagoak dira, 2014-2017 aldian, Aramaiokoa izan ezik. Arratzua-Ubarrundiako kasuan batez ere, 2014tik zahartze adierazlearen areagotze esanguratsua izan da, hain zuzen ere, Berdintasun Planen iraunaldian zehar. Urkabustaizen, adierazle hau egonkorra mantendu da urteetan zehar, are gehiago, txikiagotze arin bat gertatu da.




*Grafikoa 8: Gainzahartze adierazlearen bilakaera (75 eta geh. biz / 65 eta geh. biz) x 100. 2009-2017. Iturria: Garapen.*

Zahartze adierazleak lurraldeko gainontzekoak baino txikiagoak edo berdinak badira ere, gainzahartze adierazlea, aldiz, –75 urte baino gehiago duten pertsonen kopuruaren eta 65 urte baino gehiagokoen kopuruaren arteko proportzioa– Arabako batez bestekoa baino handiagoa da hiru udalerritan: Aramaion, Zuian eta Urkabustaizen.

Urkabustaiz gailentzen da, adierazlerik altuena izateagatik; baina 2014ri dagokionez, beherakadarik handiena dauka, sei puntu gutxiagorekin. Joera hau gainontzeko udalerrietan ere agertzen da Zuian izan ezik. Arabako batez bestekoaren azpitik, Zigoitia, Legutio eta Arratzua-Ubarrundia aurkitzen dira. Eta azken honek kuadrillako adierazlerik baxuena dauka.




*Grafikoa 9: Haur adierazlearen bilakaera (0 – 14 biz / biz. guztira) x 100. 2009-2017. Iturria: Garapen.*

Haur adierzalei dagokienez, aztertutako guztiak Arabako batez bestekoa baino altuagoak dira, Arratzua-Ubarrundia izan ezik. Hala ere, 2014tik aurrera, udalerri guztietan, Legutio izan ezik, joera berantz joatea izan da.




*Grafikoa 10: Amatasun adierazlea (0-4 urteko biz. / 15-49 urteko emakumeak) x 100. 2009-2017 bilakaera. Iturria: Garapen.*

Haur adierazleak bezala, amatasun adierazleak erakusten du 15-49 urteko (ugaltzeko adinean) emakumeen kopuruari dagokion 0-4 urteko haurren proportzioa. Amatasun adierazlea Arabako batez bestekoaren gainean dago udalerri guztietan, Arratzua-Ubarrundian (berriro ere) eta Zuian izan ezik. Gainera, bi udalerri hauetan beheranzko joera lau urteotan ikusi da, zeina kuadrillako gainontzeko udalerrietan errepikatzen den, Zigoitia izan ezik.




*Grafikoa 11: Mendekotasun adierazlearen bilakaera (15 > biz. + 64 < biz. / 15 - 64 biz.) x 100. 2009-2017. Iturria: Garapen.*

Azkenik, mendekotasun adierazlea (15 urte baino gutxiagokoen eta 64 urte gehiagokoen proportzioa erakusten duena) aztertzeak erakusten du egungo mendekotasun adierazle guztiak Arabako batez bestekoa baino baxuagoa dela, Aramaio izan ezik, non ia %60a den.

Azterketaren arabera, Zuia eta Urkabustaiz izan ezik, ikertutako udalerri guztietako adierazleek gorakada izan dute 2014-2017 aldian; eta ondorioz, Berdintasun Planen iraunaldian zehar.

Horrela, kuadrilla mailan, udalerri guztietan **zahartze adierazleak** Arabako batez-bestekoa baino txikiagoak direla esan dezakegu, azken **lau urteotan udalerri gehienetan joera gora doala ikusi bada ere**.

Gainera, **Aramaion, Zuian eta Urkabustaizen gainzahartze adierazleak lurraldekoak baino altuagoak** dira; beraz, nagusien zein mendeko pertsonen autonomia bultzatzeko edo haien zainketak arintzeko ekintzak oinarrizkoak dira bai kuadrillan, bai herri hauetan.

Beste aldetik, **haurreria adierazalek Arabako batez-bestekoak baino altuagoak** dira, Arratzua-Ubarrundia izan ezik.

Hau guztia kontuan hartuta, zainketei dagokien ardatzan, garrantzitsua da emakumeen eta gizonen arteko **erantzunkidetasuna** sustatzea, kontziliazioa baino haratago: **bai publiko arloan, bai pribatu arloan, bai kolektiboan**, eta batez ere, eskualdean **zainketa-ereduaren** buruz hausnartzea.

## 2.4 MIGRATUTAKO BIZTANLERIAREN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

Gorbeialdean atzerritarren kopuruaren batez bestekoa %4,05ekoa da; Arabako batez bestekoaren erdia gutxi gorabehera (%8,85) eta Arabako gainontzeko kuadrilletakoa baino baxuagoa. Etorkin gehienak Europar Batasunakoak direla ezaugarririk zehatzenetariko bat da, eta %75ekoa da gutxi gorabehera (%4,5tik %3,4), Europar Batasunetik datozen etorkinen proportziorik handiena Legution eta Urkabustaizen baitago.

Udalerrien arteko banaketari dagokionez, Urkabustaiz harrerako helmuga nagusia da, % 8,75arekin; Arabako batez bestekora ez da heldu baina oso gertu dago. Jarrian daukagu Legutio, %7,4arekin; eta gainontzekoen proportzioak %5a baino txikiagoak dira.




*Grafikoa 12: Gorbeialdeko udalerrietan dauden atzerritarren ehunekoa 2017an. Iturria: egileek egina EUSTATen datuen arabera.*

Migratze-saldoari dagokionez, Berdintasun Planak garatzeko denboraldian zehar, jasotako pertsonen kopurua eta joandakoena oso antzekoak dira: gizon etorkinen kopurua joan direnen kopuruarekin kointziditzen da 244 gizon; eta emakume etorkinak 177 dira, eta joandakoak 175 izan dira.




*Grafikoa 13: Migrazio mugimenduek eragindako biztanleriaren gehitze absolutua, sexuaren arabera. Iturria: EUSTAT.*

Emakumeen migrazio-mugimendua gizonena baino txikiagoa da esanguratsuki, bai emakume etorkinen artean, bai emigranteen artean; ondorioz, emakumeen migrazioa 30 puntu baxuagoa da. Bakarrik Zuian eta Zigoitian emakume etorkinen kopurua gizonena baino altuagoa da. Emakume emigranteen kopurua gizon emigranteena baino baxuagoa da udalerri guztietan, aztertutako denboraldian.




*Grafikoa 14: Genero-arrakala (emakumeak-gizonak) migrazio-mugimenduetan, 2014 eta 2016 bitartean Gorbeialdeko udalerrietan. Iturria: EUSTAT.*

Aramaiora, Legutiora, Zigoitiara, Zuiara, Urkabustaizera eta Arratzua-Ubarrundiara pertsona migratuen jatorrizko herrialdeak hobeto ezagutzekotan hurrengo grafikoan datuak erakusten dira:




*Grafikoa 15: Sei udalerrietan bizi diren migratutako pertsonen jatorria. Iturria: egileek egina Garapenetik ateratako datuekin.*

Kuadrilla mailan pertsona migratu gehienak europarrak dira, horien %75 baino gehiago Zuian eta Urkabustaizen baitaude. Bai Urkabustaizen, bai gainontzeko udalerrietan, bigarren jatorririk maizena Afrika da, eta Legution kontinente hori da jatorririk maizena.

Amaitzeko, **kuadrillako etorkinen ehunekoa Arabako batez bestekoa baino txikiagoa** kontuan hartuta, Legution eta Urkabustaizen atzerriko biztanleria gehiago aurki daiteke: Legution, Afrikatik; Urkabustaizen, Europatik.

Hala ere, biztanleriaren mugimendua aldaketa soziodemografikoa da eta horregatik, bai emakume atzerritarren bazterkeria intersekzionalaren ondorioak lantzea, bai emakume etorkinenganako edo emakume etorkinenganako eta hemengoenganako egitarauak egitea aukera interesgarriak izan daitezke.

Emakumeek, bai bere kabuz, bai taldeka hausnartzeko, espazioak eratzean datza:

- Emakume izateari buruz
- Erresistentzia anitzei zein aurre egin dieten borrokei buruz
- Bere gaur egungo udalerrian aurre egin dioten errealitateari
- Parte hartzeko zein erlazionatzeko sareak eratzeko esparruak sortzearen inguruan

Zuian eta Zigoitian emakume etorkinen kopurua gizonena baino altuagoa denez, biok, Zuia batez ere, onak izan diatezke.

# 3. EBALUATUTAKO BERDINTASUN PLANEN EZAUGARRIAK ETA DISEINUAREN EBALUAKETA

Aramaioko, Legutioko, Zigoitiko eta Zuiako Berdintasun Planak hurrengo erakunde- eta legegintza- esparruak kontuan hartuta proposatuak ziren:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimenaren Oinarriak Erregulatzen duena; zehazki 28 artikulua, non "*udalerriek Administrazio Publikoez gain, jarduera gehigarriak egin ditzaketela, eta zehazki, (…) emakumea sustatzeari dagozkionak*" zehazten den.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; 15 artikulua azpimarratzen dugu, non "*Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko direla*" erakusten den. Honek ere, hurrengoa zehazki erakusten du: "*Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomia eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta mendean edo lotuta dituzten gainerako erakunde publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute*".
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana, Eusko Jaurlaritzak onetsita, eta lau udalerrietarako I. Berdintasun Plana egiteko erreferentziatzat hartu zena. Horretaz gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planen II. Zirriborroa kontuan hartu da.
- 4/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako.
- Bizitza lokaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna.

Horrela, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak proposatutako esku-hartze lerroetan oinarrituta lau planak antolatu ziren:

**I. ardatza. Genero *mainstreaminga* eta gobernu ona:**
Zeharkakotasuna edo Transbertsalitatea ere izendatua da. Lehenengoz, 1987an Nazioarteko Erakundeko Emakumearen Egoera Juridikoari eta Sozialari buruzko Batzordeak proposatuta zen. Xedea, genero ikuspegia integratzea da, hau da, emakumeen zein gizonen behar, egoera, nahi eta asmo ezberdinak sistematikoki kontuan hartzea da; desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu zein jarduketa zehatzak gehituz, politika zein ekintza guztietan, maila guztietan, eta horien plangintzaren, gauzatzearen eta ebaluazioaren fase guztietan.

**II. ardatza. Ahalduntzea eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoa:**
Ardatz honetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea zein bermatzea barne hartzen da, eta zehazki, emakumeen autonomia bultzatzea eta beren estatusa indartzea.

**III. ardatza. Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna:**
Ardatz honetan, bizitza pertsonalaren, familiarraren eta laboralaren kontziliazioa errazteko neurriak zein jarduerak jasotzen dira. Horretarako, etxeko lanean gizonek erantzunkidetasuna hartzea, bizitza pertsonalaren eta familiarren beharrei enpleguaren egiturak egokitzea, eta pertsonei zerbitzu soziokomunitarioen ordutegiak egokitzea bultzatu behar da. Azken finean, bizitza erdigunean jartzean datza.

**IV. ardatza. Emakumeen aurkako indarkeria:**
Dokumentu osoan zehar hartutako neurriak eta ekintzak prebentiboak dira, gizarte berdinzale batek indarkeriarik gabeko gizarte bat izateko aukera gehiago baitu. Gainera, laugarren ardatz honek emakumeen aurkako indarkeriari zehazki ekiten dio: indarkeria sexistari aurre egiteko neurriak eta baliabideak antolatuz. Indarkeria mota honen definizio zehatza honako hauxe da: "*sexu arrazoiagatik egindako edozein ekintza bortitz, ondorioz, min fisikoa, sexuala edo psikologikoa dakarrena edo ekar dezakeena edo emakumeari sufrimendua eragin diezaiokeena, horrelako ekintzak egiteko mehatxua, derrigortzea edo askatasun arbitrarioa ukatzea ere barnean hartuta, bai bizitza publikoan bai pribatuan*".

**Aramaioko I. Berdintasun Plana** 2015-2018 aldian indarrean izan da, 2012an egindako diagnostikoa kontuan hartuta. **Zigoitiko eta Zuiako lehenengo Berdintasun Planak** ere tarte horretan indarrean jarri dira (2015-2018). Beste aldetik, 2013an egindako diagnostikoa kontuan hartuta, **Legutioko I. Berdintasun Plana** eratu zen, eta 2016-2019 aldian ere indarrean izan da. Beraz, **kuadrillako lau Planak lau udalerrietako lehenengoak izan dira.**

Aztertutako plan guztiak EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko V. Berdintasun Planean agertzen diren lau esku-hartze ardatzetan oinarrituta

daude. Aldi berean, ardatz bakoitzari helburu batzuetatik ekin zitzaion. Helburu hauek ekintza edo neurri zehatzetan eratuta dago.

Gainera, jardun-arloak barne hartu dira, udalerri bakoitzeko edo kuadrillako erantzukizunak banatzekotan zein zehaztekotan. Halaber, betetze-egutegia eta zerrenda bat adierazleekin azaldu zen, Planen ebaluazioa egin ahal izatearren.

## 3.1 LAU BERDINTASUN PLANEN EGITURA

Planen egitura honako hauxe da:

| Aramaio: | |
|---|---|
| 94 ekintza | 26 helburu |

| Legutio: | |
|---|---|
| 48 ekintza | 14 helburu |

| Zigoitia | |
|---|---|
| 32 ekintza | 7 helburu |

| Zuia | |
|---|---|
| 30 ekintza | 15 helburu |

*Taula 2: Gorbeialdeko Berdintasun Planen egitura. Iturria: egileek egina.*

Udalerri guztietan giza baliabideak antzekoak direla eta planen iraunaldia lau urtekoa dela kontuan hartuta, argiki, Aramaiokoa asmo handikoen plana da, Legutioko planaren ekintzen kopurua ia bikoiztuz. Aldi berean, Legutio bigarren postuan izango zen, Zuiako planaren ekintzen kopurua hirukoiztuz. Horrela, Zuiako planak proposatutako ekintzaren kopururik txikiena da. Zalantzarik gabe, ekintzen kopurua ez da nahikoa, eratutako ekintzak asko baina eragin txikikoak badira; baina, proposatutako edukieren deskribapena egitean zehar ikusiko dugun heinean, Aramaioko Planen ekintzek prozesua zehatz-mehatz deskribatzeko joera badaukate ere, edukieren kopurua ekintzen kopuruarekin proportzionala da.

Beste aldetik, asmo handiko diseinuak bakarrik asmo baten inguruan informatzen du, edo beharrak antzemateko orduan trebetasun ona erakusten du, baina horrek ez du esan nahi plangintza ona dagoenik. Plangintza ona dago, planak gauzatzeko orduan, beharrei lehentasuna ematen zaienean eta giza baliabideez zein ekonomikoez hornitu behar zaizkienean.

Zentzu horretan, Aramaioko eta Legutioko ekintzetan baliabide ekonomikoez hornitzea eta ezartzeko arduradun bat kontratatzea eratzen bazuten ere, inongo kasutan ez da orduen kopururik zehaztu, ezta aurrekonturik ere ez. Honek planen bideragarritasuna murrizten du.




*Grafikoa 16: Lau planen helburuen kopurua arlo funtzionalaren arabera. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

Aramaioko, Legutioko, Zigoitiko eta Zuiako Planen jardun-arloaren araberako ekintzen banaketaren azterketak hurrengoa erakusten du: ekintza gehienak "berdintasunerako neurri orokorrak" dira, zeintzuk administrazioaren arlo zehatz batean kokatzen ez diren; gainontzekoak, hezkuntza, kultura, kirol, hirigintza, inklusio sozial eta osasun arloei dagozkie.

Hezkuntza eta Kultura arlo bietan ekintza gehienak daude. Hezkuntza kasuaren garrantzia horrela azal daiteke: ikastetxeetan hezkidetza programak izatearekin, hots, berdintasuna eskuratzeko eskolan hezkidetza ezartzea oinarrizkoa izatearekin (familiaren inguruak, bigarren mailako sozializazioak, inguru soziokulturalak eta komunikabideek duten eragina alde batera utziz), eta publiko "gatibua" izatearekin, arlo hau nabarmena da. Beste aldetik, Berdintasun Zerbitzuen funtzioak teknikari soziokulturalei esleitzea erabilgarria denez, bigarren arlo honen garrantzia uler daiteke. Horretaz gain, deigarria da berdintasuna sustatzeko neurrien gabezia oinarrizko arlo batzuetan, esaterako, lanean/enpleguan eta hirigintzan izatea, arlo horiek emakumeek autonomia ekonomikoa eta zainketaren kolektibizatzea zein erraztea lortzean eragina handia baitaukate.




*Grafikoa 17: Lau planen ehuneko jarduerak arlo funtzionalaren arabera. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

Beste aldetik, lau planen ardatz antolatzaileak kontuan hartuta, ekintzen eta neurrien banaketa honako hauxe da:




*Grafikoa 18: Berdintasunerako politiken jardueren ehunekoak, lan ardatzaren arabera. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

204 ekintza guztietatik lau planetarako, *Mainstreaming*erako I. ardatzean 87 ekintza (%43a) aurkeztu dira; Emakumeen ahalduntzerako eta parte hartze soziopolitikorako II. ardatzean, berriz, 54 ekintza (%26a) programatu ziren; Kontziliaziorako eta Erantzunkidetasunerako III. ardatzean, 30 ekintza (%15a); eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko IV. ardatzean, 33 ekintza (%16a).

Datu horiek behin aztertuta, indarkeria matxistari aurre egiteko, kontzilizaiorako, erantzunkidetasunerako eta zainketerako lan guztiaren proportzioa, programatutako ekintza guztien kopuruaren heren batera heltzen ez dela esan dezakegu.

## 3.2 BERDINTASUN PLANEN EDUKIA

Haratago, ardatzaren arabera, landu diren eduki zehatzak aztertzea interesgarria da.

Lau planak batera ebaluatzea ez da erraza izan, plan guztiek lana lerro berberetan edo ardatz berberetan antolatuta ez baitituzte. Adibidez, hirigintza urbanismoa: Aramaion eta Legution, zainketen ardatzean eratuta dago, hiriari zein indarkeria matxistari buruzko azterketa ekintzak direnean, hots, segurtasun eza sortzen duten guneak antzeman behar direnean. Genero ikuspuntua jaietan sartzeko ekintzak, batzuetan, indarkeria matxistaren arloan antolatzen da; beste batzuetan, ahalduntzearen arloan.

Baina, bi kasuetan, irizpideak bateratu dira, hirigintza inklusiboa ahalduntzearen arloan –baliabideetara sartzeko aukera parekidea errazten baitu– eta jaietan, ekintzak bi ardatzetan barne hartuz; ekintza berberak bi helburu ezberdinei erantzun baitiezaieke.

Horrela, hurrengoa aurkitu dugu:

| I. ARDATZA: Gobernu ona | Aramaio | Legutio | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|---|
| Hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexista eta Berdintasun edukiak komunikazioetan | x | x | x | x |
| Sexuaren araberako datuak jasotzea | x | x | x | x |
| Mahai parekideak areagotzea | x | x | | x |
| Berdintasun irizpideak dirulaguntzetarako, etab. | x | x | x | x |
| Koordinazio egiturak eratzea | x | x | | x |
| Pertsonal poliikoari eta teknikoari formazioa eskaintzea | x | x | | |
| Plana giza baliabideez hornitzea | x | x | | |
| Plana baliabide ekonomikoez hornitzea | x | x | | x |
| Araudian genero ikuspegia integratzea | | x | | x |
| **II. ARDATZA: Ahalduntzea** | **Aramaio** | **Legutio** | **Zigoitia** | **Zuia** |
| Baloreak aldatzea: rolak, estereotipoak, autonomia | x | x | x | x |
| Emakumeen elkarteen mugimendua sustateza eta parte hartzea bultzatzea | x | x | x | x |
| Egun seinalatuen ospatzea | x | x | x | x |
| Pobrezian edo bazterkeria arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzea | x | x | | x |
| Kulturaren hedatzeko materialetan genero ikuspegia sartzea | x | x | | |
| Hezkidtza | x | x | x | |
| Hirigintza aztertzea ikuspegitik | x | x | | |
| Enplegua aztertzea ikuspegitik | x | x | | |
| Bizitzeko ohitura osasungarriak | | x | | x |
| **III. ARDATZA: Zainketak eta erantzunkidetasuna** | **Aramaio** | **Legutio** | **Zigoitia** | **Zuia** |
| Udalerrian antolatutako jardueretan kontzialiazio zerbitzuak sustatzea. Ad.: ludotekan | x | x | | x |
| Erantzunkidetasunari eta zainketaren etikari buruzko hitzaldiak eta jarduerak | x | x | x | x |
| Kirola eta familia | x | x | | |
| Maskulinitate berriak | x | x | | |
| pertsonak, zaindariak... | x | x | | |
| **IV. ARDATZA: Indarkeria** | **Aramaio** | **Legutio** | **Zigoitia** | **Zuia** |
| Indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazio orokorra eta materialak hedatzea | x | x | x | x |
| Ikastaro zehatzak harreman biolentoak antzemateko eta identifikatzeko | x | x | x | x |
| Beldur Barik ekintzak edo sentsibilizazioa gazteekin | x | x | x | x |
| Arreta Protokoloa sortzea edo sustatzea | x | x | x | x |

*Taula 3: Gorbeialdeko Berdintasun Planen edukiak. Iturria: egileek egina.*

Ikus daitekeen bezala, Aramaioko eta Legutioko planek eduki gehiago antolatu zuten. *Mainstreaming* ardatzean, baliabideen beharrak eratzeaz gain, pertsonal politiko eta teknikoarentzako formaziozko ekintzak ere planteatu dituzte. Ardatz honetan ere, Zuiako Plana nabaria da, sexuaren arabera bereizitako datuak lantzea oso garrantzitsua dela aurreikusi baitu –aipatutako bi planek bezala–; eta genero ikuspegia arautegian txertatu baitu: Zuiako eta Legutioko planek baino ez dute gai hau barne hartu.

Ahalduntze ardatzari dagokionez, inklusio sozialean, enpleguan eta hirigintzan baliabideetara sartzeko eta baliabideak erabiltzeko aukerak berdintzeko lana ere plan hauetan aurkitzen da, eta hezkuntza eta kultura arloetan era homogeneoagoan lan egitea proposatu da. Legutioko eta Zuiako planak, bizitzarako ohitura osasungarriak lantzea proposatzeko bakarrak izan dira.

Kontziliazio, erantzunkidetasuna eta zainketak ardatzean, Plan guztiek gai honi buruzko hausnarketarako ekintzak antolatu dituzte. Aramaioko eta Legutioko Planek, gainera, maskulinitate berriei, erantzunkidetasunari eta mendeko pertsonen zainketari buruzko ekintzak proposatu dituzte.

Indarkeria matxistari dagokionez, Plan guztietan planteamendua kointziditzen da: prebentziorako zein sentsibilizaziorako ekintzekin, eta arreta nahiz koordinazioa betetzeko ekintzekin. 2017an egindako Arretarako Erakunde arteko Protokoloa idaztea amankomunean duten ekintza da.

Lau Planetako ekintza guztiak aztertzea oso konplexua denez, ebaluazio homogeneoa lortzekotan, udalerri guztietako ekintzak irizpide berberarekin taldekatu ditugu, lorpen eta emaitza guztiak alderatu ahal izatearren: ez izenen edo zifren arabera, baizik eta edukien arabera. Antolamendu honen bidez, informazio bideragarria lortu nahi dugu Gorbeialdeko Plan oso bat eratzeko, zeinek, aldi berean, udalerri bakoitzerako behar zehatzak artatu zituen. Hau da proiektuaren xede nagusia.

## DISEINUAREN INDARGUNEAK

Administrazioan genero ikuspuntua sartzeari garrantzia eman zaio:

- Udalerrien ezaugarriak kontuan hartu dira eta jarduera egokiak sortu dira.
- Baliabideak aprobetxatzen dira
- Erreferentziako plan autonomikoaren egiturari zein edukiei egokituak dira

## HOBETZEKO GUNEAK

- Giza baliabideak zein ekonomikoak planifikatzea
- Elkarteen mugimenduaren eskariei zein dauden baliabideei moldatzeko malgutasuna ematea
- Beste arloekin koordinazio lanari garrantzia handiagoa ematea, bai mainstreamingetik, bai planaren barruan dauden helburu zehatzetatik. Helburu horien erantzukizuna kuadrillaren edo udalerrien konpetentzia diren beste arloekin elkarbanatu ahal dira.
- Jardueren erantzukizunak argitzea, berdintasun teknikariari berak egin ezingo dituen funtzioak ematen ekiditeko (denbora edo baliabide ezagatik).
- Koordinazio lana argitzea eta zenbatzea: udalerri, kuadrilla, lurralde historiko zein erkidego autonomo mailan.
- Kudeaketa lana eta sustapen politikoaren beharrak zenbatzea eta planifikatzea.

# 4. I. ARDATZA: GENERO *MAINSTREAMINGA* ETA GOBERNU ONA

Egindako lana aztertzekotan, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen araberako genero ikuspegia integratzearen ondorioak lau udalerrietako oinarrizko jardueretan kontuan hartu dira: konpromiso politikoa, programatutako ekintzak gauzatzeko aurrekontua, komunikazioa, genero ikuspegia datuak jasotzean, kontratazioetan klausulak sartzea, diru-laguntzak eta bestelako izapide publikoak, eta parekidetasuna errespetatzea erabakitzeko zein parte hartzeko organoetan.

Zehazki, aztertutako elementuak honako hauexek dira:

**LEGETIK ERATORRITAKO BETEBEHARRAK**

- KONPROMISO POLITIKOA: BERDINTASUN UNITATEA, AURREKONTUA, PLANA ETA EBALUAKETA
- BERDINTASUNA KOMUNIKAZIOAN
- ESTADISTIKETAN ZEIN IKERLANETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA
- BERDINTASUNERAKO GAITASUNA: PERTSONAL POLITIKOA ZEIN TEKNIKOA FORMATZEA
- KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA: BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA INDARTZEA
- KONTRATUETAN, DIRULAGUNTZETAN ZEIN HITZARMENETAN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK SARTZEA
- ARAUDIAN ETA AURREKONTUETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA
- PLAN SEKTORIALETAN ZEIN ZEHARKAKOETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA
- PAREKIDETASUNA ENPLEGU PUBLIKORAKO SARBIDEAN
- PAREKIDETASUNA ERANTZUKIZUN POLITIKOAREN POSTUETAN

## 4.1 KONPROMISO POLITIKOA: BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOAK, BERDINTASUNERAKO POLITIKEN GARAPENERAKO AURREKONTUA, ETA PLANIFIKAZIOA ZEIN EBALUAZIOA

Planak ezarri ahal izateko eta 4/2005 Legea betetzeko, Berdintasun Zerbitzurako pertsona bat kontratatzea beharrezkoa bazen ere, 2016 amaiera arte ekintza hau ez da bete.

Planen ezarpenaren lehenengo bi urteetan Berdintasunerako Politikak Kultura Teknikariek bultzatuak izan dira. Teknikari hauen lana egitearekin (bizitza kulturala eta kirola dinamizatzearekin, hirugarren adinekoak artatzearekin), ez zen posible Berdintasunerako neurrien kudeaketa zein ezarpena sistematizatzea.

2016 amaieran, Arabako Foru Aldundiak emandako diru-laguntza baten bidez, **Berdintasun Zerbitzuan teknikari bat lanean hasi zen.** 2017an aldaketa bat egin ostean, Berdintasun Teknikari baten kontratazio jarraia eta operatiboa gauzatu zen: jardunaldi osoarekin eta Gorbeialdea osorako. Alderdi hau baloratu dutenek biziki onuragarria dela diote, eta elkarrizketatutako pertsona baten esanetan: ***"Planek arduraldi osoa behar zuten ezarri ahal izatekotan, ikusi dugun aldaketa oso nabarmena izan da".***

Zerbitzu hau jardunaldi osorako kontratatzeak planak ezartzeko aurrerapen kualitatibo zein kuantitatiboa izan da: Berdintasunerako Politikak urteko plangintzarekin kudeaketa sistematikoa eta segimendurako memoriak sustatu; kuadrillen artean ezagutza elkartrukatzea eta koordinaziorako neurriak ezarri; eta emakumeen elkarteen mugimenduarekin harreman sare egonkorrak eratu ditu.

Horretaz gain, baliabide honek **Berdintasunerako baliabideak sortzeko eragin biderkatzailea du**: erkidego edo probintzia mailan programak ezartzea erraztu baitu, eta Arabako Foru Aldundira eta Emakundera diru-laguntzak eskatzeagatik baliabide ekonomikoak areagotu baitu; gainera, kuadrillako elkarteek ere diru-laguntzak eskatzeko elkarlanean dago.

Udalerri guztietako Pertsonal politikoak Berdintasun Teknikariaren finkapenaren eragina aipatu du, eta Teknikaria izango ez balitz, hau esan du: ***"Plana ezartzea pentsaezina izango zen".*** Izan ere, alkate eta zinegotzi batzuek Teknikariaren lanpostua egonkorragoa izatea nahi dute.

Lan guzti hau Berdintasun kontuetan orokorrean helburuetarako **aurrekontuen bilakaeran** islatzen da. Horrela, udalerri bakoitzak eta kuadrillak berak dauzkaten baliabide ekonomikoak hurrengo grafikoan erakusten da:




*Grafikoa 19: Berdintasunerako lanei dagokien aurrekontuaren bilakaera azken urteotan: Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia udalerrietan. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

2015etik sei udalerrietan **aurrekontuen areagotze konstantea urtero** ikusten da, Aramaion izan ezik, non bere aurrekontua behera joan zen 2016an. Arratzua-Ubarrundian aurrekontu-sail hau 2017tik gorantz joan zen, 2016an ezer ez zegoen bitartean. 2015an grafikoan agertzen den gorakada, Legutiori dagokio, Berdintasun Plana egiteko dirua barne hartuta baitago. Aipatzekoa da, orokorrean, berdintasunerako aurrekontuak gero eta handiagoak direla; eta egoera honek islatzen du Gorbeialdea berdintasunari gero eta garrantzia handiago ematen ari zaiola. Aldi berean, horrek ere, ematen ari den aldaketa soziala islatzen du.

**Gorbeialdeko Kuadrillak duen aurrekontuari dagokionez**, grafikoan ikus daitekeen bezala, urte guztietan zehar zerokoa izan da.

Kuadrilla, entitate administratibo moduan, udalerrien diru-laguntzez eta beste sail batzuez hornitzen da. Gorbeialdeko herritarrengan eragina sakona izango duten proiektuak bultzatzekotan aurrekontu diru-hornidura egonkorra nahi duela adierazi du Pertsonal Politikoak. Izan ere, diru-laguntzak eskuratzeko egungo egoera oztopotzat jotzen da programazio erraza eta optimizatua egitekotan, kuadrillara jarduerarik erakargarrienak zein eraginkorrenak ekartzean baita.

Beste aldetik, **bere Berdintasun Plana betetzeko udalerri bakoitzak daukan aurrekontuaren azterketa** oso interesgarria da.

Datuek erakusten dute aurrekontuak 3.000 eta 6.000 euro bitartekoak direla: Legutio Berdintasunerako kontuei diru gehien zuzentzen diena da, eta Zigoitia bigarrena.




*Grafikoa 20 Udalerri bakoitzerako aurrekontua bere Berdintasun Plana egitearren lehenengo urtean, eurotan. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

Plan bakoitzerako aurrekontuaren eta ekintzen kopuruaren artean erlazioa egiten badugu, **ekintza bakoitzerako diru ratioa daukagu, zeinak planaren bideragarritasuna alderatzeko aukera ematen duen, eta ondorioz, plana betetzeko aukera.**

Urteko diruaren eta programatutako ekintzen kopuruaren arteko ratioaren bidez, ikus dezakegu Zigoitiak 156,25 euro urteko zuzentzen duela; atzetik, Legutio dator, 125 euro ekintzako; eta Zuia, 100 euro ekintzako. Azkenik, ekintzak betetzeko urteko gutxien zuzentzen duen udala Aramaiokoa da, 38,83 eurorekin ekintzako.




*Grafikoa 21 Urteko aurrekontua jarduera bakoitzerako udalerri bakoitzean, eurotan. Iturria: egileek egina dauden datuen arabera.*

Datu hauek kuadrillako planak ezartzeko eta betetzeko arrakasta aukeren ideia dakargute:

- Ekintza gehien dauzkan udalerria, Aramaiok bigarren aurrekontu baxuena, eta ekintza bakoitzeko aurrekontu-ratio txikiena dauka. Beraz, Aramaiokoa asmo handiko plana da baina aurrekontu babesa eskasarekin.
- Legutiok aurrekontu absoluturik handiena dauka, eta ekintza gehien duten bigarrena da, Aramaioko Planaren ekintzen kopuruaren erdiarekin: orekatuena dirudi.
- Zigoitiak ekintzako ratiorik handiena dauka, baina ekintza gutxien duten bigarrena da. Gainera, bakarrik zazpi helburu planteatu ditu (lau planetatik kopuru baxuena).
- Zuiak aurrekontu baxuena eta ekintza gutxien daukana da, udalerririk jendetsuena bada ere. Hau dela eta, bere plangintzaren irismena zein aurrekontua berrikus litezke, Berdintasunean aurrerapen handiago lortzekotan.

Herritarren iritzia ezagutzeko, Gorbeialdean biztanleak galdeketa betetzera gonbidatuak izan dira. Honetan, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako jardun-arlo ezberdinetan egindako aurrerapena 1etik 5era baloratzea eskatu zien. Horrela, zein neurritan erabiltzen dituen udalak baliabide ekonomiko nahikoak galderari Gorbeialdekoen erantzuna honako hauxe da: nahikoa, %36a; egokia, %19a; oso egokia, %31a; eta eskasa, %19a; oso eskasa %31a. Beraz, inkestatutakoen %88ak dio aurrekontua, gutxienez, nahikoa dela. Halaber, aipatzekoa da herritarren ia heren batek oso egokia dela deritzola.

## 4.2 HEZKUNTZAREN ERABILERA EZ SEXISTA (INKLUSIBOA) KOMUNIKAZIOAN

4/2005 Legeak irudien eta hizkuntzaren erabilera ez sexista egitea derrigorrezkoa dela ezarri zuen.

2017an Berdintasun Teknikariak kontratatu zenetik, Legearen 18. artikulua betetzen joan da, Emakundek egindako gidak e-mailen bidez bidaliz: bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Horretaz gain, udaleko beste sailetako langileek teknikariari kontsultak egin dizkiete.

Era berean, udalerrietako zein kuadrillako webguneetako edukiak berrikusiak dira. Arlo honetan, erabilera ez sexistaz gain, Berdintasun kontuetan egindako lanak ezagutzera ematea sustatzeari oinarrizkoa dela deritzo. Hau dela eta, webguneetan Berdintasunerako atal bat sortu da paperezko formatuan. Aldi berean, aldizkarien eta udal buletinen eduki batzuek berrikusi dira, eta Gorbeialdeko Berdintasunari dagokio egoera jakinarazteko artikuluak sartu dira.

Gainera, ehun sozialean integratu da, wasap talde bat sortu baitu: elkarteei eta eragile sozialei ezartzen diren neurriez informatzeko eta ordutegiei zein proposamenei dagokie feedback jarraitua eskuratzeko.

Ondoriozta dezakegu, bakarrik urte bat eta erdian esku-hartze hauek guztiek hobekuntza sakonak sortu dituzte: udal langile batzuek aipatu dute kartelak, liburuxkak, iragarkiak eta bestelako komunikaziorako elementuak egiteko orduan, hizkuntzaren, irudien zein mezuen erabilera inklusiboa egin dutela.

Hala eta guztiz ere, adierazle objektibo batzuek erakusten dute oraindik arlo honetan aurreratzen jarraitu behar dela.

Kuadrillak zein sei udalerriek komunikazioan zaindu behar duten alderdi bat Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAOn) egiten diren iragarki ofizialak dira, hau Berdintasunerako Legearen 18. artikuluaren betetze-gradua ebaluatzeko tresna baita. Horrela, 2010etik 2018ra ALHAOn egindako iragarkiak aztertu dira.

Denboraldi horretan zehar 33 iragarki egin dira: bata kuadrillak egina, eta gainontzekoak, Gorbeialdeko sei udalerriek eginak. Iragarki horietatik, erdia baino gutxiago inklusiboak dira: 33etatik 15ak (%45,4a).

Zuia da argitalpen gehien daukana: zortzi. Horietatik, seik hizkuntzaren erabilera inklusiboa erabiltzen zuten (%75ek). Hurrengoa Legutio da, guztira zazpi iragarkirekin, baina bi inklusiborekin (%28,6rekin). Urkabustaizek bost argitaratu ditu, non hizkuntza inklusiboa erabiltzen zen,

batean izan ezik (%80a). Era berean, Zigoitiari dagokionez, bost argitalpenen hiru inklusiboak dira (%60a).

Aramaioko eta Arratzua-Ubarrundiako udalek argitaratutako iragarkietan ez da hizkuntza inklusiboa erabili.




*Grafikoa 22: Gorbeialdeko Kuadrillak zein bere sei udalerriek ALHAOn egindako argitalpenetan plazaratutako hezkuntzaren erabilera inklusiboaren azterketa 2010etik 2018ra bitartean. Iturria; egileek egina ALHAOren arabera.*

Beraz, ondorioztа dezakegu udalerrietan eta kuadrillan egiten den hizkuntzaren erabilera ez sexista komunikazio ofizialean lantzen jarraitu behar dela, eta pertsonal politikoak zein teknikoak legea egoki betetzea beharrezkoa dela barneratu behar dutela.

## 4.3 ESTATISTIKETAN ZEIN IKERLANETAN GENERO IKUSPUNTUA SARTZEA

Udal zein kuadrillako kudeaketan, sexuaren araberako datuak jasotzea, aztertzea eta interpretatzea behar garrantzitsuenetariko bat da, bai zerbitzuetan, bai jarduaeretan egiten diren erabileran zein haietara sarbidean, eta plangintzan.

Pertsonal teknikoari egindako elkarrizketetan datuak sexuaren arabera jasotzen edo aztertzen ez direla egiaztatu da. Horrela, Legutioko Alkatetzarako eskaeretan zein Zigoitiko jarduera kulturaletarako inskripzioetan sexu aldagaia sartu da. Gainontzeko Teknikari soziokulturalek izenen arabera sexuen kopurua lortu ditzaketela azaldu dute. Hala ere, "irtenbide" hau, fidagarria ez izateaz gain, sexu-genero sistema ezabatzeko Berdintasunerako Politikekin bat ez dator.

Jasota informazioa hurrengo iturrietatik lortu da:

- Idazkaritzak
- Kultura eta kirol arloa
- Sustapen ekonomikoa eta enplegurako
- Hirigintza arloa
- Ingurumena arloa
- Gizarte zerbitzuen arloak datuak sexuaren arabera jasotzen ditu formularioetan: bai eskaeretan, bai egun-zentroetan. Hala ere, datu horien azterketarik ez du egiten, datuak Foru Aldundira eta Gizarte Ongizaterako Foru Erankundera bidaltzen direla eta haiek azterketa egiten dutela suposatzen baita.

Informazio honengatik guztiagatik, sexuaren arabera bereiztu ahal izan diren informazio zerrendak bidali dituen arlo bakarra kultura arloa da. Hurrengo grafikoak 2017 baino lehenago teknikari soziokulturalek jasotako datu batzuk erakusten ditu (zeintzuk geroago bereiztu dira).




*Grafikoa 23: Aramaioko, Zigotiko eta Zuiako udalek antolatutako elkarte kulturaletan eta kirol jardueretan parte hartu duten emakumeen eta gizonen ehunekoa. 2017-2018. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

2017 baino lehen egindako Berdintasunaren jardueretan partaidetzari dagokionez, sexuaren arabera jaso ezin diren datuak hemen dauzkagu.




*Grafikoa 24: Berdintasun jardueretan partaideen kopurua. 2015ean eta 2016an. Iturria: egileek egina kuadrillako datuen arabera.*

Datuak deigarriak dira emakumeen, haurren eta hirugarren adineko eskualdeko urteko topaketak, orri-markatzaileen eta *Kulturgura* lehiaketak barne hartzen baitituzte, eta urtero, 3.000 pertsona baino gehiagok parte hartzen baitute.

Beraz, datu hau kontuan hartu ahal bada ere, Berdintasunerako politiketan zein ekintza zehatzetan benetako partaidetzari eta interesari buruzko informazio handirik ez du eskaintzen.

2017. urtea datuak jasotzean inflexio puntua izan da, eta ondorioz, Berdintasunerako jardueretan partaidetza aztertzean, eta lehenengoz, sexuaren arabera jasotako datuak daude. Honek Berdintasunean parte hartzearen bilakaera aztertzen lagunduko du.

Oraingoz, Kuadrillak zein udalerriek proposatutako jardueretan parte hartzen duten pertsona gehienak emakumeak direla ikus dezakegu; zehazki, 330 emakume eta 40 gizon.




*Grafikoa 25: Berdintasunerako jardueretan partaideen kopurua, sexuaren arabera. 2017an. Iturria: egileek egina udal zein kuadrillako datuen arabera.*

Jardueretan parte hartzean jardun-ardatzaren arabera sakontzen badugu, bertaratze gehiena II. ardatzari edo Ahalduntzeari buruzko jardueretan dago: zineforumean, amodio erromantikoari eta emakumeen partaidetza soziopolitikoari buruzko hitzaldietan, besteak beste. Horrela, 215 emakume eta 28 gizon bertaratu ziren.

Partaide gehien duen bigarren ardatza, IV. ardatzari edo Emakumeenganako indarkeria ezabatzekoari dagokio. Honek autodefentsa feminista tailerrak, Irantzu Varelaren indarkeria matxistari buruzko mahai-ingurua eta Gorbeialdean Indarkeria matxistari buruzko Diagnostikoa barne hartzen ditu. Autodefentsa feminista tailerrak bakarrik emakumeei eta neskei zuzenduta daudenez, artzan honen jardueretan gizonen partaidetza txikiagoa da: 95 emakume eta 6 gizon.




*Grafikoa 26: Berdintasunerako jardueretan partaideen kopurua, sexuaren eta ardatzaren arabera. 2017an. Iturria: egileek egina udal zein kuadrillako datuen arabera.*

I. ardatzari edo Genero *Mainstreaming*ari buruzko jarduerei dagokionez, 20 emakumek eta 6 gizonek parte hartu zuten. Beste bi ardatzei begira, zifra hauek txikiagoak dira, ardatz hau denbora luzean zehar landu baita, eta emakumeen ahalduntzeari zein indarkeria matxista ezabatzeari protagonismo handiagoa eman baitzaie.

III. ardatzeko edo Erantzunkidetasun, kontziliazio eta zainketetako jardueretan partaideen kopurua zerokoa da bi zergatirengatik: alde batetik, 2017 baino lehenago zenbait jarduera egin ziren, baina ez daukagu partaidetza daturik; beste aldetik, lau udalerrietako Planetan ardatz honetan programatutako ekintza gutxi daudenez, ez ziren herritarrentzako jardueretan gauzatu, baizik eta administrazioan ordutegiak aldaketan. Beraz, kontziliazio ikuspuntutik erantzunkidetasunerantz ibilbidea eta eguneroko bizitzan zainketen arazoa sozializatzea zein eztabaidatzea egiteke geratu da.

## 4.4 BERDINTASUNERAKO GAITASUNA: PERTSONAL POLITIKOREN ZEIN TEKNIKOAREN FORMAKUNTZA

Pertsonal politikoa zein teknikoa berdintasunean formakuntzarako eta trebakuntzarako bidean aurrerapen batzuk izan dira, Arabako Foru Aldundiaren eta EUDELen eraginez: bai *Berdinbidean* programaren bidez, bai Foru Aldundiaren formakuntzarako ekintzen bidez; non "*Berdinbidean*" udalerri txikientzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun kontuetan Aholkularitza Zerbitzua den.

Gorbeialdean *Berdinbidean*-en formakuntza saioak 2015-2016 aldian hasi ziren. 2015eko azarotik 2016 amaiera arte, kuadrillarekiko komunikazioak jarraituak ziren. Halaber, udalerri gehienekin ere horrelakoak izan ziren, Arratzua-Ubarrundiarekin eta Urkabustaizekin izan ezik. 2017tik aurrera, Berdinbidean-en funtzioa Berdintasun Teknikarien *mainstreaming*en koordinazioan ardaztu zen, eta Arabako Foru Aldundiak formakuntzaren dinamizazioaz arduratu zen.

2015etik aurrera Gorbeialdean egindako bilerak zein formazioak honako hauexek dira:

| BILERAREN DATA | TOKIA | PARTAIDEEN KOPURUA | PERTSONAL PARTAIDEA | FORMAZIOA ESKAINI DUEN ERAKUNDEA |
|---|---|---|---|---|
| 2015.12.15 | Zigoitia | 3 | Teknikoa | Berdinbidean |
| 2015.12.22 | Aramaio | 4 | Politikoa | Berdinbidean |
| 2016.02 | Kuadrilla | | Politikoa | Berdinbidean |
| 2016.04.21 | Zuia | 11 | | Berdinbidean |
| 2016.05.18 | Zigoitia | 8 | Politikoa eta teknikoa | Berdinbidean |
| 2016.05.31 | Legutio | 2 | Politikoa eta teknikoa | Berdinbidean |
| 2016.10.18 | Zuia | 10 emakume eta 6 gizon | Politikoa eta teknikoa | Berdinbidean |
| 2017.02.20-22 eta 2017.11.15 | Kuadrilla guztiak | 9 emakume | Berdintasun Teknikariak | DFA |
| 2017.03.23-24 | Kuadrilla eta udalerriak | 6 emakume eta 5 gizon | Politikoa eta teknikoa | DFA |
| 2017.07.17 | Kuadrilla eta udalerriak | 6 emakume | Emakume hautetsiak: zinegotziak eta alkateak | Virginia Woolf Basqueskola |
| 2017.09.22 | Zuia | 5 emakume eta 3 gizon | Hezkuntza arloa | Beldur barik |

*Taula 4: Berdintasunerako Formakuntza. Iturria: egileek egina kuadrillako datuen arabera.*

Urkabustaizen komunikazio bideak eratzea zailagoa izan da.

Formazio eta aurkezpen hauetara joandako emakumeen eta gizonen proportzioak erakusten du gehiena pertsonal teknikoa zela, eta gehienak emakumeak ziren. Horretaz gain, Virginia Woolf Basque eskolak eskaintzen duen emakume hautetsientzako, hau da, emakume zinegotzientzako zein emakume alkateentzako formazio espezifikoa gehitu behar da, zeina Arratzua-Ubarrundian 2017an egin zen.




*Grafikoa 27: Genero ikuspuntua sartzeko formazio saioetara eta aurkezpenetara joan zen pertsonal teknikoa eta politikoa, sexuaren araberako kopurua, 2017an. Iturria: egileek egina "Berdinbidean" programaren eta udal datuen arabera.*

Amaitzeko, pertsonal teknikoa zein politikoa Berdintasunean trebatzea oinarrizko kontua da Berdintasunerako bidean aurreratzekotan, sentsibilizazioak zein kontzientzia harrarazteak, Berdintasun Planak era hobe ezinean egitea, gauzatzea, ezartzea eta garatzea sustatzen baitu.

Gorbeialdean, *Berdinbidean*-ek eskainitako formazioak zein sentsibilizazioak orain arte lehenengo aurrerapausoa da, orokorra eta etena izanda ere. Formakuntza estrategikoki antolatzea beharrezkoa da, genero ikuspegia sartzean eta 4/2005 Legea betetzean, autonomia hartzekotan. Horretarako, helburu mailakatuen planteamenduaren beharra dago, hau da, oinarrizko materialetik zehatzagora formatzea, edo arloetatik egitea. Halaber, pertsonala ez nekatzekotan baina ikusitako edukiak ez ahaztekotan, formazioak aldizka garatzea onuragarria izango zen. Gainera, antolamendu hau Gorbeialdeko Politiken genero ikuspuntuaren azterketan oinarritu behar da.

## 4.5 KOORDINAZIOA ETA KANKIDETZA: BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA INDARTZEA

Berdintasunerako politiken koordinazioari eta segimenduari dagokienez, 2017ko abenduan Gorbeialdeako Berdintasunerako Politiken Batzorde Politikoa sortu zen, Berdintasun alkate eta zinegotzi guztiek zein kuadrillako presidentziak osatua. Lehenengo bilerara alkate guztiak joan ziren, Aramaiokoa izan ezik; honi adostutako akordioak jakinarazi zaizkio, egiaztatu ahal izatekotan. Horrela, helburu nagusian bete zen: Berdintasun zerbitzuaren , kuadrillaren eta udalerrien arteko **koordinazio politikoaren mahai bat sortzea**, zeina urtean behin bilduko den ohiko bileran, eta ohiz kanpoko bileran, behar beste. Bere funtzioak honako hauexek dira:




Ebaluazio prozesu hau egitean, **pertsonal teknikoarekin koordinazio mahaiak** ere sortu dira: alde batetik, Teknika Soziokulturalekin lantalde baten bidez; eta beste aldetik, kuadrillako pertsonal teknikoarekin formakuntza ekintza espazioa sortuz. Egitura honi bi planteamendurekin ekin zaio kultura teknikariek tokiko funtzioak eta berdintasun kontuetan ezagutze gehiago dituelako; eta gainontzeko pertsonal teknikoak berdintasunerako politiketan kontaktu gutxiago izan duelako eta lan egiteko kuadrilla mailako joera duelako, gizarte langileek izan ezik. Beraz,

bi profil ezberdin daude, eta hau dela eta, Plan berria egitekotan bi egitura ezberdin sortzea ere gomendagarria da.

Esperientzia piloturen emaitzek argi eta garbi egiaztatu dute ekimen hau finkatu behar dela.

Teknikari soziokulturalek osatutako taldeak aldizkako topaketa esparrua formalizatzea oinarrizkoa dela dio: beste udalerrietan egingo diren jarduerak ezagutzeko eta koordinatzeko, sinergia positiboak sustatzeko, eta agendak koordinatzeko; esaterako, baliabideak partekatzeko edo jarduera kulturalak zabaltzeko. Udalerri bakoitzeko kultura proiektu berezietan genero ikuspuntua integratzeak Berdintasunerako politiken benetako zeharkakotasuna erraztuko zuen eta ekintza eraldaketa izango zen. Horretarako, topaketa esparruak erosoak eta sistematikoak izan behar dira, eguneroko errutinarekin lanaren zati hau baztertzen saihestekotan.

Beste aldetik, pertsonal teknikoak ekimen honi oso onuragarria deritzo, beste arloko lana eta ezaugarriak ezagutzea positiboa da. Honen ondorioz, Berdintasun Zerbitzuak garatutako egitura honi jarraipena emateko eskatu da.

Herritarren edo elkarteekin koordinazio egiturei dagokienez, udal mailan, Zigoitian biztanleei zuzendutako batzorde informatibo bat dago. Zuian, pertsonal politikoak, Berdintasun teknikariak eta emakumeen elkarteek zein mugimendu feministak osatutako beste batzorde bat dago, non urtean bitan biltzen diren. Aramaioko alkatetzak Zuiakoa bezalako Berdintasun batzorde bat sortzea proposatu du, eta prozesuan dago.

Kuadrillan mailan, Gorbeialdeko Berdintasunerako Foroa sortu da, batez beste 13 emakumek eta 2 gizonek osatua, zeintzuek emakumeen elkarteak eta emakumeak, pertsonal mailan, ordezkatzen dituzten. Bi gizonetatik, batek maskulinitate berriak lantzen dituen talde bat ordezkatzen du.

Esperientzia hau Berdintasunerako Arabako Foru Batzordean aurkeztu da, non Berdintasun teknikariak parte hartzen duen eta kuadrillako elkarte guztiak parte hartzera gonbidatzen diren.

Erakunde arteko mailan, Arabako Berdintasun Teknikarien Sarean parte hartzen da, zeina Berdintasunerako politikak kuadrillen artean zein lurraldeko koordinaziorako egituretan koordinatzeko biltzen den: "Berdinbidean", *mainstreaming* kontuetan aholkua eskaintzen duena, eta LAIAeskola, ahalduntzean. Gainera, Beldur Barik programaren bileran ere parte hartzen da; eta Zigoitia eta Zuia Berdintasunerako Udalerrien Sarean, Berdinbidean-en, sartu dira.

Azkenik, Indarkeria matxista desagerrarazteko esparruan, Batzorde Politikoa sortu da eta Teknikoa sortu beharra dago. (IV. ardatzean deskribatuko da). Beraz, jardun-lerro honetan biziki aurreratu da, eta erronka nagusiak pertsonal teknikoaren koordinazio eremuan daude: bai kuadrillako langileak, bai udal langileak, zeharkakotasuna, egitura eraginkor bat behar baitu. Horretaz gain, Berdintasunerako Foroa areagotzea eta finkatzea (Ahalduntze ardatzean deskribatuko da).

## 4.6 KONTRATUETAN, DIRULAGUNTZETAN ZEIN HITZARMENETAN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK SARTZEA

Kontratazioetan eta diru-laguntzetan genero ikuspegia sartzeari dagokionez, bederatzi ekintza programatu dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala. Adibidez, Zigoitiko ludotekarako eta gizarte etxerako kontratazioetan klausulak sartu dira

Genero ikuspegia barne hartzen duten aukeratze-prozesurik ez badago ere, ikuspuntu hau integratzen duten zazpi dokumentu egin dira.

| | Aramaio | Arratzua | Legutio | Zuia | Urkabustaiz | Zigoitia | Kuadrilla | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Klausulak, kontratuak, diru-laguntzak, hitzarmenak eta plangintzak** | 1 | - | 1 | 2 | 1 | 3 | 1 | 9 |
| **Sexu aldagaia sartzea (dokumentuen kopurua)** | 1 | 2 | 1 | 1 | - | 2 | - | 7 |

*Taula 5: aukeratze-prozesuetan, diru-laguntzetan eta kontratuetan sartutako Berdintasunerako klausulen kopurua, 2017an. Iturria: kuadrillako informazioa.*

Lanean jarraitu behar bada ere, kuadrilla osoan zehar aurrerapen interesgarriak egiten ari direla ondorioztа dezakegu.

## 4.7 ARAUDIAN, AURREKONTUETAN ETA PLAN SEKTORIALETAN ZEIN ZEHARKAKOETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA

Aztertutako planetan atal hau sartuta dago, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20-22. artikuluek ezarritako aginduk betetzearren.

Udal jardueraren emaitzen eta sexuaren araberako datuak ia ez daudenez, eta daudenean aztertzen ez direnez, genero ikuspegitik aurrekontuen azterketa egitea ezinezkoa da. Udal arautegiaren genero inpaktua ebaluatzeko ekimenak ez dira sortu, ezta Berdintasunerako Ordenantza bat egitea ere.

Beste aldetik, genero ikuspegia daukan plan sektorialik edo zeharkako planik ez dago, baina Kultura Teknikarien Berdintasunean formakuntzak eta esperientziak kultura eta kirol jardueren plangintzan ikuspegi hau garatzen lagundu dute.

Berdintasunean Formakuntza eta aholkularitza areagotzea eta hedatzea beharrezkoa da.

## 4.8 PAREKIDETASUNA ENPLEGU PLUBLIKORAKO SARBIDEAN

4/2005 Legeak pertsonal funtzionarioaren osaeran parekidetasunaren irizpideak ezartzen ez baditu ere, 20. Artikuluak, emakumeak gutxienak diren Administrazio Publikoaren esparruetan emakumeen kopurua areagotzeko neurri bat jasotzen du. Horretarako, enplegu publikori dagokionez, sarbiderako, hornidurako eta sustapenerako hautatze-prozesuak arautzen dituzten arauek klausula hau barne hartu behar du:
*“Baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean" (20.4.a klausula).*

## 4.9 PAREKIDETASUNA ERATZUNKIZUN POLITIKOKO POSTUETAN

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, bere 23. artikuluan hurrengoa ezarri zuen: "*Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte*".

Botere esparruan parekidetasuna legezko agindua da, eta derrigor bete behar da, eta erabakitzeko egiturei dagokionez, emakumeen posizioan eragina dauka. Pasa den legealdian (2011-2015) eta oraingoan (2015-2019), sei udalerrietan dauden kargu politikoen banaketa honako hauxe da:

| 2015-2019 | Gizonak | Emakumeak | Gizonen %a | Emakumeen %a | Parekidea | Emakume alkatea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aramaio** | 7 | 2 | 77,78 | 22,22 | ez | bai |
| **Arratzua-Ubarrundia** | 4 | 3 | 57,14 | 42,86 | bai | bai |
| **Legutio** | 5 | 4 | 55,56 | 44,44 | bai | bai |
| **Urkabustaiz** | 5 | 4 | 55,56 | 44,44 | bai | bai |
| **Zigoitia** | 4 | 5 | 44,44 | 55,56 | bai | ez |
| **Zuia** | 7 | 4 | 63,64 | 36,36 | ez | ez |

*Taula 6: Ordezkaritza politikoaren banaketa sexuaren arabera, Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legution, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian. 2015-2019 legealdia. Iturria: egileek egina, Basqueskola eta udal webguneen informazioaren arabera.*

| 2011-2015 | Gizonak | Emakumeak | Gizonen %a | Emakumeen %a | Parekidea | Emakume alkatea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aramaio** | 5 | 4 | 55,56 | 44,44 | bai | ez |
| **Arratzua-Ubarrundia** | 3 | 4 | 42,86 | 57,14 | bai | ez |
| **Legutio** | 6 | 3 | 66,67 | 33,33 | ez | ez |
| **Urkabustaiz** | 6 | 3 | 66,67 | 33,33 | ez | ez |
| **Zigoitia** | 6 | 3 | 66,67 | 33,33 | ez | ez |
| **Zuia** | 7 | 4 | 63,64 | 36,36 | ez | ez |

*Taula 7: Ordezkaritza politikoaren banaketa sexuaren arabera, Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legution, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian. 2011-2015 legealdia. Iturria: egileek egina, Basqueskola eta udal webguneen informazioaren arabera.*

Aztertutako sei udalerrietatik, lau parekideak dira, hau da, gutxienez %40an, bi sexuen ordezkatuta daude: Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz eta Zigoitia. Hala ere, parekideak ez diren bietatik, batean, Zuian, parekidetasunetik oso gertu daude zifrak.

Aipatzekoa da sei udaletatik, lauetan emakume alkateak daudela. Horrela, Aramaion, osaera ez parekidea aurkitzen dugu, baina, gobernuaren burua emakumea da. Aurreko legealdia kontuan hartuta (2011), bilakaera ikus daiteke: Gorbiealdeko udal politikan gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute; EAEko gainontzeko udalerrietan gertatzen den bezala.

### *Kontzejuak*

Kontzejuak ordezkaritza entitateak dira, non, tradizioz, familiaren buruak karguaz arduratzen zen; eta ondorioz, gizonek kontzejuetan arduradunak ziren. Gorbeialdeko sei udalerrietan, 53 kontzeju daude. 2017ko udazkenean egin diren hauteskundeetan, "kontzejuko buru" izateko 41 emakume aurkeztu ziren (hautagaien %24a), eta horietatik zortzi emakume hautetsi ziren, hots, hautatuen %15a.

| | Kontzejuen kopurua | Gizon hautagaiak | Emakume hautagaiak | Hautagai guztiak | Gizon hautatuak | Emakume hautatuak | Hautatu guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aramaio** | 1 | 3 | 0 | 3 | 1 | 0 | 1 |
| **Arratzua-Ubarrundia** | 10 | 21 | 9 | 30 | 8 | 2 | 10 |
| **Legutio** | 5 | 14 | 6 | 20 | 5 | 0 | 5 |
| **Urkabustaiz** | 10 | 25 | 8 | 33 | 9 | 1 | 10 |
| **Zigoitia** | 16 | 38 | 10 | 48 | 12 | 4 | 16 |
| **Zuia** | 11 | 29 | 8 | 37 | 10 | 1 | 11 |
| **GUZTIRA** | **53** | **130** | **41** | **171** | **45** | **8** | **53** |

*Taula 8: Gorbeialdeko sei udalerrietako 53 kontzejuetan emakume hautagaiak zein hautatutako emakumeak, eta Kontzejuen kopurua. 2017ko Arabako Kontzejuetarako hauteskundeak. Iturria: Arabako Foru Aldundia.*

Aipatutako hauteskundeak, Arabako Jabekuntza Eskolaren, LAIAeskolaren jardueretan kokatu ziren, erakundeek kargu hauetan emakumeen presentzia sustatzeko erakundeen laguntza agerian jartzekotan. Ibili behar dugun ibilbidea luzea bada ere, kargu maskulinizatu horietan emakumeen kopurua igoera antzematea oso interesgarria da. Izan ere, landa-eremuetako administraziorako botere esparruetan Berdintasunerantz aurreratzeko giltzarria da.

# 4.10 BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN MAINSTREMINGEAN ETA GOBERNU ONEAN ETA ZER EGIN DUGU?

Gorbeialdeko I. ardatza: Mainstreamingerako eta Gobernu onerako lau Berdintasun Planetan programatutako ekintzak honako hauexek dira:

| Aramaio | Legutio | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|
| Udaleku sail guztietan erabiltzen diren adierazle inkesta eta informazio bilketetan, sexu aldagaia ezartzeari buruzko lehen analisiak garatzea | Berdintasun Planerako udal aurrekontuetan diru-sail bat identifikatzea. | Berdintasun Planaren segimendurako eta ebaluaziorako koordinazio egutegia egitea. | Berdintasunerako konpromisoa zehaztea Udal mailan. |
| Sailean erabiltzen diren informe, inkesta, etekin adiearzleak, memoria eta sexu aldagaia pixkanaka ezartzen joatea. Horretarako sexua identifikatzen duen laukitxoa fitxa eta aplikatiboetan sartuz. | Berdintasun Planaren programa operatiboak urtero egitea. | Berdintasun Planaren urteko plangintza ebaluatzea. | Egindako diagnostikoa argitaratzea. |
| Sailak erabiltzen duen informazioaren trataera, bilketa eta difusioa egieta; genero interesak eta behar praktikoak atzemateko. | Berdintasun Plana baliabide profesionalez hornitzea (Berdintasun Teknikaria Berdintasun Plana bultzatzeko eta garatzeko). | Berdintasun Planak eguneratzea eta zein ekintza kontzejuetan garatu daitezkeen baloratzea. | Berdintasun Planaren onespena. |
| Pixkanaka sailerako interesgarriak izan daitezkeen aldagai eta adierazleak identifikatzea, (denboraren erabilera, familiaren ardurak…) I. Planeko helburuak burutu ahal izateko. | EAEko Berdintasun Erakundeei Legutioko I. Berdintasun Planaren egiteari eta onespenari buruz informatzea. | Arabako Berdinbidean Zerbitzuen jardueretan parte hartzea. | Berdintasun Planaren ekintzak gauzatzeko, aurrekontua diru-sail zehatzaz hornitzea. |
| Aldagai hauek informazioa jasotzeko fitxetan txertatzen joatea. | Berdintasun Batzorde Misto bat sortzea sustatzea Batzar Administratiboen eta Agente Sozialen ordezkaritzarekin. | Udalek eta bestelako zentroek sustatutako jarduera guztietan sexuaren arabera datuak jasotzea azpimarratzea. | Berdintasun Batzordea eratzea eta finkatzea. |
| Arloan genero ikuspegia txertatzeko dauden trebakuntza beharrak identifikatu eta honen berri parekidetasun batzordeari eman. | Udal kudeaketan genero ikuspegia sartzeko gidak egitea. | Berdintasun arloan iradokizun buzoi bat kudeatzea. | Berdintasunerako jardunaldiei eta mintegiei buruz informatzea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Identifikatu diren formazio beharren arabera formazio hauetan parte hartzeko konpromisoa hartu. | Udalak sustatutako ikerlan guztietan genero ikuspegia txertatzea bermatzea. | Emakunderen Urteko Foroan parte hartzea. | Arabako Berdinbidean programarekin harremanetan jartzea, antolatzen diren jardueretan parte hartzeko aukera aztertzeko. |
| Formazio honen ebaluazio egin eta etorkizunari begira formazio beharrak identifikatu. | Udal datuak sexuaren arabera jasotzea. | Kultura, aisialdi eta kirol jardueretan genero ikuspegia sartzeko proposatzea. | Udalak antolatzeko edo babestutako jarduera guztietan partaidetza datuak sexuaren arabera jasotzea. |
| Udaleko idazkaria genero eraginaren inguruko oinarrizko formazio jasotzea. | Zeharkakotasuna kontuan hartzea, hau da, sexuaren araberako ezberdintasunak ez ezik, desgaitasuna, jatorria, erlijioa, adina eta bestelakoak ere. | Realizar concurso para elegir un lema (a través del servicio de biblioteca), del ámbito de la igualdad, para visibilizar en todas las comunicaciones del Ayuntamiento | Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista Udalek argitaratzen dituen ekintza guztietan. |
| Udaleko arlo eta zerbitzu ezberdinen arean berdintasunaren inguruan dagoen inforazioaren sistematizazioaren inguruko baliabideen berri eman. | Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako 4/2005 legearen, otsailaren 18koaren, 17. artikuluak ezartzen duenez, Udaleko langileei zein kargu politikoei zuzendutako Berdintasunaren inguruko formakuntza ematea. | Erakundeei zein herritarrei udalerriko Berdintasun Planari buruz informatzea. | Webgunean hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista. |
| Udaleko oposaketetako gai-zerrendetan sistematikoki berdintasunaren lege eta gaiaren inguruko ikasgaiak sartzea. | Garantizar que todas las personas puedan realizar formación mediante diferentes métodos: formación online, servicios de conciliación, ajustes de horarios, etc. | Dauden foroak aprobetxatzea (Agend Lokal 21, Euskararen erabileraren Normalizazioarako Planaren Segimendurako Taldea eta Kultura Batzordea) ekintzak gauzatu ahal izateko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak finkatzeko. | Hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexista egiteko arauen hedatzea. |
| Kanpora begira egiten diren zerbitzuen kontratazioetan I. Berdintasun plan honen helburuekin bat datozenen kontratazioak kontuan izatea (adibidez, hezkidetza oinarri duten aisialdi zerbitzuen kontratazioa, azpikontratatu beharreko | Udal araudian genero ikuspegitik. | Urteko antzerki eskaintzean berdintasunari buruzko antzerki lan bat barne hartzea. | Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| enpresari berdintasun plana izatea baloratzea). | | | |
| Diru-laguntzei begira, puntuatuko duen irizpide bezala finkatu, elkarteek proposatzen dituzten ekintzatan, berdintasun planean jasotzen diren helburuei erantzuna ematea. | Behar bada, Aldaketak egitea. | Komunikazioaren erabilera inklusiboa egitea: bai idatzizkoa, bai ahozkoa. | Genero ikuspegia txertatzeko prozedurak. |
| Parekidetasun arloari begira baliabideak eta egiturak finkatu. | Enplegu publikoan sartzeko eta promoziorako aukeratze prozesuetan Berdintasunari buruzko edukiak barne hartzea. | Webgunean hizkuntzaren zein irudien erabilera inklusiboarekin mantentzea. | |
| Batzorde informatiboetatik pertsona bat izendatzea hizketakide gisara, parekidetasun batzordearekin jarraipena duten koordinazio bilerak izateko. | Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak barne hartzea. | Prozedura administratibo arrunten gidan hezkuntzaren erabilera ez sexista sartzea. | |
| Berdintasuna lortze aldera udalaz-gaineko erakundeekin komunikazio-kanal irekiak mantendu eta hauetan parte hartu (AFA, Emakunde, Berdinbidean…). | Berdintasunaren aldeko komunikazio estiloaren eskuliburua izatea. | Webguneko Berdintasun atala maiz hornitzea. | |
| Berdintasun teknikariaren funtzioak beteko duen teknikaria izendatu, berdintasun gaietan trebatu eta berdintasun planari bere lan ordutegiaren zenbateko dedikazio zuzenduko dion zehaztu. | Webgunea berrikustea genero ikuspegitik eta Berdintasunerako atal bat sartzea. | Pertsonal politikoak eta teknikoak generoko klausula sozialei buruzko formazio bat egitea. | |
| Berdintasun planaren hedatzea: udaletxeko web orrian, berdintasun planaren aurkezpen publikoa, udaleko langileen artean aleak banatu, udal zerbitzuen artean, elkarteen artean… | Epaimahaietan zein komisioetan emakumeen eta gizonen ordezkatze orekatua bermatzen jarraitzea. | Udalak ematen dituen diru-laguntzen oinarriak aztertzea. | |
| Berdintasun planaren inplementazioaren koordinazio eta jarraipena. | | Jarduera kulturaletarako zein kirol jardueretako diru-laguntzak emateko baloratze-irizpidetzat berdintasuna jotzea. | |
| Planak irauten duen urte bakoitzean zein ekintza eramango diren Aurrera identifikatu eta hauen | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| onarpenerako Plenora eraman. | | | |
| Ekintza hauetarako behar diren baliabideak identifikatu (ekonomikoak, ordu dedikazioa). | | | |
| Planaren inplementazio egokia bermatzeko jarraipena eta ebaluazioa egin. | | | |
| Ebaluazio honen arabera neurri zuzentzaileak finkatu. | | | |
| Genero ikuspegia kontuan hartzen duten programa eta ekintzen planifikazio eta gauzatzea. | | | |
| Kanpoko aholkularitza eskatu (barne baliabideak edo bailara milakoak ez daudenean) genero ikuspegia txertatze aldera, arlo ezberdineko plan, programa edo ekintzen memorietan, onartutzat edo behin behinekoak izan aurretik ahal bada. | | | |
| Egindako ekarpen edo iradokizunak jaso. | | | |
| Behin-behineko dokumentuak idatzi. | | | |
| Euskara eta gaztelera hizkuntzaren erabilera ez sexistaren inguruko gida ezberdinen difusioa udal arloen artean. | | | |
| Hizkuntza, irudi edo eduki sexisten erabilera apurteko trebakuntza beharra identifikatu. | | | |
| Arloan kanpora begira sortzen diren dokumentua berrikusi (hizkuntza, eduki edo irudi sexistak) ezabatu ahal izateko. | | | |
| Elkarteei formazio edo aholkularitza eskaini hizkuntza era irudien erabilera ez sexista ekidite aldera. | | | |
| Aramaioko Udalaren Aurrekontuetan Berdintasunerako diru-sail | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| berezi baten aldeko konpromisoa gauzatzea.<br><br>IVAP-etik edota bestelako erakundeetatik genero ikuspegia kontua hartzen duten aurrekontuen inguruko hitzaldi dota formazioetan parte hartu. | | | |
| Parekidetasun irizpidea ezartzea, udaleko erabaki-organoetan eta batzordeetan, emakume eta gizonezkoen kopurua parekidea izateko. | | | |
| Udaletik martxan jartzen diren lan postu publikoen aukeraketa, promozio eta hornidura prozesuetan, erabakitze mahai parekidea izatea. | | | |
| Udalak sustatutako ekimenetan emakumeen eta emakume elkarteen parte hartzea bultzatu modu aktibo batean. | | | |
| Ekintzak eta estrategiak zehaztu emakumeen parte hartzea bultzatzen duten gureak sortzeko, adin ezberdinetakoen eta lana, ideologia eta kultura aniztasuna bilatuz. | | | |

*Morez, egindako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak; eta beltzez, egiteko prozesuan daudenak.*

Ikus daitekeen bezala, Aramaioko Berdintasun Planean eta ardatz honetarako, bai programatutako ekintzen kopururik handiena (36), bai egindakoena (16), bai egiteke geratzen direnena (20) aurkitzen dira. Atzetik, Legutio eta Zigoitia daude, 18 eta 19 hurrenez hurren; eta azkenik, Zuia, 12 ekintzarekin. Hala ere, horrela izanda ere, betetze-gradua ehunekoen bidez aztertzen baditugu, ordena alderantzikoa da: Aramaiorako %44,4a; Legutiorako %53a; Zigoitiarako %79a eta Zuiarako %92,3a.

Lau planetan, ardatz honetarako 86 ekintza planifikatu ziren, eta horietatik 33 ekintza egin dira; beraz, betetze-gradua orokorra %38,4koa zen.




*Grafikoa 28: I. Ardatza: Mainstreaminga eta gobernu onaren ekintzen betetzea. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

**Herritarren iritziari dagokionez**, egindako galdeketan 1etik 5era ebaluatzeko eskatu zien: **politika publiokoak diseinatzeko orduan, zein neurritan emakumeen iritzia kontuan hartzen da?** Jasotako erantzunek hurrengoa erakusten dute: %32ak uste du nahiko hartzen dela kontuan; %19ak, egoki; eta %7ak oso egoki. Aitzitik, %16ak dio eskas hartzen dela kontuan; eta %26ak, oso eskas. Beraz, gehienek, hau da, %58ek iritzi positiboa daukate, eta emakumeen iritzia, gutxienez, nahiko kontuan hartzen duela uste dute.

## 4.11 MAINSTREAMINGEAN ETA GOBERNU ONEAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Berdintasun Zerbitzua izatea: Berdintasun Teknikaria jardunaldi osorako kontratatua.
- Plangintza eta urteko segimendua: plan operatiboa eta 2017ko memoria.
- Aurrekontuen pixkanakako hazkundea
- Hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexistan aurrerapenak: erabilera ez sexistari buruzko gidak banaketa.
- Berdintasunerako Politiken komunikazioaren eta agerikotasunaren areagotzea: web atalak, wasapa, facebooka, liburuxkak eta kartelak.
- Pertsonal politikoari zein teknikoari formakuntza ematea Berdinbideanen bidez eta AFAren bidez.
- Berdintasunerako klausulak diru-laguntzetan eta kontratazioetan. Klausulak sistematizatzen hastea.
- Kuadrillako segimendurako eta koodinzioarako egitura politikoa sortzea.
- Erakunde arteko koordinazioaren sistematizazioa. BB, Arabako Berdintasun Teknikarien Sarea, eta Berdinsarean sartzea.

### IBILTZEKO BIDEA

- Aurrekontuak beharrei egokitzea.
- Pertsonal teknikoaren koordinaziorako egituraren finkatzea.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexistan sakontzea, pertsonal politikoaren zein teknikoaren autonomia eta deszentralizazioa lortzekotan.
- Genero ikuspegitik datuak jasotzea eta aztertzea.
- Pertsonal politikoaren zein teknikoaren trebakuntza sistematizatzea, prozesu bihurtzekotan.
- Parekidetasuna politika publiketan parte hartzean.
- Araudiaren zein aurrekontuen genero inpaktuaren ebaluzioak egitea
- Politika sektorialeetan genero ikuspegia integratzea.

# 5. II. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA

Bigarren ardatzean egindako lana zehazki aztertzekotan, ekintzak hiru ataletan banatu dira:

1. **Ahalduntze pertsonaleko laguntza: autoestimua, autozainketa eta genero kontzientzia hartzea:** hemen emakumeen ahalduntze pertsonalerako ekintzak jaso dira, baita sentsibilizazio eta informazio sozialerako lanak ere: Berdintasunean lantzeko beharra eta garrantziaren inguruan.

2. **Ahalduntze soziala eta politikoa:** atal honetan, kuadrillako jarduera politikoan emakumeek parte hartzea bultzatzeko ekintzak jaso dira: bai udal mailan, bai kontzeju mailan. Era berean, jarduera soziokomunitarioa sustatzeko ekintzak ere aztertu dira: emakumeen elkarteetan eta mugimendu feministan partaidetza kolektiboaren bidez.

3. **Baliabideetara sartzea:** hemen, segregazio bertikala edo horizontala dauden baliabide sozialetara emakumeak sartzea areagotzeko ekintzak jaso dira. Atal honetan, ikertu diren arloak honako hauexek dira:

   a) Kultura eta kirola
   b) Hezkuntza
   c) Enplegua
   d) Inklusio soziala
   e) Hirigintza eta Ingurumena
   f) Osasuna

Diseinuari buruzko atalean aipatu den bezala, planen ekintzak hiru lerro kontzeptual hauetan sailkatu dira, helburuen zein lan-programen egituren arteko ezberdintasunak gainditzeko. Kasu bakoitzean, linea bakoitzean jasotako ekintzen betetze-gradua eta emaitzak (nola gauzatu diren ekintza hauek) aztertu dira; eta amaitzeko, lortutakoa eta erronkak laburbildu dira.

Ekintza hauek bete diren erakusteko, morez jarri dira egindako ekintzak, eta gorriz, egiteke daudenak; beltzez agertuko dira: bai garatzeko prozesuan daudenak, bai bestelako ekintza antzekoen ordez egin direnak, hurrenez hurren.

# 5.1 AHALDUNTZE PERTSONALA, AUTOESTIMUA, AUTOZAINKETA ETA GENERO KONTZIENTZIA HARTZEA SUSTATZEA

## A. BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN AHALDUNTZE PERTSONALEAN, AUTOESTIMUA, AUTOZAINKETA ETA GENERO KONTZIENTZIA HARTZEA SUSTATZEKO, ETA ZER EGIN DUGU?

Berdintasunean sentsibilizaziorako eta ahalduntze pertsonala garatzeko programatutako ekintzak honako hauexek dira:

| Aramaio | Legutio | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|
| Bizitzaren zatirik handiera etxeko lanak edota zainketa lanak egiten eman duten emakumeentzako orientazioa eta lanerako trebakuntza errazten jarraitu, lan merkatuan txertatzea erabakitzen badute. | Berdintasunaren alde lan egiten duten gizonen taldeak sortzea sustatzea. | Berdintasunaren baloreak eta rolen esleipena Hamazazpin eta webgunean hedatzea. | Berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa. |
| Eskuhartze programetan, diskriminazio anitzeko egoeran dauden emakumeekin, gaitasun, sozio politikoak landu, beraien autoantolaketa indartuz, beraien interes eta beharren kanalizazio tresna izan daitezen. | Sentsibilizazio jarduerak antolatzea, emakumeek kirol praktikatzea sustatzeko egun seinalatuetan, esaterako, maiatzaren 28an: Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Egunean. | Berdintasunari buruzko pankartak lehiaketa egitea. | Emakumeei zuzendutako autodefentsa ikastaro bat egitea. |
| Gurasoak sentsibilizatu jarduera fisikoaren eta kirol arloko berdintasunaren inguruan, seme-alabak hezteko, neska-mutilen kirol jarduerak dibertsifikatzea susta dezaten (eskola-kirolaren bidez…). | Edozein adinetako emakumeei zuzendutako tailerrak eta programak sustatzea: autoestimua, ezetz esaten jakitea, etab. | Eguzki Jaiaren kartel bat egitea berdintasunari buruz. | Bizitzeko ohitura osasungarriei buruzko hitzaldiak antolatzea sustatzea. |
| Eskola-kirolean nesken parte-hartze sustatu eta gerora hau mantendu kirol federatuaren bitartez. | Teknologia berriei buruzko oinarrizko formakuntza antolatzea, batez ere, edineko emakumeentzat. | Ahalduntzea sustatzeko tailerrean sortutako manifestua hedatzea. | Martxoaren 8a ospatzea. |
| Emakumeak kiroleko kanpo ekintzatan parte hartze nabarmenagoa izateko bideak landu, herriko kirol elkarteekin batera. | Azaroaren 25a bezalako egun seinalatuetan jarduerak elkarrekin egitea. | Berdintasunaren aldeko jarduerak egitea ospatzeko egunetan (esaterako, martxoaren 8a). | |
| Emakumeek beren autonomia pertsonala hobetzeko, kontzientzia hartzeko eta beren autonomia garatzeko ikastaroak zein jarduerak egitea eta diruz hornitzea. Autodefentsa feminista ikastaroa. | | | |
| Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea, sexu aukera askea errespetatzen eta toleratzen irakasteko | | | |
| Gizon gazteen zein helduen konpromisoa eta inplikazioa lortzeko ekintzak sustatzea. | | | |

*Morez, egindako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak; eta beltzez, bestelako ekintzen ordez egin direnak.*

22 ekintzetatik, 15 egin dira: %65eko betetze-graduarekin. Udalerriaren araberako xehakapena egiten badugu, ekintzen betetze-gradua honako hauxe da:




*Grafikoa 29: Ahalduntze pertsonala, autoestimua eta genero kontzientzia hartzea sustatzeko arloan ekintzen betetze-gradua. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU?

2015 eta 2016 bitartean, teknikari soziokulturalek Arabako Foru Aldundira diru-laguntza batzuk eskatu zituzten zenbait ekintza egiteko: Berdintasunean sentsibilizaziorako eta emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasuna sustatzekotan. Guztiak ahalduntze pertsonaleko lerroan barne hartu ditugu, sentsibilizazio orokorrerako zein Berdintasunerako Politikak ezagutzera ematekoak direla kontuan hartuta.

| 2015ean Kudrillan egindako ekintzak | | |
|---|---|---|
| **Ekintzak** | **Data** | **Tokia** |
| Rap tailerra | 12.28-30 | Zigoitia |
| FAMILIARTE: | | |
| Joskintza tailerra | 07.02 | Zigoitia |
| Magia tailerra | 11.04 | ZIgoitia |
| Makillaje tailerra | 09.05 | Zigoitia |
| Argi beltzez jolas tailerra | 20.11 | Zigoitia |
| Hitagu tailerra | Gabonetan | Zigoitia |
| Eguzki Jaiaren Kartela | uztailean | Zigoitia |
| Azaroaren 25eko Erakundearen Aitorpena eta puntu morea eraikin publikoetan jartzea. | A25 | Kuadrilla |
| "Beldur Barik" | ekainetik urrira | Kuadrilla |

| | | |
|---|---|---|
| ANTZERKIA: | | |
| *"Pon Igualdad en tu vida"* Arteko Elkartea. | 11.05 | |
| "Genero Berdintasuna eta Emakume Atzerritarraren Agerikotasuna" ikerlanaren aurkezpena. | | |
| "Hotzikarak" (Kontakizun erotikoak). Ines Bengoa. | | |
| Bakarrizketak. Ane Gabarain eta Alazne Etxeberria. | 11.07 | |
| "Itsasoaren emazteak". Hika antzerkia. | 12.12 | |
| **Kuadrillan 2016an egindako ekintzak** | | |
| Berdintasunerako Jardunaldiak 2016 | | Zigoitia |
| Hitzaldia: "Ekonomia feministara sarrera- *Introducción A la economía feminista"* Marina Sagastizabal | 10.24 | |
| Erakusketa: "Emakumeak Afganistanen" | 10.30-13.13 | |
| Argazkien erakusketa: "Gizonak Berdintasunerantz eta maskulinitate berrietarantz" | 10.30-11.13 | |
| Bideoforuma:"Gizon berrien errelatoak" (Maskulinitate berriak). | 10.18 | |
| *"Bring the sun home"*, feministari buruzko dokumentala. | 10.20 | |

*Taula 9: Berdintasunerako jarduerak 2015ean eta 2016an. Iturria: Arabako Foru Aldundiko diru-laguntzen deialdien dokumentazioa.*

Ekimen horiek feminismoaren eta Berdintasunerako politiken alderdi ezberdinak ezagutzera emateko aukera izan ziren, hau da, kuadrillako emakumeentzako hausnartzeko esparruak ireki ziren; baina, ikus daiteke ekintzak sakabanatuta zeuden, antolaketa estrategikorik gabe.

Hala ere, 2017tik aurrera, giltzarri bat sortu zen: Arabako Jabekuntza (Ahalduntze) Eskola: **LAIAeskola** abian jarri zen, Arabako Foru Aldundiak babestuta, eta eskola horren programa Gorbeialdeko Berdintasun Teknikariak koordinatuta zein ezarrita izan zen. Inflexio puntu bat da, LAIAeskolaren bidez, kuadrilla osorako jardun-programa koordinatu bat sortu ahal baitzen: Gorbeialdeko emakumeen ahalduntzea garatzeko zuzenduta. Esparru honetan, aurten programatutako jarduerak eta ekimenak honako hauexek dira:

a) LAIAeskolaren aurkezpena eta inaugurazioa Zigoitian.
b) Solasaldiak

- Erromantikoa politikoa da. Coral Herrerak egindako hitzaldia.
- Ekonomia feminista. Ekonomia feministari buruzko teoriak ezagutzeko tailerra. Clara Coria eta Susana Covas.

c) Autodefentsa feminista tailerrak.

- 14 urtetik gorako neskentzako hiru tailer, gaztelaniaz eta euskaraz.
- 14 eta 30 urte bitarteko neskentzako zein emakumeentzako tailer bat. Gaztelaniaz.

d) Zineforuma: hautatutako film bat ikustean eta honi buruzko eztabaida edo elkarrizketa egitean datza. Honekin, filmean ikusitako ideiak zein gaiak amankomunean jartzen dira, beti genero ikuspegitik.
- Filmak: *"La Patota*", *"Era o Hotel Cambridge"* 2017an eta *"Rara"* 2018an.
- Dokumentala-Solasaldia: *"Él nunca me pegó"* Irantzu Varelaren eskutik.
- "*Volar*" dokumentala, protagonistarekin 2018an.

e) Aurkezpena:
- *"Gorbeialdeko eskualdeko Indarkeria matxistaren Diagnosia*". Dokumentu hau oso tresna garrantzitsua da Kuadrillarako, emakumeenganako indarkeriarik gabeko gizarte bat lortzeko bidean aurreratzeko.
- "Gorbeialdeko indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzat arretarako koordinazio Protokoloa". Ekimen hau gai honetan aurrerapauso nabarmena da.

d) XXII. Gorbeialdeko Emakumeen Topaketa. Urteko egiten da eta oso ospetsua eta herrikoia da. Aurten Zigoitian egin da eta gai nagusia "emakumea eta kirola" izen zen.

f) Bestelako tailerrak:
- Sare sozialei buruzko tailerrak Berdintasun ikuspegitik.
- Emakume kontzienteak, osotasun emozionalerantz zein berdintasunerantz aurreratzen.
- Indarkeria matxistaren aurkako erakusketa.

g) Data bereziak ospatzea:
- Martxoak 8 (M8): Emakumeen Nazioarteko Eguna. Kuadrillako udaletxeetan.
- Azaroak 25 (A25): Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna. Gorbeialdeko udaletxeetan.
- Maiatzak 28 (M28): Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna.
- "Urkabustaizko Egun Morea".

h) Arte eszenikoak eta  bertsolaritza:
- Bakarrizketa: *"Me lo hago sola"* Legution eta Zigoitian.
- Antzerkia: Pantxika Lamur. Euskaraz.
- "Bertsosaio musikala" emakume bertsolariek egina. Zigoitian

i) Jardunaldia: Genero Indarkeriaren aurkako erronka berriak eta nola gainditu, Araban. (Bertan behera utzita).

j) Berdintasun Foroa Gorbeialdean eta Araban.

Halaber, LGBTIren aleko kanpaina kokatuta, gida bat zabaldu zen eta liburutegirako hiru liburu erosi ziren: ahalduntzeari, berdintasunari eta feminismoari buruzkoak:

- *"Feminismo para principiantes"*. Nuria Varela.
- *"Emakumeak, arraza eta klasea"*. Angela Davis. Euskaraz.
- *"Sexual Herria"*. Itziar Ziga.

Gainera, udalerri mailan bestelako jarduerak eskaini eta gauzatu dira:

### ARAMAIO

- Arabako Jabekuntza Eskola abian jarri zen, eta Azaroaren 25ean helduentzako autodefentsa feminista tailer bat eta antzerki bat egin ziren.
- Beldur Barik kartelak egin ziren eta webgunearen bidez informazioa hedatu zen.
- Ekainaren 28an neska-mutilentzako Berdintasunari eta LGTBIri buruzko gida bat banatu zen: ikastolan, elkarteetan eta liburutegian.
- Gizon helduen zein gazteen inplikazioa eta konpromisoa lortzeko ekintzak sustatzeko asmoa bazegoen ere, ez zen eskuratu, baina, alkateak sustatutako Berdintasuna bultzatzeko taldea mistoa da. Beste alde batetik, Aramaion, kirolean emakumeen berdintasuna sustatzeko ekintza zehatzik ez da garatu, baina 2017ko kuadrillako topaketan gai hau landu zen eta udalerri guztietako emakumeek parte hartu ziren.

### LEGUTIO

Aipatu dugun bezala, Zigoitian 2017an egindako kuadrillako emakumeen topaketaren gai nagusia "emakumeak eta kirola" zen, eta profesionala izan zen Legutioko emakume pelotari batek parte hartu zuen. Gainera, mahai-inguru bat egin zen kuadrillako adin ezberdineko emakume kirolariekin: kirol profesionalean zein amateurrean erronkei eta oztopoei buruz mintzatu zen. Horretaz gain, munduan zehar dauden emakume pelotariei buruzko film labur bat proiektatu zen, eta emakume kirolariek zein feministek erakustaldi bat egin zuten:  Izarrako Uluka Roller Derby taldearekin, zeinak bere taldea kirolaren bidez ahalduntzeko estrategiatzat jotzen duen.

### ZIGOITIA

Berdintasunaren inguruko komunikazio eta hedatze lanak, Hamazazpi udal aldizkariaren bidez egiten dira, non arduradunak hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista kontuan hartzen duen. Baloreak aldatzeko lerro estrategikoari dagokionez, Berdintasun Zerbitzutik edukiak eta materialak, udalerriko berriekin zein jarduerekin batera jasotzen dituzte.

### ZUIA

2017ko apirilean "elkarrizketak" jarduera abian jarri zen, Laura Valleren eskutik. Laura Valle Zuiakoa eta zientzialari bat da, Madrilen lan egiten du eta solasaldian, zientzia eta bizitza pribatua zein soziala kontziliatzeko emakumeek aurkitzen dituzten oztopoak zein erronkak azaldu zituen.

- 2018an Ipar Gorbeialdeko anbulatorioko erizain nagusiak, emakume batek, bularreko minbizia diagnostiko goiztiarrari buruzko hitzaldi bat eman zuen.
- Berdintasun Batzordea urtean birritan biltzen da eta bi elkartek parte hartzen dute:
    - Zuiako Elkarte Kulturala: talde misto bat da eta lehenago Zuiako Emakumeen Elkartea zuen izena.
    - Zeteme: nesken talde feminista da, eta haiekiko harremana oso ona da.
- 2017ko azaroan eta abenduan autodefentsa feminista tailer bi egin ziren: bata, euskaraz eta 20 emakumerekin; bestea, gaztelaniaz eta 11 emakumerekin.
- Irantzu Varelak 2017ko maiatzean bi jardueratan parte hartu zuen:
    - *"Él nunca me pegó"* dokumentala aurkezteko.
    - Emakumeentzako lidergo tailerrean.
- 2017ko martxoaren 8an "Kong Kong Neska" antzerkia egin zen. 2018ko martxoaren 8an zineforum bate gin zen eta 80 urteko emakume feminista eta aktoresa bati omenaldia egin zitzaion. Berak antzerki feministetan lan egin du eta Ortzai elkatea sortu zuen. Esperientzia honetatik aurrera, urtero omenaldi bat egiteko asmoa dago.

Gainera, udalerri guztietan, **Arratzua-Ubarrundi** eta **Urkabustaiz** barne hartuta, Beldur Barik kartelak egin eta sare sozialetan hedatu da; Berdintasunari eta LGTBIri buruzko liburuen gida banatu zen.

**Herritarren iritziari** dagokionez, **genero kontzientzia hartzeko lanaren egokitasuna** 1etik 5era ebaluatzeko egindako galdeketak hurrengoa erakusten du: elkarrizketatutakoen %19ak nahikoa dela dio; %42ak, egokia; aitzitik, %19ak, eskasa dela deritzo; eta %20ak, oso eskasa. Beraz, **gehienek, hau da, %61ek iritzi positiboa daukate.**

Halaber, Gorbeialdean Berdintasuna lantzeko beharra jakitekotan, **Berdintasunaren inguruko ezagutze-gradua** 1etik 5era baloratzeko eskatu da: %37ak dio bere ezagutza oso baxua dela; %23ak, baxua; %23ak, ertaina; aitzitik, %10ak bere ezagutze-gradua altua dela deritzo; eta %7ak oso altua. Beraz, **biztanleen %60ek** berdintasuna zer den ondo ez dakitela esateak lan egiten jarraitu behar dugula dakar: berdintasuna gure eguneroko bizitzan garrantzi handikoa da eta hau jakinarazten jarraitu behar dugu.

## C. AHALDUNTZE PERTSONALEAN ETA GENERO KONTZIENTZIA HARTZEAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

Honekin guztiarekin, ondoriozta dezakegu alor honetan aurrerapauso nabariak eman direla:

Ekintza sakabanatuetako eredu batetik (non teknikari soziokultural bakoitzak AFAri diru-laguntzak udalerri bakoitzerako eskatu zizkion), kuadrilla mailako ikuspegi estrategikora igaro da:

- Berdintasunean egun seinalatuak ospatuko dira eta elementu estrategikoak lantzeko ere erabiltzen dira: "Martxoaren 8an", berdintasun aldeko erronken kontzientzia hartzea; "Maiatzaren 28an" emakumeen osasuna zaindu behar dela; "Ekainaren 28an", normatiboa ez dela orientazio sexuala duten pertsonen berdintasunaren aldeko erronkak; etab.
- Kuadrillako topaketak planek barne hartutako gaiak lantzeko erabiltzen dira Berdintasuna lortzekotan, esaterako, 2017an kirolean berdintasuna.
- Urtean zehar jardueran planifikatzen dira kulturan eta kirolean berdintasuna zeharkatzeko, eta Berdintasunerako politiken ardatzetan dauden elementuari buruz sentsibilizatzekotan: indarkeria matxistaren prebentzioa eta autodefentsa feminista; ekonomia feminista, amodio erromantikoaren inguruko kontzeptuei lotutako baloreak, etab. Eta hau guztia LAIAeskolan kokatuta, zeinak ekintzei testuinguru komuna ematen dien.

Honek aurrerapena da eta udalerri bakoitzerako planifikatutakoa baino haratago doa: ekintzak bete ez badira ere, garrantzitsuena da kuadrillako emakumeen ahalduntze pertsonalerako eta genero kontzientzia hartzeko antolaketa egonkorra garatzea lortu dela; bai herritarrei, bai erakundeei ezagutzera eman dela; eta epe luzerako programatzat finkatu da. Eta hau guztia erakundeen laguntzari esker: AFA, kuadrilla eta udalerriak.

Planen erronken artean ahalduntze pertsonalerako estrategia argirik ez zegoen: autonomia, autoestimua, autozainketa, genero kontzientzia hartzea… Ekintzetan helburu horiek ezartzea posible da, eta lerro komun honekin, prozesu egonkorrak sortu daitezke. Horrela, hau Jabekuntza eskolaren garapena eta finkapenari lotuta dago: ahalduntze pertsonaletik kolektibora igarotzeko tresna da, hau da, kuadrillako emakumeentzat ikasteko eta hausnartzeko esparrua izateaz gain, autoantolaketa sustatzeko zein elkarrekin hausnarketarako esparrua izan daiteke.

## IBILITAKO BIDEA

Sakabanatutako ekintzetik antolamendu estrategikora igarotzea, LAIAeskolaren bidez:

- Berdintasunerako data gakoak oroipena.
- Planetan ezarritako elementu estrategikoei lotutako eskualdeko topaketa egitea.
- Berdintasunari buruzko hausnarketarako esparru egonkorrak eskaintzea urte osoan zehar.

## IBILTZEKO BIDEA

- Planteamendu estrategikoak garatzea ahalduntze pertsonalerako: zer lortu nahi dugu? Autonomia, autoestimua, autozainketa (norberaren zainketa), genero desberdintasunen kontzientzia?
- Helburuetara heltzeko prozesu egonkorren garatzea. Jabekuntza eskolaren finkatzea eta garatzea, ahalduntze pertsonaletik ahalduntze kolektibora igarotzea sustatzekotan.

# 5.2 AHALDUNTZE SOZIOPOLITIKOA SUSTATZEA

## A. BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN AHALDUNTZE SOZIOPOLITIKOA SUSTATZEKO ETA ZER EGIN DUGU?

Berdintasun Planeten aurkitu ditugun ahalduntze soziopolitikoari dagozkion ekintzak honako hauexek dira:

| Aramaio | Legutio | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|
| Aramaioko Jai Batzordearen osaera eta dinamizazioa zaintzea. | Adin guztietako emakumeen sareak sustatzea. | Eguneko Arretarako Landa Zentroekin Berdintasunerako ekintza bat egitea. | Emakumeen Elkartea Batzordeari joatea. |
| Sentsibilizazio saioen bidez, elkarte kulturalek beren jardueretan genero ikuspegia sartzea eta Berdintasun arloa lantzea sustatzea. | Legutioko emakumeen ekarpen historikoari buruzko ikerlan bat egitea. | Ahalduntzea sustatzeko tailerrean egindako manifestua hedatzea. | |
| Itur-zuri elkarteak urtero egiten dituen erakusketarekin jarraitzea eta emakumeek egindako lan kulturalen sortzeari eta hedatzeari buruzko informazioa jasotzea. | Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ezagutza, baloreak eta pertzeptzioaren inguruko ikerlan bat egitea, Legutioko haurrengan zein gazteentagan. | "Berdintasunari buruz solasean" tailerrean sortutako sentsibilizaziorako dokumentua hedatzea. | |
| Emakumeek egindako eta berdintasuna sustatzen duten ekintza kulturalak hedatzea. | | Landa-eremuan emakumeen eguna ospatzea (urrian). | |
| Jai pregoia irakurtzen dutenen oreka urtero zaintzea. | | | |
| Kirol elkarteetan eta kirol federatuetan emakumeen presentzia areagotzeko bideak lantzea. | | | |
| Ingurumenari, hirigintza plangintzari eta garraio publikoari dagozkien parte hartzeko prozesuetan emakumeen partaidetza ebaluatzea. | | | |
| Herriko kaleen, plazen, parkeen, monumentuen eta elementu sinbolikoen izenak aztertzea Aramaioko emakumeekin batera, emakumeen aintzatespen sinbolikoa ebaluatzeko eta proposamenak jasotzekotan. | | | |
| Emakumeen elkarteen egoera eta oztopoak ikertzea eta elkarteak sendotzeko estrategiak definitzea. | | | |
| Aramaioko Berdintasun Batzordea sortzea. | | | |
| Legealdian abian jarritako Berdintasun Batzordeari segida ematea. | | | |
| Elkarteei Berdintasunari inguruko formakuntza eta aholkularitza eskaintzea orokorrean, beren antolaketa zein funtzionamendua berdintasun irizpideei egokituz. | | | |

*Morez, egindako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak; eta beltzez, bestelako ekintzekin ordezkatu direnak.*

Guztira, planifikatutako 20 ekintzetatik, 12 ekintza bete direla (edo ekintza antzekoak egin direla) esan dezakegu, hau da, %60ko betetze-gradua dagoela.




*Grafikoa 30: Ahalduntze soziopolitikorako ekintzak Aramaion, Legution, Zigoitian eta Zuian. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

## B. EMATIZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU?

2017an emandako aurrerapausoak nabarmenak izan dira. Urte gako horretan kuadrillako Berdintasun Teknikaria lanean hasi zen. Aurrerapen hau eraikitzeko, giltzarri batzuk lortu ziren, esaterako, Kuadrillako Berdintasun Foroa: batez beste 13 pertsonak osatuta, hots, 11 emakumek eta 2 gizonek. Gorbeialdeko emakumeen parte-hartze hau jauzi kualitatiboa izan da, eta hau ere, gizarte baloreen aldaketarako eta sentsibilizaziorako oso erabilgarria da gizarte zuzenago eta berdinago bat lortzekotan.

Zentzu horretan, Teknikariak Arabako Foru Batzordera joan zen eta Gorbeialdeko esperientzia aurkeztu zuen: emakumeen sareak eratzea jardunbide egokitzat jotzen da Arabako elkarteen mugimendu mailan.

Halaber, 2017ko uztailean, Gorbeialdeko emakume hautetsiei ongietorria emateko, Virginia Woolf Basqueskolako oinarrizko tailer bat Arratzua-Ubarrundian eman zen. Duranako gizarte-etxera kuadrillako lau emakume zinegotziak, eta Arratzua-Ubarrundiko zein Urkabustaizko emakume alkateak bildu ziren. Horretaz gain, Virginia Woolf Basqueskolak bi ikastaro eskaini zuen 2017an: bata, aurrez aurrekoa, *coachingi* eta lidergoari buruz; eta bestea, aurrez aurrekoa zein onlinekoa, politikan komunikaziorako trebetasunak lantzekotan; biak genero ikuspegitik.

LAIAeskolako ekintzetan kokatuta, 2017an kuadrillako emakumeen parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko topaketa batzuk egin ziren. **Zigoitiko II. Jardunaldi Feministak Batzar irekia: Emakumeak eta Kontzejuetarako hauteskundeak 2017an** emakumeen parte-hartze soziopolitikoari buruzko ikerlan baten emaitzak aurkeztu ziren. Ikerlan hau batzarrek, udalerriko elkarteek parte hartu zuten eta jarduera batzuk egin ziren:

- Zubialde emakumeen elkarteari omenaldia egin zitzaion.
- Kontzejuetan emakumeen partaidetzari buruzko batzar irekia egin zen, eta trikipoteo feminista egon zen.
- Gaztelekuaren gazteekin emakumeen partaidetzari buruzko foro bat egin zen, Emakunderen autobusean.
- Emakumeen partaidetza soziopolitikoa sustatzeko hitzaldiak, zehazki, 2017ko udazkenean egin zen kontzejuetarako hauteskundeen kanpainan emakume hautagaiak bultzatzeko. Jardunaldi honetan, kontzejuetarako hauteskundeetan parte hartze izan zuten emakume kazetariak, politikariak eta bestelako arlo sozialetakoak etorri ziren, beren esperientzia kontatzera eta Gorbeialdeko emakumeak animatzera Batzar administratiboetan (kontzejuetan) hautagaiak izatekotan; non, tradizioz, gizonek baino parte hartu ez baitute.

Gainera, udalerrietan beren Berdintasun Planetara lotutako ekintzak gauzatu dira:

#### ARAMAIO

- Emakumeen partaidetza soziopolitikoa sustatzeko lerro estrategikoari jarraituz, jai batzordea hiru emakumek osatuta dago: Alkateak, Zinegotziak eta Kultura teknikariak.
- Urtero, Berdintasun teknikariak "Itur-zuri" elkartearekin eta "Oleta" emakumeen taldearekin biltzen da: urteko plangintzari buruz mintzatzen da eta AFAren diru-laguntzak eskatzeko aholkua ematen da. Gainera, LAIAeskolako ekintzetara sartzea errazten zaie, esaterako, garraio zerbitzua eskaintzen zaie.
- 2018an talde informal bat sortu da, Berdintasunerako Politiketan alkateari aholkua emateko. Helburua da talde hau Kuadrillako Berdintasunerako Foroan sartzea.

#### ZIGOITIA

- 2017an urteko jardunaldi feministak eta kontzejuetan zein udalbatzarretan emakumeen partaidetza soziopolitikoari buruzko ikerlan bat eta egindakoaren ebaluazioa egin ziren. Horrela, 2018ko urtarrilean memoria eta plangintza egin ziren.

- Urte honetan LAIAeskola Gorbeialdean aurkeztu zen. Zigoitiko aurkezpenera 15 pertsona joan ziren, pertsonal politikoa eta erakundeen ordezkariak, gehienbat.

- Foro Lokal bakarra aurkitzen dugu Zigoitian: 2016an sortutako Berdintasunerako talde bat, zeina urtean hirutan biltzen den. Honen bidez herritarrei informazioa ematen zaie.

Herritarren iritziari dagokionez, **emakumeen eragina eta partaidetza soziopolitikorako lanaren egokitasuna,** 1etik 5era baloratzeko egindako galdeketak hurrengoa erakusten du: elkarrizketatutakoen %39ak uste du nahikoa dela; %13ak, egokia; eta %10ak, oso egokia; aitzitik, %16ak eskasa dela dio; eta %22ak oso eskasa. Beraz, **gehiengoak, %62ak iritzi positiboa dauka.**

## C. AHALDUNTZE SOZIOPOLITIKOAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

Ahalduntze soziopolitikoaren arloan, ahalduntze pertsonalekoan bezala, aurrerapen nabarmenak lortuak dira:

### IBILITAKO BIDEA

Kuadrillako emakumeen elkarteen mugimenduarekin harremanetan jartzea.

- Tokiko foruak mantentzea –Aramaio, Zigoitia– eta Kuadrillako Foru egonkor bat sortzea, zeina berdintasunerako jarduerak diseinatzeko hizketakide aritzen den.
- Foru Batzordean parte hartzea.
- Emakume liderren presentzia sustatzeko dinamikak:
  - Kontzejuetan: emakumeen presentzia sustatzeko jardunaldiak sortzea.
  - Politikan: Gorbeialdeko emakume hautetsiek Virgina Woolf Basqueskolan parte hartzea (VWB).

### IBILTZEKO BIDEA

- Kuadrillako Forua finkatzea, emakume partaideak eta ordezkatutako elkarteak areagotzea.
- Bestelako elkarteen mugimenduetako emakumeekin harremanetan jartzea, genero ikuspegiarekiko ekintzen garapena sustatzekotan.
- Virginia Woolf Basqueskolako emaitzak antolamendu estrategiko osoa bihurtzea: emakume zein gizon politikariek parte hartzeko prozesuak garatzeko emakume hautetsien (VWBko partaideen) inplikazioa kuadrillan berdintasuneko formazio egonkorretan, edo Komisio politikoaren emaitza nabarienetan. Berdintasunerako "lobby" bat sortzea.

# 5.3 BALIABIDEETARA SARTZEA

Atal honetan, ahalduntzea lantzeko programatutako ekintzen betetzea ebaluatu da, arlo ezberdinei dagokienez: kultura, kirol, hezkuntza, enplegu, inklusio soziala, hirigintza, ingurumen eta osasun arloetan.

Horrela, arlo bakoitzaren diseinua, prozesua eta emaitzak aztertu ditugu.

## 5.3.1. KULTURA, OHITURA OSASUNGARRIAK ETA KIROL ARLOA

### A. BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN KULTURAN, KIROLEAN ETA OSASUNEAN, ETA ZER EGIN DUGU?

Kuadrillako lau planetan, kultura, ohitura osasungarriak eta kirol arloan 11 ekintza programatu ziren: bederatzi ekintza Aramaion, bat Legution.

| Aramaio | Legutio |
|---|---|
| Liburutegiko fondoak areagotzea, Berdintasunari buruzko liburuak, eleberriak eta entseguak sortuz (kontakizun ez sexistak, teoria feminista…). | Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten kontukontalariak, antzerki ekintzak zein kulturalak antolatzea. |
| Itur-zuri elkarteak urtero egiten dituen erakusketein jarraitzea eta herriko emakumeek egindako sormen kulturalei eta hedatzeari buruzko informazioa jasotzea. | Ohitura osasungarriei buruzko hitzaldiak antolatzea sustatzea. |
| Emakumeek egindako ekintza kulturalak eta Berdintasuna sustatzen dutenak hedatzea. | |
| Jaietan pregoia ematen duten urtero oreka zaintzea. | |
| Gurasoak sentsibilizatzea jarduera fisikoaren eta kirol arloko berdintasunaren inguruan, seme-alaben kirol jarduerak dibertsifikatzea susta dezaten (eskola-kirolaren bidez). | |
| Eskola-kirolean nesken partaidetza sustatzea eta denboran zehar mantentzea, kirol federatuen bitartez. | |
| Emakumeek kirolean parte hartzea egonkorra izateko lan egitea, herriko kirol elkarteekin batera. | |
| Beste udalerri batzuekin, esaterako Debagoienarekin, emakumeen presentzia kirol elkarteetan eta kirol federatuetan areagotzea. | |
| Emakumeek kirola praktikatzeko sustatzeko sentsibilizazio ekintzak antolatzea, egun seinalatuetan, maiatzaren 28a bezala: Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna. | |

*Morez, egindako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak.*




*Grafikoa 31: Kultura, ohitura osasungarriak eta kirol arloko ekintzak Aramaion eta Legution, betetze-graduaren arabera. 2018. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

Esparru honetan, betetze-graduak altuak dira. Aramaion, proposatutako 9 ekintzetatik, 6 gauzatu dira, hau da, %72a, non barne hartzen diren: liburutegia berrikustea, emakumeen elkarteen mugimendua eta bere jardueraren hedapena, jaien pregoian oreka mantentzea eta kirola zein ohitura osasungarriak sustatzea. Legution proposatutako bi ekintzak bete dira: kontukontalaria, eta osasunari zein autozainketari buruzko hitzaldiak.

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU KULTURA, OHITURA OSASUNGARRIAK ETA KIROL ARLOAN?

Kirolari eta bizitza-ohitura osasungarriei dagokienez, arlo hau ahalduntze pertsonaleko lerroan ekintzen bidez landu da.

Ekintzarik nabariena, Zigoitian egindako XXII. Gorbeialdeko Emakumeen Topaketa izan zen, kuadrilla osoa inplikatu baitzuen. Gai nagusia emakumeek egiten duten kirola sustatzea izan zen. Topaketa honetan, emakumeen kirolaren lorpenei zein erronkei buruz hitz egin zen eta kuadrillako emakume kirolarien agerikotasuna bultzatu zen.

Halaber, aipatzekoa da Ipar Gorbeialdeko anbulatorioko emakume erizain nagusiak 2017an emandako bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarrari buruzko hitzaldia.

Gainera, “Maiatzaren 28a”: Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna aprobetxatu da, kuadrillan zehar jarduera eta hitzaldi batzuk antolatzeko.

Hobetze-gune moduan, Teknikari Soziokulturalek azpimarratzen dute gizon gehienak kirol federatua praktikatzen duela, eta udaleko kirol eskaintzaren erabiltzaile gehienak emakumeak direla. Era berean, aipatzen dute unibertsitatea joan baino lehen, neska gazteek kirola egiteari utzi diotela, geroago, berriro ohitura hartzen badute ere.

Nolanahi ere, kuadrillako kirol praktika genero ikuspegitik sakon aztertzea eta diagnostiko bat egitea proposatu dute: eskolako kiroletik, lehiaketa kirolera barne hartuz, lan egiteko esparruak eta epe ertainerako zein luzerako estrategiak antzemateaerren.

Kulturari dagokionez, bai udal mailan, bai kuadrilla mailan, zenbait ekintza egin dira. Udalerriaren arabera, honako hauek azpimarra ditzakegu:

### ARAMAIO

- 2017an liburutegiko liburuak berrikusi zituen arduradunak. Liburutegirako aurrekontuarekin Berdintasun Teknikariak proposatutako liburuak erosi ziren. Lehen aipatu dugun bezala, eroritako liburuak honako hauxek dira: Nuria Varelaren "Feminismo para principiantes"; Angela Davisen "Emakumeak, arraza eta klasea" (euskaraz); eta Itziar Zigaren "Sexual Herria".
- "Martxoaren 8a" prestatzeko, emakume alkateak Berdintasunerako lan-taldea pertsonal politikoaren, pertsonal teknikoarekin eta herritarrekin bildu zen. Oroitzapenezko ekitaldiak antolatu eta zabaldu ziren. "Itur-zuri" emakumeen elkarteak M8rako egiten dituen jarduerak Berdintasun Teknikari jakinarazten dizkio.
- Urtero, Aramaion "Olinpiadak" egiten dira, non mus eta briska txapelketak dauden. Taldeak mistoak badira, izen ematea doan da. Jardunaldi hauetan, hockey zein sokatira erakustaldiak; ping-pong, *mountain bike*, saskibaloia, pilota, frontenis txapelketak, herriko lasterketa eta bestelako agerikotasun handiko jarduerak egiten dira. Aurten, Maider Undari omenaldia egin zitzaion, Joko Olinpikoetan parte hartu zuen herriko emakume bati; eta gainera, kiroldegia haren omenez izendatu zuten. Jarduera honen garatzeko klausuletan genero ikuspegia sartu zen.
- Jaien pregoia emateko oreka mantentzeko ekintza genero ikuspegitik, beste batean gauzatu da: seme-alaba kuttunak hautatzeko, hautagaiak proposatzeko orduan genero ikuspegia kontuan hartu beharko da.

### LEGUTIO

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna sustatzen duten Kontukontalariak, antzerki zein kultura jarduerak Kultura Teknikariarekin lantzen dira. Berak, Legutioko jarduera kulturaletan

genero ikuspegia sartzen du, eta gainera, lan hau Berdintasun Teknikariarekin kontrastatzen zein berrikusten da.

Horrela, 2017an eta 2018an, jarduera asko elkarrekin egin dira:

- M8rako kartel lehiaketa
- "*Con fajas y a lo loco*" antzerkia.
- "Rol-jokoa" haurrentzako ikuskizuna: kontukontalaria genero rolekin.
- "Emakumea" film laburra.
- Martxoan zehar, liburutegian liburu ez sexistekin interes-gunea jarri zen, eta genero ikuspegitik egindako orri-markatzaileak banatu ziren.

Orokorrean, kuadrilla osatzen duten udalerrietan dauden ekipamendu kulturalak honako hauexek dira:

| | Aramaio | Arratzua-Ubarrundia | Legutio | Urkabustaiz | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kultur etxea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Liburutegia | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| KzGunea | ■ | | | | ■ | |
| Gazteleku | | ■ | | ■ | ■ | ■ |
| Zinema | ■ | | ■ | ■ | ■ | |
| Antzerkia | ■ | | ■ | ■ | ■ | |

Udalerri guztietan liburutegiak eta kultura etxeak daude. Liburutegietako kudeaketan genero ikuspegia sartzeko, liburutegi guztietan Aramaion eta Legution egindako bezalako ekintzak garatu dira: liburu gomendatuen zerrendak egin dira, liburu ez sexistak edo Feminismoari eta Berdintasunari buruzkoak erosi dira.

Beste aldetik, gazteentzako udalerri guztietako (Legutioko eta Zigoitiko), jarduketan genero ikuspegia sartu da. Legution mikromatxismoak antzematzeko eta prebenitzeko jarduera bat antolatu zen. Neska-mutilik joan ez bazen ere, langileek materiala jaso zuten eta Berdintasunean lan egitera konprometitu ziren. Zigoitian, langileek Berdintasunari buruzko formakuntza jaso zuten; eta ezarritako kontratazio klausulak direla eta, gutxienez, urtero udalerriko gazteengan Berdintasuna sustatzeko bi ekintza egiten dira.

Gazteekin egiten den Berdintasunaren aldeko lanean aipatu beharra dago kuadrillak Beldur Barik programan parte hartzen duela. Gai hau indarkeria matxistarako atalean sakonago azalduko dugu. Nolanahi ere,

aipagarria da, udalerri guztietako jaietan indarkeria matxista prebenitzeko ekintzak egin direla.

Teknikari Soziokulturalekin lan-taldea egitean, ekimen hau zabaltzea eta kontzejuetako jaietan ere egitea proposatu da. Ideia hau gauzatzea konplexua eta zaila denez, urtean zehar kuadrillako gazteekin lan dinamika garatzea aukera bat izan liteke; eta honekin, jai guztiek genero ikuspegia era integralean barne hartuko lukete.

Kontzeptu hau indarkeria matxistaren prebentzioa baino haratago doa, musika gomendioak, jarduerak berrikustea edo Aramaioko ekimenak bezalakoak kontuan hartzean datza. Aramaioko emakumeen mugimenduak 2017an kartelak egin zituen, adingabeak zainketan erantzunkidetasuna bultzatzeko eta jaiak berdintasunean gozatzekotan.

**Kultura arloan** berdintasunean egindako aurrerapena 1etik 5era baloratzeko biztanleei onlineko egindako galdeketaren arabera, herritarren gehienak uste du helburu hau lortu duela: elkarrizketatutakoen %32ak dio nahiko lortu duela; %23ak, egoki; eta %16ak, oso egoki; aitzitik, %13ak eskas lortu duela deritzo; eta &16ak oso eskas. Beraz, %71ak iritzi positiboa dauka.

**Kirol arloan** emandako aurrerapausoei dagokienez, herritarren iritzia ezberdina da: %29ak dio nahiko aurreratu duela; %29ak, egoki; %23ak, oso egoki; aitzitik, %29ak, eskas; eta %16ak oso eskas. Beraz, **herritarren iritzi positiboa %55era jaisten da.**

## C. KULTURAN, OHITURA OSASUNGARRIETAN ETA KIROLEAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Liburutegietako materialetan genero ikuspegia sartzea: feminismoari, berdintasunari eta sistema patriarkalari dagokion aniztasunari buruzko liburuen erostea eta hedatzea.
- Jaietan, genero ikuspegia sartzea, eta batez ere, indarkeria prebenitzea.
- Gazteen esparruetan genero ikuspegia sartzea: Zigoitian era egonkorrean, klausulen bidez; eta Legution, ekimen puntualean.
- Aramaion, genero ikuspegia sartzearen esperientziak: Olinpiadak jardueran, talde mistoei dagozkien ekintza positiboekin; pertsona kutun izendatzeko berrikuspena; eta epaimahaiak parekideak izateko berrikuspena.

### IBILTZEKO BIDEA

- Koordinazio soziokulturaleko mahai bat sortzea, kulturan proiektu nagusietan genero ikuspegia sartzekotan.
- Datuak sexuaren arabera jasotzea sistematizatzea, jarduera kulturaletara sartzean eta horiek gozatzean sexu-genero sistemak egiten duen eragina aztertzekotan.
- Jaietan genero ikuspegiaren sartzea sistematizatzea, kontzejuetan ere formakuntza ematea baloratuz.
- Diagnostikoa eta ekintza-plana egitea kuadrillako kirolean genero ikuspegia sartzekotan.

### 5.3.2 HEZKUNTZA ARLOA

#### A. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN HEZKUNTZAN ETA ZER EGIN DUGU?

Hezkuntza arloan programatutako ekintzak honako hauexek dira:

| Aramaio | Legutio | Zigoitia |
|---|---|---|
| Gurasoei hezkidetzaren inguruko formazioa ematea, ikasleen gurasoen elkartearekin, formakuntza eskaintzeko aukerak ikasiz (rolak, mezuak…). | Ikastetxeei, familiei, Gatzeguneri, ludotekari…, tresnak eta baliabideak ematea emakumeen eta gizonen Berdintasuna sustatzeko. | Hezkidetzari buruzko formakuntza ekintzak egitea Zentro Soziokulturalean, ludoteka erabiltzen familiekin. |
| Udalerrian dauden agente hezitzaileei hezkidetzaren inguruko formazioa eskaintzea (udalekuetako begiraleei…) , neskei eta mutilei mezu ezberdinekin apurtzeko tresnak izatearren. | Ikastetxeetan belaunaldien arteko partekatzeko tailerrak genero ikuspegiarekin sustatzea. | Haurrekin zein aitekin egiteko ekintzak egitea, zainketetarako rolekin. (Haurtxoari masajea emateko monografikoa, sukaldaritza, jan daitezkeen esperimentuak…). |
| | Legutioko gurasoentzako eta haurentzako hezkidetza jarduerak antolatzea. | |

*Morez, egindako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak.*

Aramaioko Planean bi ekintza proposatu dira; Legutiokoan, hiru; eta Zigoitikoan, bi. Zuiako Planean arlo honetan ez zen ekintzarik programatu; beraz, guztira, zazpi ekintza dira.




*Grafikoa 32: Hezkuntza arloko ekintzak, Aramaioko, Legutioko eta Zigoitiko Planetan, betetze-graduaren arabera. 2018. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

Betetzearen azterketak erakusten du proposatutako zazpi ekintzetatik, sei gauzatu dira, hau da, %85a. Egiteke geratu den ekintza Legutioko Planari dagokio eta belaunaldien arteko elkartrukeko tailerretan datza. Hala ere, aipatzekoa da Legution hezkidetza asko landu dela proposatutakoa baino haratago doazen beste neurri batzuen bidez. Beraz, arlo hau garatutako lana oso nabaria izan da.

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU HEKUNTZA ARLOAN?

106/2007 dekretua, ekainaren 26koa, Eskola-bilguneak zehazten dituenaren arabera, aztertutako sei udalerriak Gorbeialdeko eskola-bilguneari dagozkio. Aurkitutako ikastetxeak honako hauexek dira:

| Ikastetxea | Helbidea | Udalerria |
|---|---|---|
| **San Martin HLHIa** | Nardeaga 40 | ARAMAIO |
| **Aramaio-Masusta PHEa** | Nardeaga 38 | ARAMAIO |
| **Ikasbidea Ikastola** | Iturribero kalea 3 | ARRATZUA-UBARRUNDIA |
| **Garazi HLHIa** | Santa Engracia Etorb. z/g | LEGUTIO |
| **Legutio haurreskola** | Santamaina 2 | LEGUTIO |
| **Izarra HLHIa** | Ugarte 3 | URKABUSTAIZ |
| **Urkabustaiz - Sorgingane haurreskola** | Ikastola 1B | URKABUSTAIZ |
| **Gorbeia Eskola HLHIa** | Gorbeia Etorb. 1A (Gopegi) | ZIGOITIA |
| **Zigoitia – Gorbeia PHEa** | Gorbeia Etorb. 1 (Gopegi) | ZIGOITIA |
| **Virgen de Oro HLHIa** | El Manzanal 2 | ZUIA |
| **Zuia – Potxokiak PHEa** | Larrabizkai urbanizazioa, 31 | ZUIA |

*Taula 10: Haurreskolak eta lehenengo hezkuntzako ikastetxeak Gorbeialdeko sei udalerrietan 2018an. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.*

Udalerri guztietan haurreskolak daude, Arratzua-Ubarrundia izan ezik. Herri hau Vitoria-Gasteiztik oso gertu dago; hori dela eta, ikasleak hiriburura joatea oso arrunta da.

Horretaz gain, guztietan ere lehenengo hezkuntzako ikastetxeak daude.




*Grafikoa 33: Haur Hezkuntzako ikasleak Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legution, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian. 2009-2016 konparaketa. Iturria: egileek egina Garapenen datuen arabera.*




*Grafikoa 34: Lehenengo Hezkuntzako ikasleak Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legution, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian. 2009-2016 konparaketa. Iturria: egileek egina Garapenen datuen arabera.*

Haur hezkuntzan, udalerri guztietan, Aramaio eta Zuia izan ezik, haurren kopurua gora joan da. Hazkunde hori txikia izanda ere, Arratzua-Ubarrundian 56 haur gehiago daude. Zuian, ordea, 62 pertsonaren beherakada zazpi urtetan gertatu da. Lehenengo hezkuntzan, udalerri

guztietan igoera txikia egon da Urkabustaiz izan ezik, non 21 ikasle gutxiago dauden.

Sei udalerri hauetatik, hiru udalerritan hezkidetza arloan ekintzak garatu dira: Aramaion eta Legution, ikastetxeei eta IGEri dagokionez; eta Zigoitian, hezkuntza ez formaleko ekipamenduen pertsonalarekin.

Zehazki, garatutako ekintzak honako hauxek dira:

### ARAMAIO

- 2017ko abenduan joko eta jolas ez sexistei buruzko gida bat banatu zen Aramaioko ikastolan: Aramaio Herri Eskolan, IGEn eta udalerriko elkarteen artean.
- Martxoaren 8rako, orri-markatzaile bat ikastolan banatu zen, bai irakasleentzat, bai IGErako. 2018an IGErekin harremanetan egon da, ikastolan emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunari buruzko diagnostikoa eskatzekotan. Ikerlana jarduerarako ibilbide-orria izango da.
- 2017an kontukontalari feminista egin zen.
- 2017ko irailean kuadrillako hezkuntza agenteei zuzendutako formakuntza egin zen, non Aramaioko kultura etxearen arduradunak parte hartu zuen.

### LEGUTIO

- Garazi Ikastolan hezkidetzarako arduradun bat dago eta Berdintasun Teknikariak berarekin harremanetan dago.
- 2017an tratu onei buruzko zineforum bat egin zen, eta beste bat LGTBIri eta sexu aniztasunari buruzkoa. Aniztasunean eta berdintasunean hezkidetza gaia landu eta prozesu bat egin zen, SORTZEN enpresako Estibaliz Linaresek aurkeztua.
- Gaztegunean 2017an mikromatxismoei buruzko tailer bat egin zen. Deialdi honetara inor bertaratu ez bazen ere, Gazteguneko arduradunari materiala aurkeztu zion.
- 2018an kontukontalari bat egin zen eta hezkidetzarako koordinazioarekin jarraitu da Ikastolan, non aurten gurasoen eskolara zabaldu den. Honetan ere Legutioko psikologoak parte hartzen du, zeinak berdintasun jarduerak antolatzen dituen. Material, kanpaina eta gida guztiak ikastolaren bidez irakasleei, ikasleei eta IGEri hedatzen dira.

### ZIGOITIA

- Kultura arloan aipatu genuen bezala, ikastetxeek hezkidetzarako neurririk garatu ez badute ere, hezkuntza ez formalaren arloan aipagarria da Zentro Soziokulturalaren kontratazioreko klausula batek, Gaztelekuan eta ludotekan, gutxienez, Berdintasunerako ekintza bi egitera behartzen duela, eta posible bada, gurasoak barne hartuz.
- Beldur Barik formazioa eskaini zen, non Zentro Soziokulturalaren eta Gaztelekuaren arduradunak bertaratu ziren. Zentro Kulturalean

kontratazio-agirietan berdintasun klausulak sartu ziren, beren lanpostuei egokitutako berdintasunerako formazioa egiteko beharrarekin: hezkidetza, indarkeria matxistaren egoerak antzematea eta Berdintasunean oinarrizko formakuntza.

Ekintza hauek guztiak aurrerapauso garrantzitsu bat dira, hezkidetza ekintzak garatzeko eragingarriak: bai hezkuntza formalean, bai hezkuntza ez formalean.

Erronkatzat, Legutioko esperientzia gainontzeko udalerrietan sistematizatzea onuragarria izan liteke, lan osoa izan baita: alde batetik, irakasleekin, hezkidetza arduradunarekin harremanaren bidez, ikasleekin, gurasoentzako ekintzen programazioaren bidez, psikologoarekin koordinazioaren bidez eta IGErekin ekintzak planifikatzearekin; beste aldetik, hezkuntza ez formalean, Gaztelekuan ekintzak eratuz. Zentzu horretan, Zigoitiko klausulak ere jardunbide egokia dira eta Legution ere eratu litezke.

Azken finean, kuadrilla osoan zehar hezkidetza ekintzak planifikatzeko eta koordinatzeko beharra dagoela agerian dago. Esaterako, proiektu integral bat ezarri liteke: **Eusko Jaurlaritzako Plan Zuzendariaren ildo nagusiak kontuan hatu dituen Gorbeialdeko Hezkidetza Plana**.

- Hezkidetza eskola ereduan sakontzea eta zentroetan, planteamendu orokor batetik, ekintzetan genero ikuspegia sartzea.
- Hezkidetza eratzen duten esparru ez formaletako ereduan sakontzea eta ekipamenduen, udalekuen kulturan zein praktiketan genero ikuspegia sartzea, planteamendu integral batetik.
- Neska-mutilak orientatzea beren bizi-ibilbidea, ibilbide akademikoa eta profesionala hautatu ahal izateko, askatasunetik, aukera aniztasunetik eta genero baldintzarik gabe.
- Eskola-porrotaren lantzean genero ikuspegia integratzea eta hezkuntza sistemara sartzea unibertsala izatea bermatzea. Gainera, ikasleen aniztasuna hartu beharko da: etnikoa, kulturala, soziala, ekonomiko, funtzionala, sexuala, etab.).
- Arlo formaletatik eta ez formaletatik hezitzea harreman afektibo-sexualak, eta sexu aniztasunean zein emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako elkarbizitza lortzekotan.
- Genero indarkeria prebenitzea, kasuen diagnostiko goiztiar egitea eta biktimei arreta eragingarria ematea, komunitate hezitzailea bereziki barne hartuz (familia eta zaindariak); eskolan, institutuan eta eskolaz kanpoko ekintzetan dagoen berdintasun ikuspuntua aztertzea; esaterako, rolak zein estereotipo sexistak dauden ala ez detektatzen jakiteko hezitzea.

Helburu hauei guztiei ekiteko, planteatu eta zehaztu litezke zentro bakoitzean parte hartzeko prozesuen bidez. Nolanahi ere, interesgarria izan liteke kuadrillan hezkidetza mahai bat sortzea, non esperientziak eta jardunbide egokiak elkartrukatu litezkeen. Koordinazio egitura honek hezkuntza formaleko eta ez formaleko esparruen ordezkariak eta IGEak barne hartu lezake, aldez aurretiko joeraren eta interesaren arabera.

**Hezkuntza arloan,** emakumeen eta gizonen berdintasunean egindako aurrerapena 1etik 5era baloratzeko herritarrei egindako galdeketaren arabera, elkarrizketatutakoen %35ak dio helburua nahiko lortu duela; %23ak, egoki; %10ak, sos egoki; aitzitik, %19ak eskas lortu duela deritzo; eta %13ak, oso eskas. Beraz, **%68ak iritzi positiboa dauka.**

## C. HEZKUNTZAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Legution hezkidetzaren arduradunarekin harreman egonkorra dago.
- Legutioko IGErekin harreman egonkorra dago.
- Aramaion ekintza puntualak egin dira: kontukontalariak, orri-markatzaileak eta jostailu ez sexisten gidak.
- Zigoitiko hezkuntza ez formalerako esparruan Berdintasunerako ekintzak era egonkorrean sartzea; eta esperientzia puntuala Legutioko hezkuntza ez formalerako esparruan: agenteen formazioa.

### IBILTZEKO BIDEA

- Legutioko Ikastolarekiko esperientzia areagotzea eta kuadrillako ikastetxe guztietara eramatea: erreferentziako petsonekin harremana egonkorra, hezkidetzarako zein berdintasunerako ekintzen urteko plangintza irakasleekin, ikasleekin eta IGEkin.
- Hezkidetzarako diagnostikoa eta jardun-plana egitea, esparru formala eta ez formala barne hartuz.
- Hezkidetza mahai bat eratzea: Berritzegunerekin koordinazioan, eta beste kuadrillekin. hezkidetza kontuetan esperientziak elkartrukatzea.

### 5.3.3 ENPLEGU ARLOA

#### A. DISEINUAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN ENPLEGUAN?

Genero *mainstreaming*ak udal administrazioaren alderdi guztiak zeharkatu behar ditu, eta bereziki, enpleguari dagozkionak, bai publikoa, bai pribatua, ahalduntzea emakumeen autonomia areagotzean ere baita. Autonomia areagotzeko eta finkatzeko, baliabide ekonomikoak edukitzeko bideak egonkorrak izan behar dira.

Hala ere, lau planetan hiru ekintza baino ez dugu aurkitzen: bat Aramaioko Planean, eta bi Legutiokoan. Zigotiko eta Zuiako Planetan ez dago enpleguari lotutako ekintzarik; eta aurkitutako ekintzak enplegu publikoari edo administrazioko kontratazioei dagozkie: sustapen ekonomikorako politikak diseinatzean ekintza positiborako neurririk ez dago.

| Aramaio | Legutio |
|---|---|
| Udaletik abian jartzen diren lanpostu publikoen aukeratze, promozio eta hornidura prozesuetan erabakitze mahai parekidea izatea. | Enplegu publikoa sustatzeko aukeratze-prozesuetan Berdintasunari buruzko edukiak sartzea. |
| | Berdintasunerako klausulak sartzea kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan. |

*Gorriz, egiteke dauden ekintzak; beltzez, prozesuan dagoena*

Arlo honetan programatutako ekintzen betetzearen azterketak Aramaion aurreikusitako ekintza bakarra egin ez dela erakusten du. Legution, planifikatutako bi ekintzetatik, bat ez da gauzatu; baina, kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan Berdintasunerako klausulak sartzeko ekintza egiteko prozesuan dago.




*Grafikoa 35: Enplegu arloko ekintzak, betetze-graduaren arabera. 2018. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU ENPLEGUAN?

Kuadrillako emakumeen ordainduta dagoen enplegua sustatzeko jarduera oso eskasa izan denez, ezin dugu esan aurrerapenak egon direnik. Hala ere, honen harira, kuadrillako emakumeen egoera ikertu dezakegu.

Lehenengo datu interesgarria lan merkatuan zenbat emakume dauden jakitea da, hau da, emakume aktiboen kopurua: 2017an 2.023 emakume ziren, hots, Gorbeialdeko emakumeen %44a aktiboa da eta gizonen %49a aktiboa da.

Jarduketa feminizazio adierazlea, hau da, gizon aktiboen eta emakume aktiboen ratioa, 0,79koa da. 1eko adierazleak parekidetasuna erakusten dela kontuan hartuta, eta Lurralde Historikoaren zein EAEren adierazleak 0,92koak direnez, Gorbeialdean parekidetasunetik urrun dagoela esan genezake.

Gauza bera gertatzen da okupazioarekin. Gorbeialdean 1.811 emakume okupatuak daude. Emakume okupatuen kopurua, gizonen kopuruarekin zatitzen badugu (ratioa), okupazioaren feminizazio adierazlea 0,78koa da, zeina, berriro ere, EAEren eta Arabaren adierazletik, 0,9tik urrun dagoen.

| | Biztanleria aktiboa | | | Biztanleria okupatua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | feminizazio adierazlea | Emakumeak | Gizonak | feminizazio adierazlea |
| **EAE** | 508.327 | 549.927 | 0,92 | 425.528 | 469.929 | 0,9 |
| **Araba** | 77.301 | 83.982 | 0,92 | 64.817 | 72.561 | 0,89 |
| **Gorbeialdea** | 2.023 | 2.560 | 0,79 | 1.811 | 2.311 | 0,78 |

*Grafikoa 36: Biztanleria aktiboa eta okupatua Gorbeialdean, Araban eta EAEn. 2016. Iturria: egileek egina Eustaten datuen arabera.*

Aitzitik, langabeziaren feminizazio adierazlea, EAEn 1,27 da, eta Araban, 1,34; baina Gorbeialdean, bat baino pixka bat gehiagokoa da (1,03): langabezia ere feminizatua badago ere, inguruko proportzioa baino txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, egoera hau hain positiboa izan daiteke: langabezian dauden emakumeen kopurua txikiagoa izan daiteke emakume inaktiboen kopurua handiagoa izateagatik (enplegua eskatzaileak erregistratuta ez daudelako).




*Grafikoa 37: Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren feminizazio indizeak, EAEn, Arabako Lurralde Historikoan eta Gorbeialdeko Kuadrillan, 2017an. Aldagai bakoitzerako, emakumeen kopuru absolutua, gizonen kopuru absolutuarekin zatitua. Iturria: egileek egina Garapenen datuen arabera.*

Nolanahi ere, grafikoak argi erakusten du emakumeak "gain ordezkatuak" dauden (gehiengoa diren) kategoriak lan merkatuan egoera txarrenean daudela (langabeziaren feminizazio adierazlea 1 baino handiagoa). Aitzitik, emakumeak "gutxi ordezkatuak" daude jarduera eta okupazio kategorietan (1 baino gutxiagoko feminizazio adierazleak).

Gainera, langabeziaren bilakaeraren datuetan sakontzea interesgarria da.




*Grafikoa 38: Langabezia-tasa, sexuaren arabera Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legution, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian. 2010-2017. Iturria: Garapen.*

Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, emakumeen langabezia tasa 2014 eta 2017 bitarteko bilakaera positiboa bada ere (udalerri guztietan jaitsi da Legution izan ezik), jaitsiera hau ez da hain handia gizonen langabeziari dagokionez.

Izan ere, hurrengo grafikoaren arabera, langabezian dauden pertsonen guztiari dagokion emakumeen ehunekoa udalerri guztietan gora joan da, Aramaion izan ezik. Lau urteotan Arratzua-Ubarrundian, Zigoitian, Legution eta Zuian langabezian dauden pertsonen erdia emakumeak izatera igaro da: egoera hau 2014an Zigoitian baino ez zen gertatu.




*Grafikoa 39: Langabezian dauden emakumeen ehunekoaren bilakaera 2014tik 2017ra arte, Gorbeialdeko sei udalerrietan. Iturria: egileek egina Lanbideren datuen arabera.*

Beraz, kontratazioekin zer gertatzen ari den galde dezakegu. Iaz 1.896 gizon eta 1.695 emakume kontratatu ziren; beraz, 201 kontratu gutxiagoko genero arrakala dago.

Era bitxian, udalerri guztietan, Legution izan ezik, emakume gehiago kontratatu ziren. Baina kontratazio gehien egin diren udalerri honetan zen: eta 1.537 kontratu horietatik, heren bat baino pixka bat gehiago emakumeei zegokien.




*Grafikoa 40: Kontratazioen kopurua udalerriaren, sexuaren eta kontratazioaren feminizazio adierazlearen arabera. 2017. Iturria: egileek egina Garapenen datuen arabera.*

Aztertzeko beste elementu interesgarria bat kontratuen kalitatea baloratzea da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, emakumeei dagokien kontratazioen kalitatea esanguratsuki txarragoa da.

KONTRATU MUGAGABEAK




**Kontratu mugagabeen ehunekoa ez da parekidea**, bakarrik hirutatik bat baino pixka bat gehiago emakumeei dagozkie.

MUGAGABE BIHURTUTAKO KONTRATUAK




**Aldi baterako kontratua izatetik mugagabea izatera igarotzea ez da parkidea,** izan ere, emakumeei egindako kontratuen kopurua pixka bat txikiagoa da

ALDI BATERAKO KONTRATUAK




**Parekideak diren kontratu bakarrak,** baina emakumeentzako kontratuen kopurua gizonentzakoena baino txikiagoa bada ere. Hala ere, kontratu hauek aldi baterakoak dira eta, ondorioz, prekarioak.

*Grafikoa 41: Kontratuen kopuruaren ehunekoa motaren arabera udalerri guztietarako. 2017. Iturria: egileek egina Garapenen datuen arabera.*

Beraz, emakumeei dagozkien jarduera eta okupazio adierazleak txikiagoak dira. Langabezia adierazleak ere handiagoak dira, eta orokorrean langabezia behera joanda ere, langabezian dauden emakumeen proportzioa gora joan da. Beraz, enplegura sartzeko hobekuntzak ez dira esanguratsuak izan.

Kuadrilla mailan, emakumeentzako kontratazio gutxiago egin dira. Udalerri gehienetan gizonak baino emakume gehiago kontratu dira.

Hala ere, kontratu gehienak prekarioak dira. Emakumeen presentzia enplegu egonkorrean 4/2005 Legeak ezarritako ratio paritarioetara ez zen heldu.

**Enplegu arloan** emakumeen eta gizonen berdintasunean lortutako aurrerapena 1etik 5era baloratzeko herritarrei egindako galdeketaren arabera, elkarrizketatutako %42ak uste du helburua nahiko bete duela; %10ak, egoki; %6ak, oso egoki; aitzitik, %29ak dio helburua eskas bete dela; eta %13ak oso eskas. Beraz, **galdeketa egin zuten biztanleen %58ak iritzi positiboa dauka.**

## C. ENPLEGUAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Berdintasunerako klausulak sartzea.

### IBILTZEKO BIDEA

- Langabezia: emakumeen langabezia-tasa murriztea %6,3koa dena. Gizonena %4,6koa da.
- Kontratazioa eta Enplegura sarbidean hobetzea: emakumeen kontratuak %89a dira, gizonenei dagokienez.
- Enplegu baldintzak hobetzea: emakumeen kontratuen %91a behin-behinekoak dira; aitzitik, gizonen kontratazioetan behin-behinekotasuna %85era jaisten da.
- Hala eta guztiz ere, planetan hiru ekintza baino ez dira antolatu, eta guztiak arlo publikoari begira. Enplegura sartzean dauden genero arrakalak murrizteko ez da politikarik diseinatu: ez sustatzeko, ez soldata-berdintasunerako. Planak ez dute eskualdeko enpresetan Berdintasun Planak egitea sustatzea barne hartzen; es da enplegu politiketan genero ikuspegia sartzeko ekintzak garatzea barne hartu. Beraz, diagnostikoan sakondu ez ezik, emakumeen enplegagarritasuna sustatzeko plan bat egin ere behar da. Horretarako, kuadrillako pertsonal teknikoak parte hartu behar du, genero ikuspegiari buruzko formakuntza jasoz.

## 5.3.4 GIZARTERATZEA

### A. BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN ETA ZER EGIN DUGU GIZARTERATZEAREN ALDE?

Arlo honetarako zortzi ekintza baino ez dugu aurkitu: sei Aramaion, bat Legution eta beste bat Zuian. Zigoitian ez dago ekintzarik.

| Aramaio | Legutio | Zuia |
|---|---|---|
| Pobrezia zein bazterketa arriskuan edo egoera dauden emakumeentzako lanerako trebakuntza bateragarriak diren neurriekin edota doako zerbitzuekin osatzea, beren kargura dauden menpeko pertsonak zaintzeko. | Adineko emakumeen eta gizonen egoeraren eta beharren aztertzea genero ikuspegitik: baliabide sozialak, ekonomikoak, zainketen ingurua, mendekotasuna egoera, etab. | Udalerriko gizarte zerbitzuen rolaren hedatzean parte hartzea. |
| Bizitzaren zatirik handien etxeko lanak edo zainketa lanak egiten eman duten emakumeentzako orientazio eta lanerako trebakuntza erazten jarraitu, lan merkatuan txertatzea erabiltzen badute. | | |
| Pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoerak eta beharrak aztertzea, eta dauzkaten laguntzak zein bitartekoak nahikoa ote diren aztertzea, guztia ere malgutzeko edo baliabide osagarriak sortzeko irizpideak balioesteko. | | |
| Esku hartze programetan, diskriminazio anitzeko egoeran dauden emakumeekin gaitasun sozio politikoak lantzea, beraien autoantolaketa indartuz, beraien interesen eta beharren kanalizazio tresna izan daitezen. | | |
| Aramaioko Emakume alargunen egoera aztertzea. | | |
| Emakumeek beren autonomia pertsonala hobetzeko eta kontzientzia hartzeko ikastaroak eta ekintzak egitea eta diruz hornitzea. | | |

*Morez, egindako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak. Beltzez, Lurralde Historiko mailako ikerketan betetzeko prozesuan dagoen ekintza.*

Azterketak erakusten du proposatutako ekintzen laurdena bete dela, Aramaioko sei ekintzetatik bakarrik bat egin baita: autonomia pertsonala sustatzeko ekintza. Esan dezakegu ekintza hau LAIAeskolaren eskutik bete dela.

Horrela, Aramaion ez dira landu diskriminazio anitzari buruzko ekintzak: klase sozialagatik edo egoera zibilagatik (esaterako alargunak izateagatik); ezta Legution ere: hirugarren adineko pertsonekiko lana; ezta Zuian ere: gizarte zerbitzuen hedatzea.




*Grafikoa 42: Inklusio sozialaren aldeko ekintzak Aramaion, Legution eta Zuian, betetzearen arabera. 2018. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

## B. EMAITZEN EBALUZAIOA: GIZARTERATZEAN ZER LORTU DUGU?

Berdintasun Teknikariaren kontratazioa oso berandu egin zenez, zeharkako politikak bultzatzeko aukera zein denbora gutxi egon da. Berdintasun zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuen arteko harremanei dagokienez, 2017an indarkeria matxistaren aurkako erakunde arteko protokoloa garatzeko eta ezartzeko gogor landu dute bi zerbitzuek. Ondorioz, prozesu honen elementu baikorrak izan dira, eta prozedurez gain, aipatzekoa da harremanetarako bide egonkorrak eratu direla.

2018. urtean zehar, elkarlanean jarraitu dira, pobreziaren feminizazioari buruzko azterketa bat egitean: lurralde osoan zehar gauzatu da, AFAren finantzazioaren bidez, baina kuadrillei esleituta. Ikerketa honetan, Gizarte Langileek eta Berdintasun Teknikariak parte hartu dute.

Honen harira, emakumeen eta gizonen batez besteko errenten azterketa sinpleak erakusten du, udalerri guztietan genero arrakala: Aramaion 9.000 eurokoa dela; eta Zigoitian 13.000 eurokoa dela, zeina batez besteko errenta handienarekiko udalerria den.




*Grafikoa 43 Batez besteko errenta udalerriaren eta sexuaren arabera, eurotan. 2017. Iturria: egileek egina Garapenen datuen arabera.*

Emakumezkoen batez besteko errentarik baxuena Legution dago; atzetik, Urkabustaiz aurkitzen dugu, kuadrillako batez besteko errentarik txikienarekin; eta azkenik, Aramaio.

Beraz, logikoa da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen direnen espediente aktiboen azterketak, 2018ko maiatzaren lehenengoan, hurrengo datuak erakustea:

| | ARAMAIO | | ARRATZUA-U | | LEGUTIO | | URKABUSTAIZ | | ZIGOITIA | | ZUIA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Adina** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** | **G** | **E** |
| **20 - 24** | | | | | | | <5 | <5 | | | | |
| **25 - 29** | | | | | <5 | | | <5 | | | | |
| **30 - 34** | | <5 | <5 | <5 | | <5 | <5 | <5 | <5 | | | |
| **35 - 39** | <5 | | | | <5 | <5 | <5 | <5 | | | | <5 |
| **40 - 44** | <5 | <5 | | | 5 | <5 | <5 | <5 | <5 | | | |
| **45 - 49** | <5 | | | <5 | <5 | <5 | | <5 | | | <5 | |
| **50 - 54** | <5 | | | | 7 | <5 | <5 | | | | | <5 |
| **55 - 59** | | | | | <5 | <5 | | | <5 | <5 | <5 | <5 |
| **60 - 64** | | | | | <5 | | | | | <5 | | |
| **≥ 65** | <5 | <5 | | | <5 | 6 | <5 | <5 | | | <5 | <5 |

*Taula 11: DBE jasotzen diren pertsonak sei udalerrietan, adinaren eta sexuaren arabera. 2018.05.01. Iturria: Lanbide.*

Sekretu estatistikoak udalerriko zifrak ematea galarazten badu ere, kuadrillako datuen arabera, emakumeek errenta txikiagoa eta pobrezia-arriskua handiagoa badituzte ere, 99 espediente aktiboetatik, bakarrik 43 emakumeei zegozkien, erreferentziako hilean. Datu honi azalpena emateko, DBEa bizikidetza unitate bakoitzetik jasotzen denez, bizikidetza

unitatearen diru-sarrera ezarritako gehienekoa baino altuagoa bada, ez dago eskatzerik.

Bizikidetza unitate batek DBEa eskatzen duenean, datuek erakusten dute titular gehienak gizonak direla. Egoera honi buruz hausnartu beharko zen, ahalduntzearen eta autonomia ekonomikoaren ikuspegitik.

Beste aldetik mendeko pertsonei dagokionez, Diputatuen Kontseiluaren 56/2016 Foru Dekretuak, abuztuaren 3koak, 36/2014 Dekretu Forala, uztailaren 22koa, aldatzen du, zeinak mendekotasuna egoeraren aintzatespen prozedura, desgaitasunaren kalifikazioa, garapenaren gaitza izatea edo jasateko arriskua, eta Arabako Gizarte Zerbitzuen prestazio ekonomikoetara sartzeko eskubidea zein prozedura arautzen dituen.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFEk) 2016an jasotako Gorbeialdeko mendekotasun egoerari buruzko datuak aztertzeak erakusten du balorazio berrien kopururik zein mendekotasunaren aintzatespena duten pertsonen kopururik handienak Zuian daudela. Atzetik, Zigoitia et Aramaio aurkitzen ditugu, baina Zuiako zifren erdia baino baxuagoekin.




*Grafikoa 44: Mendekotasun egoeraren balorazioei eta aintzatespenari buruzko datuak, udalerriaren arabera. 2016. Iturria: egileek egina GOFEren datuen arabera.*

Testuinguru honetan, kuadrillan ere, guztira mendekotasun egoeran 335 pertsona daude, 2016ko abenduaren 31n; eta udalerriaren araberako banaketak erakusten du pertsona hauen %37a Zuian dago. Atzetik, Aramaio eta Zigoitia dira mendeko pertsonen ehuneko handiena bizi den udalerriak.




*Grafikoa 45 Mendekotasun egoeran dauden pertsonen ehunekoa Gorbeialdeko sei udalerrietan, 2016ko abenduaren 31n. Iturria: egileek egina GOFEren datuen arabera.*

Adinekoei dagokienez, azterketa demografikoan aipatu genuen bezala, azken lau urteotan udalerri gehienen zahartze adierazleak gora joan dira, eta hiru udalerritan, Aramaion, Zuian eta Urkabustaizen, gainzahartze adierazleak Arabako batez bestekoa baino altuagoak dira.

Datuen aburuz, Gorbeialdeko nagusiei laguntzeko baliabideak hiru Eguneko Arretarako Landa Zentrotan daude, Aramaion, Zuia eta Zigoitian kokatuta, eta ez Urkabustaizen, non zahartze zein gainzahartze adierazlerik handienak dauden. Zentro hauek dauzkaten 48 tokien banaketa honako hauxe da:




*Grafikoa 46: Aramaioko, Zigoitiko eta Zuiako Eguneko Arretarako Landa Zentroen tokien ehunekoa, kuadrillako zifrei dagokienez. Iturria: egileek egina GOFEren datuen arabera.*

Adinekoen, adigabeen eta mendeko pertsonen zainketen kontuari III. ardatzean ekingo bada ere, oso interesgarria da eguneko zentro hauen kudeaketan, erabiltzaileen arretan eta senideekiko harremanetan genero ikuspegia sartzea aztertzea, profil hauek feminizatuak egon ohi baitira eta desberdintasun egoeran ere baitira: emakumeek zainketa lanen ardura hartzen dute maiz. Hau aukera ona izan liteke gizonei erantzunkidetasunean parte hartarazteko eta autozainketen sareak eratzeko. Era berean, zentro honen erabiltzaile gehienak emakumeak dira eta ahalduntze prozesuak ere garatzen jarraitu ditzakete.

**Gizarte Zerbitzuen arloan, inklusio soziala barne**, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunean egindako aurrerapena 1etik 5era baloratzeko, herritarrei egindako galdeketaren arabera, pertsonen %42ak dio nahikoa izan dela; %16ak, egokia; eta %3ak, oso egokia; aitzitik, %25ak eskasa izan dela deritzo; eta %13ak oso eskasa. Beraz, gehienek**, %61ek iritzi positiboa dute.**

## C. INKLUSIO SOZIALEAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Beste erakunde batzuekin lan-prozesu koordinatuak eratu dira indarkeriari aurre egin edo egiten dioten emakumeentzat.
- Kuadrillan pobreziaren feminizazioari buruzko ikerlan bat hasi da, AFAren eskutik.

### IBILTZEKO BIDEA

- Kuadrillako mendeko pertsonen zein zaindarien beharrei eta eskaerei buruzko daturik ez dago. Mendekotasunerako arretan genero ikuspegiari buruzko diagnostikoa egin beharko zen.
- Adinekoak gero eta gehiago dira gure gizartean. Adineko emakumeen ahalduntzeari arreta ematea eta heientzako zerbitzuetan zein baliabideetan genero ikuspegia sartzea oinarrizkoa da: bai kolektibo hau normalean oso feminizatuta baitago, bai emakume hauei emakumeek ere arreta ematen baitiete; espazio publikoetatik (gaizki ordainduta) zein espazio pribatuetatik (ez ordainduta).

## 5.3.5. HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ARLOA

### A. DISEINUAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN HIRIGINTZAN ETA INGURUMENEAN?

Hirigintza eta Ingurumen arloan zortzi ekintza aurkitu dugu: zazpi Aramaioko planean; eta bat, Legutiokoan. Arlo honetarako ez dago ekintzarik: ez Zigotiko planean, ez Zuiakoan. Ekintza hauen artean Ingurumenari buruzko ekintzarik ere ez dugu aurkitu.

| Aramaio | Legutio |
|---|---|
| Ingurumenarekin, hirigintza plangintzarekin eta garraio publikoarekin eralzionaturiko kontsulta eta prozesu parte hartzaileetan emakumeen elkarteen parte hartze aztertu. | Herritarren proposamenak jasotzea segurtasunari, irisgarritasunari, eta Legutioko emakumeen segurtasun sentsazioari dagozkien hirigintzari alderdiak hobetzeko. |
| Herriko kale, plaza, parke, monumentu eta herriko elementu sinbolikoen izenak aztertu herriko emakumeekin batera hauen aintzatespen sinbolikoa ebaluatze aldera, aztertu eta proposamenak jasotze aldera. | |
| Hirigintzako teknikariei gai honetan trebatu betiere bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan arloa uztartzeko bitarteko egokiak sartzeko hirigintzako plangintzetan. | |
| Hirigintza planean aldez aurreko genero eraginaren azterketa egiteko udal konpromisoa sustatzea, genero eraginaren azterketa hori erantzunkidetasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspuntutik egindakoa. | |
| Herriko emakumeekin bildu, herriko leku ez seguruak identifikatzeko helburuarekin , garraio publikoa barne. | |
| Aurreko ekintzan identifikaturiko hutsuneak egokitu pixkanaka, insegurtasuna sortzen duten leku hauek neutralizatzeko neurriak hartuz (argiztatzea, herriko leku guztietako garbitasun oinarriko neurriak…) | |
| Hirigintza eta gune publikoak oro har diseinatzeko ardura duten pertsonei emakumeentzako diseinu seguru batekin bat egiten duten neurriak ezartzeko zein egungo gune arriskutsuak egokitzeko trebakuntza jasotzea. | |

*Morez, egindako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak.*

Ikus daitekeen moduan, programatutako ekintzarik ez da egin: ez Aramaion, ez Legution.




*Grafikoa 47: Hirigintza eta Ingurumena arloko ekintzen ehunekoa Aramaioko, Legutioko, Zigoitiko eta Zuiako udalerrietan, betetze-graduaren arabera, 2017. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

Azterketa honek erakusten du arlo hau sakonago landu behar dela eta Berdintasunerako Politiketan kontuan hartu behar dela, bai Gorbeialdeko Kuadrillan, bai udalerrietan.

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN HIRIGINTZAN ETA INGURUMENEAN?

Berdintasun unitatetarako hirigintza arloarekin itunak eratzea oso konplexua izan da, tradizioz arlo maskulinizatua izan baita. Hirigintzan ere, eta duela gutxira arte, genero inpaktu potentzialaren informazio gutxi erabiltzen zen. Hala ere, arlo honetan, 2014-2017 aldiko egoera esponentzialki bilakatu da: sendotu egin da eta arlo politikora zein sozialera helarazi da, hiri antolatzeko tresnetan genero ikuspegia sartzeko esperientzia anitzak garatuz.

Hain zuzen ere, hirigintzak enplegu aukeretara sartzean eragin zuzena du: zainketak sozializatzeko aukeran eta bailiabideetara sartzeko erraztasunean. Genero ikuspegia kontuan hartzen ez duen udalerriak emakumeen berdintasun ekonomikoari kalte egin diezaioke. Eguneroko bizitza eta zainketak oztopatu ditzake (oraindik emakume gehienak arduradunak dira), enplegurako sarbidearen eta denboraren erabileren arrakalak areagotuz.

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak udalerriak 2020 baino lehen Hiri Antolamendurako Plangintza Orokorra (HAPO) bat egitera behartzen ditu. Gorbeialdeko udalerrietatik, Aramaiok 2012tik HAPOa onetsita dauka, eta Urkabustaizek, 2014tik. Zigoitia

Aurrerapen fasean dago 2011tik, eta Arratzua-Ubarrundia, hasierako onesteko fasean. Gainontzeko udalerrietan, Arau Subsidiarioak baino ez daude.

Gogoratu beharra dago juridikoki, HAPOek arauzko izaera dutela, eta ondorioz, Berdintasunerako legediaren araupean daudela: bai estatuko 3/2007 Legeari, bai EAEko 4/2005 Legeari dagokienez; lege hauek Genero Inpaktuaren Ebaluazioa egitera behartze dituzte. Izan ere, Espainiako estatuan Auzitegi Gorenaren epaiketak daude, non Malagako HAPOaren deuseztasuna ebazten diren –2015eko urriaren 6ko epaia[1]– eta Madrilgoarena –2017ko apirilaren 19ko epaia–, araudi hau ez betetzeagatik.

Beraz, behin betiko HAPO onetsirik gabeko udalerriek genero ikuspegia sartzeko une hobe ezina da. Era berean, onuragarria izango zen HAPOa indarrean duten udalerriek genero ikuspegitik herriaren azterketa egitea, beren HAPOri hirigintza inklusiboagoa eratzeko neurriak erantsiz.

Gainera, Udaleko Hirigintza Sailek genero ikuspegitik hirigintza feministari zein inklusiboari buruzko formakuntza jasotzea oinarrizkoa da. Honekin, behar diren neurriak abian jartzea eta genero ikuspegia parte hartzeko prozesuetan sartzea erraztuko da. Era berean, parte hatzeko prozesu horietatik jasoko diren herritarren ekarpenak, sexuaren arabera jaso beharko dira, emakumeenak barne hartzen direla bermatuz.

Beste alde batetik, normalean, Ingurumenaren eta Berdintasunaren arteko harremana, batez ere, ekintzak programatzeko orduan, Ingurumena Sailaren sentsibilitatean datza eta arlo honetarako zehazki programatuta ez bazegoen ere, udalerrietako plan batzuetan planifikatuta dago, eta hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, oso sistematikoki garatu da. Baina haratago, ingurumenak eta berdintasunak, xedeak, estrategiak eta publiko-objektiboak partekatzen dituztenez, oso interesgarria izango zen bi frontetan harremana sendotzea eta esfortzuak bateratzea.

Xedeei dagokienez, bi kasuetan bizitza egonkortasunerako borroka zein lehentasun ekonomikoen, filosofikoen eta soziopolitikoen birplanteamendua gakoak dira bizitza gure gizarte sistemaren erdigunean jartzekotan. Ekonomia feminista eta ekofeminismoa

[1] Bi epaiei dagokien testu osoa hurrengo esteketan aurki daitezke:
2015ekoa:
http://www.poderjudicial.es/search/contenidos.action?action=contentpdf&databasematch=TS&reference=7512184&links=&optimize=20151106&publicinterface=true
2017koa:
http://www.poderjudicial.es/search/contenidos.action?action=contentpdf&databasematch=AN&reference=8039883&links=&optimize=20170531&publicinterface=true

berdintasunetik eta ingurumeneko zuzentasun soziala egonkortasunaren parte bat dela kontsideratzea bi gune komunak dira eta abordatze koordinatua onuragarria izan liteke: berdea morean eta morea berdean.

Hirigintzan, ingurumeneko jasangarritasunaren eta hirigintza inklusiboaren adierazleekin, sarritan bat datozenez, HAPOak berrikustak eta hirigintzan zeharkakotasun lanak, gutxienez, bidimentsionaltasun hori izatea interesgarria izango zen.

Estrategietan ere, helburu komunak eratzea eta lantzea era koordinatuan, esaterako, berdintasunerako eta aldibereko erosketa publiko berdean klausulak sartzeko lanean. Hauek guztiak eta bestelakoak elkarlanerako aukerak dira, sinergia positiboak sortzekoak, eta horregatik, neurri bat izan daiteke bi arloetako pertsonal teknikoen harremana sendotzea, urteko plangintza elkarrekin berrikustea eta interes komuneko ekintzak definitzen hastea.

**Hirigintza arloan** emakumeen eta gizonen berdintasunean lortutako aurrerapena 1etik 5era baloratzeko herritarrei egindako galdeketaren arabera, elkarrizketatutako %29ak uste du helburua nahiko bete duela; %10ak, egoki; %6ak, oso egoki; aitzitik, %32ak dio helburua eskas bete dela; eta %23ak oso eskas. Beraz, **erantzun positiboa gutxienena da: galdeketa egin zutenen %45ak iritzi positiboa dauka.** Datu hauek arlo honetako betetze orokorraren ebaluazioak erakutsitakoekin bat datoz.

## C. HIRIGINTZAN ZEIN INGURUMENEAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Aramaioko eta Legutioko Berdintasun Planak gai horietarako ekintzak eratu zituzten bakarrak ziren: guztira, zortzi ekintza. Bat ere ez da bete.

### IiBILTZEKO BIDEA

- Aramaion 2012tik HAPOa dago; Urkabustaizen 2014tik; Zigoitian 2011tik aurrerapen fasean dago; eta Arratzua Ubarrundian, hasierako onesteko fasean dago. Gainontzekoetan arau subsidiarioak daude.
- Lurzoru legeak udalerriak 2020 baino lehen HAPOa egitera behartzen ditu. Halaber, Berdintasun legeak ere HAPOen Genero Inpaktuaren Ebaluazioa egitera behartzen ditu. Beraz, momento hobe ezina da HAPOrik gabeko udalerriek genero ikuspegia sartzeko.
- Ingurumen kontuetan lan komuneko puntuak daude: edukierei, estrategiei eta publiko-objektiboei dagokienez. Beraz, harreman bide progresiboak eratzea interesgarria da.

# 6. III. ARDATZA: KONTZILIAZIOA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA ZAINKETAK

Kontziliazioaren "arazoa" izenekoa agertu zen erralitatearen ukapena edo inbisibilisazioaren ondorioz: pertsonen oinarrizko beharrak betetzeko behar diren denbora zein lana. Halaber, egoera hau lanaren ikuspegi androzentrikoa eta mugatua izatearen ondorio zuzena da. Ikuspegi hau industrializazioan eratu zen, non espazio publikoan egiten den enplegu ordaindua lantzat hartzen den.

Kontzeptu honek etxeko lana baliorik gabeko zein identitaterik gabeko jardueratzat hartzea ekarri du. Beraz, inbisibilizatu egin da, bizitzarako nahitaezkoa dela, esfortzu fisikoa zein psikologikoa dakarrela eta denbora asko barne hartzen dutela alde batera utziz. Lan hau barik, bizitza ez da posible.

Inbisibilizazio honek "zainketen arazo" delakoa agerrarazi du: emakumeak lan produktibora sartzearekin, baina gizonek lan reproduktibora ez.

Orduan, Iau Planek eratu dituzten estrategiak lan-lerroetan, bi epigrafetan banatu daitezke:

**Kontziliazioa:** esfera produktiboa eta esfera reproduktiboa bateragarri egiteko helburuak eta ekintzak, lan ordutegiak malgutuz edo egokituz.

**Erantzunkidetasuna eta zainketen eredua:** Gizonak zehazki, baina gizarte osoak parte hartarazteko helburuak eta ekintzak, zainketa lanak partekatzeko beharra baitago eta emakumeek egiten duten jardunaldi bikoitza edo hirukoitza saihestekotan. Halaber, ikuspuntu honek rolen aldaketa eta maskulinitate hegemonikoa berrikustea barne hartzen ditu.

Haratago, Planetan islatuta ez badago ere, erantzunkidetasuna ez da bakarrik emakumeen eta gizonen artea, baizik eta espazio publikoaren, pribatuaren eta kolektiboaren artean. Beraz, honek gizartearen eredua birplanteatzeko ekintzak barne hartzen ditu, gaur egun zainketei ematen zaien garrantzia arteztuz. Are gehiago, denok batera ezagutu behar dugu zein da zainketen benetako balioa bizitzaren egonkortasunerako, gure antolaketa sozialari zein baliabideen banaketari buruz hausnartuz.

# 6.1 KONTZILIAZIOA

## A. BETETZEAREN EBALUAIOA: ZER NAHI GENUEN KONZILIAZIOA BULTZATZEKO ETA ZER EGIN DUGU?

Lerro honetako ekintzak udal administrazioa zein eragile ezberdinak kontzientzia harraraztekoak dira: ordutegi malguagoak egiteko eta pertsonen bizitza-ohiturei egokitzearren.

Horrela, Aramaion, sei ekintza planifikatu ziren; Legution, hiru; Zuian, bi; eta Zigoitian, bat ere ez dago:

| Aramaio | Legutio | Zuia |
|---|---|---|
| Administrazioak, herritarrei zuzendutako arreta eta gestio zerbitzuen (ordainketak, esaterako), egutegi eta ordutegi malguekin jarraitzea. | Udalerrian antolatutako jardueretan kontziliaziorako zerbitzuak sustatzea. | Udalek antolatzen dituen jardueretan emakumeek parte hartzea erraztea, esterako, ludotekaren eskaintza. |
| Jarduera kulturalen ordutegiak ezartzean, lanak eta bizitza pribatuak dakartzan erantzukizunak aintzat hartzea. | Mendeko pertsonen kontziliaziorako baliabideei dagozkien beharrak aztertzea (batez ere adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak). | Udalek antolatutako edo babestutako jarduera eta zerbitzu guztietara sartzea bermatzea. |
| Mendekotasun egoeran dauden pertsonei eta hauen zaintzaileei sailetik zuzentze zaizkien baliabide eta zerbitzuen erabilera sustatzea eta ezagutaraztea. | Eskola oporretan sei urte baino gutxiagoko haurrentzako jarduerak antolatzea. | |
| Sailetatik mendeko pertsonei eta beren zaindariei zuzendutako zerbitzuen eta baliabideen erabilera sustatzea eta ezagutzera ematea. | | |
| Autonomia falta duten pertsonen zaintzara dedikatzen diren pertsonei zuzenduriko arreta eta orientazioa ematea gizarte zerbitzuetako departamendutik, ondorengo bideen bitartez: baliabide sozio ekonomikoei buruzko orientazioa eman; laguntza eta arnasaldi edo atsedenaldi sistema eskaini; zaintza lanen ondorioz eratorri daitezkeen arrisku fisiko eta psikologikoei buruzko laguntza psikologikoa. | | |
| Gaixoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten emakumeen zama sozial, ekonomiko eta psikologikoak arintzera bideratutako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, hauek duten eragina, norainokoa eta eraginkortasuna neurtuz. | | |

*Morez, betetako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak; eta beltzez, prozesuan daudenak.*

Ekintza hauetatik, Aramaion bat egin da eta beste bat egiteko prozesuan dago. Beraz, betetze-gradua, planeatutakoaren heren bat baino pixka

bat gehiagokoa izan da. Legution proposatutako hiruetatik, bat egin da, eta Zuian planteatutako biak eginak dira.




*Grafikoa 48: Aramaio, Legutio eta Zuia udalerrietan kontziliazio arloan egindako jarduerak. Iturria: egileak egina udal datuen arabera.*

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU KONZILIAZIO ARLOAN?

Arlo honetan sail batzuek egindako esfortzuak azpimarratu behar ditugu: ekintzen eta bileren ordutegia malgutzeko, eta kontziliazio sustatzekotan eta udalak eskatutako jardueretan parte hartzeko erraztekotan.

Esaterako, kuadrillako Ingurumen arloko pertsonal teknikoak bilera informatiboak ordutegi ezberdinetan eskaintzen ditu, herritarren profil guztiei aukera gehiago ematearren. Hau jardunbide egokia da, bereziki zaindariei dagokienez.

Beste adibide bat da, Gizarte Zerbitzuetan familiak artatzea: astero, udaletxera joan ezin direnei arreta ematen hiru ordu ematen dituzte, eta horrela, beren etxean laguntza hartzeko aukera daukate.

Haurtzaindegi zerbitzuaren eskaintzari dagokionez, Legutioko ludotekaren ordutegia zabala da, non ez den aurretik izen eman beharrik. Honekin, behar hau betetzen da udalerrian antolatzen diren ekintza guztietarako. Zuian, Berdintasun ekintzetarako ludoteka zein haurtzaindegi zerbitzua daude, eta kasu guztietan, kokapen irisgarrietan egiten dira.

Landa-eremuetarako inklusio esparruak kontuan hartuta, eta berriro ere, Legution, eskolako oporretan zehar, programa espezializatu batzuek

daude, esaterako, “Lore Maitea”: haurtzaindegi zerbitzua derrigorrezko eskolatzerik gabeko haurrentzat.

Lan-lerro honekin jarraitzea beharrezkoa da, aurrerapen interesgarriak sortu baititu, eta esfortzu gehiago egin behar dira arlo honetan. Hobetze-espazio bat izan daiteke barneko Berdintasun Plan bat egitea kuadrillako administrazioetan. Izan ere, egin daitekeena da administrazioen pertsonalaren lan baldintzak eta kontziliatzeko aukerak ezagutzea.

Era berean, kuadrillan lantzeko beste esparru bat da inguruan dauden enpresetan Berdintasun Planak egitea, langileen egoera sexuaren arabera aztertzea, berdintasun neurriak, lan-mahaiak edo lan-taldeak sortzea, eta jardunbide egokiak elkar trukatzea sustatzea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrerapena 1etik 5era ebaluatzeko galdeketaren arabera, **kontziliazio arloan**, %29an nahiko bete da; eta ondo, %10ean; baina gutxi %26an edo oso gutxi, %35ean; beraz, baiezko erantzuna gutxienena da, %39arekin; hau da, **galdetutako pertsonen %61ek kontziliazio lanetan helburu hau lortu ez dela diote.**

## C. IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA KONTZILIZAZIOAN



## 6.2 ERANTZUNKIDETASUNA

### A. BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN ERANTZUNKIDETASUNA BULTZATZEKO ETA ZER EGIN DUGU?

Lerro honi dagozkion ekintzen helburua da, lan produktiboaz gain pertsona guztiok eginkizun reproduktiboez arduratu beharko ginatekeela. Orokorrean mintzatzen bada ere, egia esan, lerro honen arreta-fokua gizonak eta mutilak dira, zeintzuek beren ohiturak aldatu behar dituzten. Ohitura horiek, tradizioz maskulinitate hegemonikoak zeharkatuta egon dira, non arlo publikoan egoten den. Arlo pribatuan, berriz, etxeko lanak edo mantendu eginkizunak zein kudeaketa administratiboak emakumeek egina egon ohi dira. Rolen banaketa hau aldatzekotan, Gorbeialdeko lau Berdintasun Planetan aurkitzen ditugun ekintzak gizonak sentsibilizatzean datza, materialak zabalduz edo hitzaldien zein tailerren bidez.

Guztira, lerro honetarako 16 ekintza planifikatu dira: Aramaion, zazpi eratu ziren; Legution, bost; Zigoitian, bat; eta Zuian, hiru.

| Aramaio | Legutio | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|
| Gizonezkoak animatu, beraien kargu dauden pertsonen zaintzaz arduratzeko dauden baimenak, lizentziak erabiltzeko duen eskubideaz. | Herritarrengan erantzunkidetasuna sustatzeko sentsibilizazio ekintzak egitea. | Udalerriko ospakizunei lotutako hausnarketa esparruak eratzea, erantzunkidetasunari buruz. | Difundir artículos de sensibilización en corresponsabilidad |
| Gizonak parte hartzen duten gizarte zerbitzuetatik antolatutako programetan, zeharkako modu batean, bateragarritasuna eta zaintzaren etikari buruzko formakuntza bultzatu, mentalitate aldaketak bultzatzeko, Berdintasun arloarekin elkar lanean. | Etxeko eta zainketen lanetan gizonak inplikatzea. | | Erantzunkidetasunari buruzko tailerrak egitea sustatzea. |
| Mendeko pertsonak dauden etxeetan bateragarritasuna txertatzeko sentsibilizazio ekintzak zabaldu, egindako triptikoan sartuz, adibidez. | Familiekin erantzunkidetasuna lantzea udalerri mailan. | | Eusko Jaurlaritzak sustatutako “Seguru baietz” sentsibilizazio kanpainan parte hartzea eskatzea. |
| Aramaioko zein kuadrillako komunikabideez zainketen lanak garatzen ari diren gizonen irudiak erabiltzea. | Familian kirola praktikatzeko jarduerak antolatzen jarraitzea, esaterako, patinajea. | | |
| Aramaioko Jaietan edo bestelako egun seinalatuetan, emakumeek aisialdia izateko eskubidea daukatela eta gizonek zainketen lanak egiteko eskatzen duten mezuak argitaratzea. | Jarduera kulturalak familian antolatzea. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Horretarako, 2014an sortutako leloa erabiliko da. | | | |
| Eskola kirolean antolatutako ekintzetan eta mendi elkarteak antolatzen dituen irteeretan, gurasoen erantzunkidetasuna sustatu. | | | |
| Emakumeak eta gizonak kirola modu berean praktikatzeko denbora bera izan dezaten erantzunkidetasuna sustatzen duten ekintzak landu Orixol mendi elkartearekin batera. | | | |

*Morez, betetako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak; eta beltzez, beste baten ordez egindakoa.*

Aramaion ekintzen kopuru interesgarria sartu baziren ere, programatutako zazpietatik bakarrik bi bete dira (%29a); kopuru berbera Legution bostetatik (%40a). Zigoitian, bat gauzatu da, baina ez da programatuta zegoena, baizik beste antzeko bat; beraz, programatutako guztia bete da. Zuian bat ere ez da bete.




*Grafikoa 49: Aramaio, Legutio eta Zuia udalerrietan erantzunkidetasuna arloan egindako ekintzak. Iturria: egileak egina udal datuen arabera.*

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU ERANTZUNKIDETASUNA ARLOAN?

Ekintzen betetze-gradua baxua izanda ere, herritarren artean erantzunkidetasuna sustatzeari ekiten hasi da. Horrela adierazten dute udalerrietan egindako ekintzek:

### ARAMAIO

- Egun seinalatuetan eta jaietan erantzunkidetasuna bultzatzeko, kartelak eta bestelako elementuak hedatu dira, irudiekin eta mezuekin non gizonak agertzen diren zainketa lanak egiten.
- Honen harira eta martxoaren 8ko grebarako, Aramaioko mugimendu feministak proposatu zuen gizonek ere zainketa lanak egitea, grebara emakumeak joatea erraztekotan.

### LEGUTIO

- Jarduera kulturalak familian egin ziren, zainketei dagozkien kontuak, baloreak sustatzeko hezkuntza landuz, eta gizonei parte harraraziz, arrakasta barik.
- Honen harira, familian egiteko kirol jarduera batzuk eskaini ziren, esaterako, Yoga-ipuinak, zeina larunbatean egin zen, gizon senideek parte hartzekotan. Ekimen honetan gizon bat baino ez zen bertaratu, baina ez zen espezifikatu bakarrik gizonentzat zenik.
- Beste jarduera familiar bat zen keinu-hizkuntza ikastaroa, non gizon bat baino ez zen bertaratu.

### ZIGOITIA

- "Familiarte" tailerrak egin dira, non haur bat eta familiar batek parte hartzen zuten. Erantzunkidetasuna sustatzeko, lehen laguntza tailerrak eskaini ziren, aitak inplikatzearren.
- "Berdintasunaren inguruan solasean" dokumentua zabaldu zen: ekonomia feminista erlazionatuta dago.

Ahalduntze pertsonalerako atalean aipatu dugun bezala, 2016ko urrian Berdintasun Jardunaldian egin ziren, erantzunkidetasunari buruzko edukiarekin eta zainketen banaketa ereduari buruzko hausnarketa sustatzeko asmoarekin:

- "Ekonomia feministara sarrera", Marina Sagastizabalen eskutik. 2016.10.21 19:00etan.
- "Emakumeak Afganistanen" erakusketa. 2016.10.30-11.13.
- "Berdintasunerako gizonak eta maskulinitate berriak" argazki erakusketa. 2016.12.10-24.
- "Gizon berrien errelatoak (Maskulinitate berriak)" Bideoforuma. 2016.10.18. 19:00etan.
- *"Bring the sun home"* ekonomia feministari buruzko dokumentala. 2016.10.20. 19:00etan.

### ZUIA

- Erantzunkidetasuna sustatzera aldera, posible izan denean, dohaineko haurtzaindegi/zaintza zerbitzua eskaini da berdintasun ekintzetan, 3 urte baino gehiagoko umeentzat. Zoritxarrez

eskaintza hau egiteko ditugun baliabideak eskasak dira, izan ere, kultur etxea ez dagoenez, ekintzak udalean bertan burutzen dira.

Orokorrean, erantzunkidetasuna sustatzeko estrategia hauen emaitzen balorazioa ez da positiboa. Aramaion garatutako ekintzak eta Zigoitiko Jardunaldiak (jardunbide egokia den ekintza) izan ezik, gainontzekoak ekintza ahulak dira, joera soziokulturalekoak Berdintasunekoak baino. "Familian" egiteko ekintzetara emakumeak eta beren haurrak bertaratzen direnez, eragin negatiboa izan dezakete, emakumezkoen genero rolei zainketak esleitzen jarraitzen baitizkiete.

**Erantzunkidetasunaren arloan** emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrerapena 1etik 5era baloratzeko herritarrei egindako galdeketak hurrengoa erakusten du: elkarrizketatutakoen %23ak dio helburua nahiko bete dela; %6ak, egoki; eta %3ak oso egoki; aitzitik, %29ak uste du helburua eskas bete dela; eta %39ak, oso eskas. Beraz, **gehiengoak, %68ak uste du ez dela berdintasunerantz aurreratu erantzunkidetasun lanetan.**

**Zainketen arloari dagokionez,** elkarrizketatutakoen %26ak dio nahiko egin dela; %13ak, oso egoki; aitzitik, %35ak eskas; eta %26ak oso eskas. Beraz, **gehienen iritzia negatiboa da: %61ak uste du zainketa lanetan helburu hau bete ez dela.**

## C. ERANTZUNKIDETASUNEAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Aramaion, gizonak erantzunkidetasunaren kontzientzia bereganatzeko neurriak, jaietan eta data nabarmenetan.
- Zigoitian, erantzunkidetasunari, maskulinitate berriei eta zainketei buruzko jardunaldiak.

### IBILTZEKO BIDEA

Estrategikoki, berdintasuna lortzekotan emakumeak parte hartaraztea beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa benetako berdintasuneranzko bidean. Beraz, gizonak parte hartaraztea eta sentsibilizatzea ezinbestekoa da: bai zainketa eginkizunen garrantziaz, bai maskulinitate hegemonikoa inposatzeak beren bizitzan izan duen eraginaz. Haratago, Gorbeialdean zainketen arazoari buruzko diagnostiko zein hausnarketa sakonak egiteari oinarrizkoa dela deritzogu: egungo egoera, etorkizunerako iragarpena, estrategiak eta beren eragina berdintasunean, gizarte antolaketa-eredua, eta irtenbide indibidualak, erakundeenak zein kolektiboak.

# 7. IV. ARDATZA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA

Arlo honek prebentzio, arreta eta emakumeenganako indarkeria edo indarkeria matxista kontuetan koordinazio eginkizunak bultzatzea dauka helburu.

**1. Prebentzioa**
Lerro estrategiko honek gizartearen sentsibilizaziorako kanpaina publikoak egiteko lanak barne hartzen ditu. Lan hauek gai larriak zein estrategikoak tratatzean datza: emakumeenganako indarkeria egoerak identifikatzea, kontzilizazioari zein lan erantzunkidetasun eta familiarrari buruz kontzientzia harraraztea, baita hezkidetza proiektuak ezartzea ere.

**2. Arreta eta koordinazioa**
Arretarako eta Koordinaziorako lerroak indarkeria matxistaren kasuetan, indarkeriari aurre egin dioten emakumeentzako arreta metodoak hobetzeko eta erakunde administratiboen arteko koordinazio lanak sustatzeko ekintzei ekiten die.

# 7.1 PREBENTZIOA

## A. BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN INDARKERAIA MATXISTA PREBENITZEKO ETA ZER EGIN DUGU?

Prebentziorako ekintzak, sentsibilizatzekoak eta berdintasunari zein indarkeria matxistari buruzko ezagutza areagotzekoak dira: indarkeria matxistaren egoerak antzematen ikastea, indarkeria mota hau sorten duten azpiegitura zein mekanismo sozialak eta nola borrokatu ezagutzea.

Beraz, arlo honetan tailerrak, erakusketak, hitzaldiak eta ikastaroak dira ekintzarik arruntenak. Guztira, 23 ekintza programatu ziren:

| Aramaio | Legutio | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|
| Emakundek zein genero indarkeria kasuetarako arretarako Zuzendaritzak sortutako materialak hedatzea. | Indarkeria erasoen salaketa publikoak zein sistematikoak egitea. | Haurrentzako eta gazteentzako indarkeriarik gabeko joerari buruzko ikastaroa egitea, Beldur Barik deialdiaren baino lehenago, gazteengan proiektua sozializatzeko. | Indarkeriarik gabeko joera-ereduak garatzeko tailerrak egitea sustatzea. |
| Euskara Zerbitzuak urtero argitaratzen duen egutegian indarkeria matxistaren biktimak izan diren emakumeen arreta zerbitzuak agertzea eta zenbaki garrantzitsuenak. | Emakumeenganako indarkeriaren aurkako baliabideei buruzko informazioa areagotzea. | | Azaroaren 25a: emakumeenganako indarkeriaren aurkako kanpaina. |
| Zuiako kuadrilla maila emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egitera zuzenduriko programa sozio-kulturalak garatzea: adibidez, emakumeen aurkako erasoak jaietan prebenitzea, Beldur Barik programari buruzko informazioa zabalduz. | Emakumeen aurkako indarkeria mota ezagutzeko sentsibilizazio tailerrak egitea (mikromatxismoak, etab.) | | Beldur Barik programan parte hartzea sustatzea. |
| Euskarri iragarkien analisia egin, kiral arloan bultzatzen diren mezu, irudi eta edukiak sexu arrazoiarengatik inolako bazterketarik egin ez dezaten. | Indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazio tailerrak egitea hurrentzako zein gazteentzako guneetan (ikastetxeetan, gaztegunean…) | | Indarkeria matxistarik gabeko jaiak ospatzea sustatzea. |
| Aramaioko kirol esparruan argitaratze diren iragarkietan emakumeentzako baztertzaileak edo iraingarriak diren irudi eta mezuak ez erabiltzeko konpromisoa hartu. | Jaietan eraso sexistak zein sexualen inguruko sentsibilizazio kanpainak egitea. | | Emakumeenganako indarkeriaren aurkako sentsibilizaziorako artikuluak hedatzea. |
| Herriko emakumeekin bildu, herriko leku ez seguruak identifikatzeko helburuarekin, garraio publiko barne. | Herritarren ekarpenak jasotzea segurtasunaren, irisgarritasunaren, eta Legutioko | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Indarkeriaren ziklori buruzko formakuntza ekintzak garatzea. | emakumeen seguntasun sentsazioa hirigintzari buruzko alderdiak hobetzeko. | | |
| Gizonei eta mutilei zuzendutako formakuntza ekintzak garatzea, maskulinitatearen eta indarkeriaren erlazioa landuz. | | | |
| Emakumeenganako indarkeriaren aurkako sentsibilizazioarekin jarraitzea (A25). | | | |
| Eraso sexistak gazteengan prebenitzeko kanpainekin jarraitzea. | | | |

*Morez, betetako ekintzak; gorriz, egiteke daudenak; eta beltzez, beste batzuen ordez egindakoak.*




*Grafikoa 50: Lau planen indarkeria matxista prebentzioan egindako ekintzen ehunekoa. Iturria: egileek egina udal datuen arabera.*

Aramaion egindako zortzi ekintzak, programatutako indarkeria matxista prebenitzeko ekintza guztien %80a dira, non ekintza bat beste ekintza antzeko batekin ordezkatuta izan den. Legution, lau ekintza egin dira, %67a dena. Zigoitian, planifikatuta zegoen bakarra eginda; eta Zuian, aurreikusitako sei ekintzetatik bost egin dira, orduan, betetze-gradua %83,3koa da.

Indarkeria matxistaren prebentziorako ekintza guztiak kontuan hartuta, 18 ekintza bete dira, hau da, betetze-gradua ia %80koa da.

Beraz, betetze-gradua ona izan dela esan genezake, gai garrantzitsu honetan lanean jarraitu behar badugu ere.

## B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOAN ETA SENTSIBILIZAZIOAN?

Agerian dago gai horri buruzko sentsibilizazio handia dagoela, aurreko urteetan zehar egindako lanaren ondorioz, herritarrengan eragina izan duten kanpainen zein ekintzen bidez.

Azaroaren 25eko ohizko kanpainez gain, Emakundek eta Eudelek bultzatutako Beldur Barik programa landu da. Honen helburua neska-mutil gazteengan indarkeria matxista prebenitzea da.

Halaber, prebentziorako neurri ezberdinak ezarri ziren: autodefentsa feminista tailerrak eta hitzaldiak.

Udalerri zein kontzeju guztietan 2017an garatutako sentsibilizaziorako ekintzarik garrantzitsuenetariko bat, jaietan eraso sexistak prebenitzeko lana da, eta horretarako, Beldur Barik kartelak zabaldu dira.

Udalerriaren arabera, lortutako emaitzak honako hauexek dira:

### ARAMAIO

- Heldutako material guztiak sailean zabaltzen dira. Indarkeria matxistaren diagnostikoaren aurkezpena 2017an egin zen eta 30 pertsona bertaratu ziren.
- Kirolean egiten diren iragarkien, mezuen, irudien eta edukien kontrolari dagokionez, orokorrean, sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa ez izatea zaintzan da, baina ez da azterketa zehatzik egiten. Esaterako, Aramaion, Kultura Teknikariak hizkuntzaren zein irudien erabilera ez sexista kontuan hartzen du.
- Autodefentsa feminista tailerrak egin dira, non indarkeria matxistaren prebentzio eta detekzio ikuspegiari estrategiarik egokiena deritzon.
- Gainera, jaietan indarkeria matxista prebenitzeko kanpaina ziztatzailea egin da 2018an, liburuxkak etxe guztietan zein "Beldur Barik gunean" barreiatuz.

### LEGUTIO

- 2018ko A25ean emakumeen aurkako indarkeria kontuetan dauden baliabideei buruzko informazioa areagotu da.
- Gaztelekuan mikromatxismoei buruzko tailerra eginda.
- Ikastolan tratu onen inguruko zineforum bat eta kontukontalari bat egin ziren.
- Berriro ere, jaietan eraso sexistei zein sexu erasoei buruzko sentsibilizaziorako jarduerak egin dira, zeintzuek zabaltze handia zein harrera ona izan duten.

ZIGOITIA

- Zigoitiko Gaztelekuan Beldur Barik 2016an eta 2017an programa landu da, eztabaidak antolatuz, kartelak eginez, eta joko ez sexistak sustatuz, esaterako, Tribial Feminista.

ZUIA

- Autodefentsa feminista tailerrak.
- Gazteriaren Foru Erakundearen "Hitz Kolpez" kanpainan parte hartzea, Arabako gazteen genero indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko. 2016an, 2017an eta 2018an.
- 2018an Berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko zineforum bat eta autodefentsa feminista tailer bat IGEren bidez egin dira Institutuan
- A25en inguruan jarduera anitzak egin dira, indarkeria matxista prebenitzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko.
- Emakumeenganako indarkeria prebenitzeko kartelak egin eta barreiatu dira.
- Tokiko aldizkarian indarkeria matxistaren diagnostikoa zein protokoloa eta Beldur Barik proiektua hedatu dira, eta *Spotify* zerrendak egin dira, letra matxistarik edo misoginorik gabeko musika eta dibertsioa sustatzekotan.

ARRATZUA-UBARRUNDIA

- Indarkeria matxistari buruzko erakusketa.

URKABUSTAIZ

- Gurasoentzako ikastaroak: sare sozialetan indarkeriari buruz eta genero ikuspegitik. Gai hau ikasleekin eta gurasoekin landu zen.

**Indarkeria matxista prebenitzeko** lanetan lortutako aurrerapena 1etik 5era baloratzeko herritarrei egindako galdeketak hurrengoa erakusten du: elkarrizketatutakoen %23ak dio aurrerapena nahikoa izan dela; eta %26ak egokia; aitzitik, %35ak, eskasa izan dela deritzo; eta %16ak, oso eskasa. Beraz, **%49ak iritzi positiboa dauka, baina elkarrizketatutako biztanleen %51ak indarkeria matxistaren prebentzioan aurreratu ez dela uste du.**

**Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioari dagokionez**, pertsonen %26ak dio nahiko egin dela; %32ak egoki; eta %3ak, oso egoki; aitzitik, %26ak, eskas; eta %13ak, oso eskas. Beraz, **herritar gehienek, hau da, %61ek uste dute helburu hau betetzean aurreratu dela.**

## C. INDARKERIA MATXISTAREN PRENBENTZIOAN IBILITAKO BIDEA ETA IBILTZEKOA

### IBILITAKO BIDEA

- Prebenitzeko eta sentsibilizaziorako jarduerak: Beldur Barik programan parte hartzea, eta jaietan indarkeria matxista prebenitzeko lana, autodefentsa feminista.

### IBILTZEKO BIDEA

- Gorbeialdeko Indarkeria Matxistaren aurkako Plan Integrala egitea, giza eskubideen ikuspegitik; non prebentziorako eta sentsibilizaziorako lan-estrategia jasotzen zein antolatzen den. Halaber, hau erakunde arteko koordinaziorako ekintzak, hautematzerako, arreta integralerako, eta kaltearen erreparazioarako, salaketa publikorako zein emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko.

## 7.2 ARRETA ETA KOORDINAZIOA

### A. BETETZEAREN EBALUAZIOA: ZER EGIN NAHI GENUEN INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO ARRETA ETA KOORDINAZIOA BULTZATZEKO ETA ZER EGIN DUGU?

Arretari dagozkion ekintzen helburua baliabideak ezagutzera ematea: bai indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei, bai senideei, bai emakumeei prozesuan lagundu nahi dutenei. Ekintzen talde honek udalek zein eragile sozialek parte hartzea eskatzen du. Emakumeen elkarteak eta elkarte feministak ere oso garrantzitsuak dira arlo honetan.

Guztira, zortzi ekintza programatu ziren: Aramaion, lau; Legution, bi; eta Zigoitian zein Zuian protokoloaren lotutako ekintza bana.

| Aramaio | Legutio | Zigoitia | Zuia |
|---|---|---|---|
| Indarkeria matxista kasuetan arreta eta eskuhartzea hobetzeko protokolo mankomunatuta garatzea. | Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak izan diren emakumeak artatzeko Udal Protokoloa sortzea sustatzea. | Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko protokoloa egitea, udalerri mailan. | Jazarpen sexuala eta sexuaren arrazoiarengatiko kasuak prebentzio eta jardun Barruko Protokoloa egitea. |
| Genero indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzenduriko ekintza informatiboak burutu: Arabako Foru Aldundiko Materiala erabiliz. | Arreta psikologikorako eta juridikorako Zerbitzuaren baliabidea eskaintzen jarraitzea. | | |
| Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei bikote erlazio positiboen ereduei buruzko tailerretara bideratu. Tailer hauen eduki izan daitezke: autodefentsa feminista, tratu onak, indarkeria zikoaren ingurukoa… | | | |
| Berdintasun politiken arduradunarekin batera jazarpen sexista eta sexu jazarpena identifikatu ahal izateko barne protokolo bat garatu prebentzio prozedurak aholkularitza, arreta, salaketa, inbestigazioa jasotzen dituelarik. | | | |

*Morez, betetako ekintzak.*

Ekintza hauetatik, guztiak eginak dira, izan ere, arretan eta koordinazioan lortutako aurrerapenak nabarmenak izan dira.

### B. EMAITZEN EBALUAZIOA: ZER LORTU DUGU INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOAN ETA SENTSBILIZAZIOAN?

Gorbeialdeko Kuadrillak, Arabako Foru Aldundiko laguntzarekin, 2016an indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen egoeraren diagnostikoa enkargatu zuen. Honek giltzarria izan zen, kuadrillako

indarkeria matxistaren inguruko ezagutza *ad hoc* sortu baitzuen: indarkeria matxistaren manifestazio ezberdinak, antzematean, arretan eta koordinazioen agente nagusiek aurkitzen dituzten zailtasunak, eta biziraun duten emakumeei baliabide egokiak emateko erronkak. Hona hemen diagnostikoaren puntu nabarmen batzuk eta ondorioak, gai honi dagokionez, Gorbeialdeko errealitatea ulertzen laguntzekotan[2].

- 2016an **Ertzaintzak jasotako kasuen kopurua** 23koa izan zen:

| Gorbeialdeko udalerriak | Kasuen kopurua |
|---|---|
| Aramaio | 2 |
| Arratzua-Ubarrundia | 6 |
| Legutio | 8 |
| Urkabustaiz | 3 |
| Zigoitia | 3 |
| Zuia | 1 |
| **GUZTIRA** | **23** |

- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeak dauden **arrisku mota** garrantzitsua da:

| Arrisku maila | Kasuen kopurua |
|---|---|
| Oinarrizkoa | 12 |
| Ertaina | 10 |
| Altua | 1 |
| **GUZTIRA** | **23** |

- Arreta zerbitzu espezializatuak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua honako hauxe da:

| Urtea | Kasuen kopurua |
|---|---|

[2] *Sortzen Aholkularitza (2016): Gorbeialdea Eskualdeko Diagnosia: indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei arreta hobeagoa emateko datuak, iritziak eta proposamenak. 26-27. orr.*

| | |
|---|---|
| 2013 | 4 |
| 2014 | 7 |
| 2015 | 3 |
| **GUZTIRA** | **14** |

Emakume horietatik, %79a kuadrillan jaio dira, eta %21a atzerritarrak dira. Honekin, genero indarkeria kasuak atzerritarrengan edo bestelako kulturak dituztenengan gertatu ohi direla hedatutako ideia apurtzen da.




- Zerbitzuek deribatutako emakumeen banaketa honako hauxe da:

| Zerbitzu deribatzaileak | Kasuen kopurua |
|---|---|
| Oinarrizko Gizarte Zerbitzu | 5 |
| Biktimari Laguntzeko Zerbitzua | 2 |
| Osakidetza | 1 |
| Bestelako erakunde publikoak zein pribatuak | 6 |
| **GUZTIRA** | **14** |

Zerbitzu aipagarrienak honako hauexek dira:

- Legutioko zerbitzu psikologikoa.

- Inklusio sozialerako zerbitzua: SARTU programak, emakumeen autoestimua eta autozainketa sustatzeko tailerrak egiteko; baita enplegua eta berdintasuna bultzatzea ere.

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeako (GOFEko) programa psikoedukatiboa.

Diagnostikoan aurkitutako ondorio nagusiak honako hauexek ziren[3]:

**1. Indarkeria matxistaren normalizazioa**
Gai honi buruz kontzientziatzeko, sentsibilizatzeko, formazioa emateko eta indarkeria matxista forma leunenak antzemateko eta lantzeko beharra nabarmendu nahi dugu: hitzezkoak, emozionalak, ekonomikoak… Indarkeria hauek emakume talde desberdinetan era ezberdinetan adierazten dira, adibidez, emakume gazteengan, nagusiengan, etorkinengan, eta abar.

**2. Kontzeptuen eta terminoen nahasmena**
Arazo honen inguruko ulermen komuna eta zehatza ezagutzera ematea interesgarria litzateke, kontzientzia eraikitzeko eta irizpideak bateratzeko, bai biztanleriari begira baina baita eta batez ere bere funtzioak betetzen ari direnean indarkeria egoerekin aurkitu daitezkeen langileen artean.
Adierazle espezifikoen multzorik existitzen ez bada ere, interesgarria izango litzateke gaiaren inguruko informazioa eta formazioa eskaintzea. Udalerrietako eta Kuadrillako langile guztientzako beharrezko oinarrizko formazioa.

**3. Indarkeria egoeratik irteteko emakumeen ibilbideak**
Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeek jarraitu dezaketen ibilbideei eta berauen emaitzei buruzko gogoeta sakon batek arazoaren konponketarako ikuspegi judizializatutik irtetea ahalbidetuko luke.

**4. Arretarako koordinazioa**
Indarkeria matxistatik irteteko emakumeen prozesuan sare bat eratzeko proposamenei dagokionez instituzio arteko koordinazio protokolo bat sortzea aipatu genezake. Bertan funtzioak zein zerbitzu eta inplikaturiko agente guztien arteko koordinazioa zehaztu beharko lirateke, indarkeria matxistaren biktimen prebentzio, antzemate eta esku hartzerako zein udalerrietako elkarte sarearekin batera lan egiteko.

**5. Prebentzioa eta arreta banatutako lan esparruak bezala**
Indarkeria matxista mota desberdinen inguruko informazio eta sentsibilizazio kanpainak garatu behar dira, hurbileko erreferenteekin.

[3] *Sortzen Aholkularitza (2016): Gorbeialdea Eskualdeko Diagnosia: indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei arreta hobeagoa emateko datuak, iritziak eta proposamenak. 63-69. orr.*

Hauetan normalizaturik dauden indarkeria motetan sakontzea interesgarria litzateke euren antzematea zaila bihurtuz. Eskolekin ere kontzientziazio eta sentsibilizazio lana jarraitu behar da, haurrentzat, nerabe eta gazteentzat diseinaturiko kanpaina espezifikoak abian jarriz eta hizkuntza eta erreferente hurbilak eta egokiak erabiliz.

**6. Gizonak eta indarkeria**

Indarkeriaren normalizazioa desberdintasunaren legitimazioan oinarritzen da. Horregatik berdintasun politikak indartu behar dira eta hauetan gizonak barne hartu behar dira.

Diagnostiko honen ondorioz, 2017an zehar Gorbeialdeko Kuadrillako **“Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzat arreta hobetzeko Erakundeen arteko Koordinazio Protokoloa”** diseinatu zen.

Prozesu honetan, udalerri guztietako pertsonal politikoak zein teknikoak parte hartu zuten, eta bereziki, gizarte langileek, zeintzuek arretaren, koordinazioaren eta indarkeriaren intzidentzia erregistroaren prozesuen egokitzapena gainbegiratu zuten. Helburu nagusia zen beste bi sarbide nagusiekin eta emakume biktimei arretarako agenteekin koordinazio espazioak antzematea: osasun arloa, Osakidetzako pertsonalak ordezkatua; eta arlo poliziala, Ertzaintzako agenteak ordezkatua.
